

IRAKASLEAREN LIBURUA

Imma Llort i Juncadella

ASIA

ASKOTARIKO KONTINENTEA

Himalaiako Herrialdeak

Nepal • Tibet • Bhutan



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

IRAKASLEAREN LIBURUA

Imma Llort i Juncadella

ASIA

ASKOTARIKO KONTINENTEA

Himalaiako Herrialdeak

Nepal • Tibet • Bhutan



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Bantaba

Giza garapenerako,
hezkuntza globalerako
eta herritarren partaidetzarako
baliabideak

Bantaba izeneko proiektuaren barruko argitalpena da honako hau. Zenbait baliabide eta jardueraren bitartez (webgunea –www.bantaba.ehu.es–, argitalpenak, jardunaldiak, ikastaroak, bideoak, irakas-gidak) Hegoak zera eskaini nahi du, heziketarako guneak, esperientzien elkartrukea, teknologia berrietan oinaritutako lanabesen bultzada, eta herritar sentsibilizazioaren alorreko irakasteko proposamen berrien aplikazioa.

Proiektu hau babesten du:



Egilea: Imma Llort i Juncadella

Irudiak: Laura Castellet

Argazkiak: Sebastià Coy, Carme Fullrachs, Maite Hugueta, Natalie Lebris, Imma Llort, Gene Palacios, Fernando Peleato, Jordi Plana, Antoni Pujante, Barbara Roubicek, Joan Viladomat.

Jatorrizko zuzenketak: Monteserrat Miró

Laguntzaile izan dira eta eskerrak ematen dizkiegu:

Lourdes Albi, Josep Miquel Alegret, Assumpta Eixarch, Montse Fuentes, Nathalie Lebris, Bibendra B. Pradhanaga, Ramón Viladomat (Amics del Nepal), Casa del Tíbet de Barcelona, KEEP (Kathmandu Environmental Project), Mountain Wilderness Catalunya, Nepal Watch, karpeta pedagogikoaren materialak erabiltzea onartu duten eta zuzenketak egiteko orduan beren iritzia eman duten institutu desberdinetako eta hezkuntzaren arloko irakasleak, eta halaber, proiektu hau gauzatzen lagundu diguten pertsona guztiak.

Azaleko argazkiak: Nathalie Lebris

Edizioa eta egokitzea:



Ekonomi Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)
Lehendakari Aguirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40
E-mail: hegoa@bs.ehu.es

Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila (UPV/EHU)
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945 01 42 88 • Faxe: 945 01 42 87
E-mail: hegoa@vc.ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Lege-Zenbakia: BI-251-05
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi, S.L.
Bilbao 2005

Jatorrizko edizioa:

L'Ásia. Un continent divers. Pays de L'Himalaia.

El Nepal - El Tibet - El Bhutan. Icaria / Concertacio N/S - Frères des Hommes Europa.
Bartzelona 1999.



Hitzaurrea

Hegoak bere eskerrik zintzoenak eman nahi dizkio Inma Llorit i Juncadellari, **Himalaiako Herrialdeak. Nepal, Tibet eta Buthan** material didaktikoa euskarara eta gaztelaniara itzultzeko baimena ematean erakutsi duen eskuzabaltasun eta prestutasunagatik (Concertacio N/S – Icaria, 1999).

Proposamen pedagogiko honen berri izan genuenean, bi ezaugarri iruditu zitzaizkigun dei-garriak. Alde batetik, ale honetan aztertzen diren gaiak –turismoaren eragina, umeen lana, errefuxiatuak, budismoa– aurkezteko erabilitako interesa eta zorrotasuna. Beste alde bate-tik, nahiko ezezagunak zaizkigun herrialde batzuen eta kontinente baten errealitatera hur-biltzeko eskaintzen digun aukera, gaur egun horiei buruzko ezagutza estereotipatu eta zehazgabe samarra baitauekagu.

Gidaliburuek garapenerako hezkuntzaren eta kultura aniztasunaren proposamenei erantzuten diete. Ikuspegi horietatik, material hauek konplexuak diren eta gure arreta eskatzen duten egoeren gaineko hurbilketa kritikoa proposatzen digute. Dena dela, ikuspuntu positi-botik egiten dute hori; izan ere, arazoak modu argian azaltzea bezain garrantzitsua da giza eskubideen urratzeak salatzeke eta jarduketa ildo eraldatzaileak proposatzeko asmoz gizar-te zibil antolatuak martxan jartzen dituen ekimenak erakustea.

Hegoan ziur gaude material pedagogiko hau oso erabilgarria izan daitekeela elkartasuna-ren eta justizia sozialaren baloreekin konprometitutako hezkuntza baten aldeko apustua egi-ten duten irakasle eta hezitzaileentzat.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
------------	---

Himalaiako Herrialdeen	8
------------------------	---

NEPAL

Aurkezpena	12
------------	----

Programazio-orria	13
-------------------	----

Historia	14
----------	----

Turismoa Nepalen	15
------------------	----

P1 Jarduera. Nepalgo turismoaren ondorio positiboak eta negatiboak	16
--	----

P2 Jarduera. Turismoaren eragina kulturen eta gizartean	22
---	----

P3 Jarduera. Goazen trekkingean Nepaletik	26
---	----

Haurren lana Nepalen	57
----------------------	----

1. Dokumentua. Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsala	57
--	----

2. Dokumentua. Munduko Martxa Haurren Lan-Esplotazioaren aurka	59
--	----

Bibliografia	60
--------------	----

TIBET

Aurkezpena	64
------------	----

Programazio-orria	65
-------------------	----

Historia eta egungo egoera	66
----------------------------	----

P1 Jarduera. Tibeti buruzko Herrien Auzitegi Iraunkorra	70
---	----

1. Dokumentua. Herrien Eskubideen Deklarazio Unibertsala	76
--	----

P2 Jarduera. Atzerritarra izatea	78
----------------------------------	----

P3 Jarduera. Errefuxiatuak	79
----------------------------	----

Bibliografia	81
--------------	----

BHUTAN

Aurkezpena	84
------------	----

Programazio-orria	85
-------------------	----

Historia	86
----------	----

1. Dokumentua. Jatorrietatik gaur egunera arte	86
--	----

Ekonomia	88
----------	----

2. Dokumentua. Ekonomiari buruzko zenbait datu	88
--	----

Bibliografia	89
--------------	----

Aurkezpena

Zuen eskuetan duzue **Asia, askotariko kontinentea** karpeta pedagogikoaren zati den *Himalaiako Herrialdeak* (*Nepal, Tibet, Bhutan*) liburukia, eta honako hauek dira horren helburuak:

- Gaur egun Asiako kontinentean dauden errealitate desberdinen ezagutzarako, analisirako eta kritikarako aukera ematea.
- Elementu berriak ematea, Asiako kultura desberdinei buruz Mendebaldean eraikiz joan garen estereotipoak apurtzen laguntzeko.
- Balioetan eta jarreretan hezteak, herrien arteko elkartasuna sendotzen laguntzeko.
- Material hau erabili ahal izango da, bai hezkuntza formalean (DBHko lehen ziklotik aurrera) bai ez-formalean (aisialdi hezkuntza, bakerako eta elkartasunerako hezkuntza-ikastaroak, helduen hezkuntza, etab.).

Edukiak

Himalaiako Herrialdeak liburukiak Asiako hiru herrialde aurkeztuko dizkigu: Nepal, Tibet eta Bhutan.

Geografiaz, historiaz, ekonomiaz, etnologiaz, etab. egiten diren aipamenez gain, herrialde bakoitzean *langai* bat edo batzuk azaltzen dira. Langai horiek ez dira nolanahi aukeratu, eta ez dira herrialde jakin batean ausaz kokatu. Nahiz eta gehienak interes unibertsalekoak izan, horiek aukeratu dira Mendebaldean herrialde jakin bati buruz jasotzen dugun informazioak gai horrekin lotura duelako edo herri-mailan eragina duelako, edo bertako gizarte zibilei kezka eragiten dielako. Nepalen kasuan, turismoaren eragina eta umeen lana izango ditugu aztergai; Tibeti dagokionez, errefuxiatuen egoerari erreparatuko diogu; eta, azkenik, Bhutanerako proposatutako lanari esker, budismoa hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

Gai hauen analisia eta azterketa Hego-Ipar elkarmen-pekotasunaren eta nazioarteko harreman ekonomikoen esparruan (globalizazioa) egin dira, eta horien helburu nagusia honako hau da: argi erakustea zenbait arazoren kausak egungo garapen-ereduaren (txarraren) ondorio direla, eta balizko konponbideak lortzeko nazioarteko joko-arau ekonomikoak aldatu behar direla.

Testuinguru horretan, eta Asiako kontinenteko gizarte zibilen ekimenak jakitera emateko asmoz, herrialde bakoitzean, biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzeko lan

egiten duten eta beren herrialdeak bizi dituen egoera bidegabeak salatzen dituzten elkarteak, herri-ekimenak, etab. aurkezten ditugu.

Egitura

Material didaktikoa hura erabiliko duten irakasleen eta hezitzaileen lehentasunetara eta ikasleen tipologiara moldatzeko, zenbait jarduera-mota proposatzen dira, gaietako bakoitza lantzeko: ikasgelarako ariketak, rol-jolasak, simulazio-jolasak, mahai-jolasak, etab., bai eta diziplinarteko jarduerak ere. Jardueren eskaintza dibertsifikatu honen bidez, jarduerak berak hemen proposatzen diren langaien tratamendua erraz dezan bilatzen dugu.

Himalaiako Herrialdeak bi liburukitan dago egituratuta; bata irakasleentzat eta bestea ikasleentzat.

Irakasleen liburuan programazio-orri bat dago herrialde bakoitzerako, eta bertan zehatz jasotzen dira edukiak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak), metodologia, jarduerak (zenbait ebaluazio-ariketa barne), horiek egiteko beharrezko denbora eta adinen araberrako orientazioa. Helburuak ikaslearen liburuko lanerako fitxen hasieran aurkituko dituzue. Modu horretara, neska-mutikoen fitxetako edo langaietako bakoitza jorratzeko zer helbururi jarraitu behar dioten jakin ahal izango dute.

Halaber, ikaslearentzako liburuan jorratzen diren langai desberdinak aberasteko informazioa ere aurkituko duzue, irakasleek gelako talde osorako edo gazteen talderako proposatuko dituzten ariketa osagarrien proposamenak (nagusiki, rol-jolasak, simulazio-jolasak, mahai-jolasak, etab.) edota langaiei buruzko dokumentu interesgarriak (manifestuak, deklarazio unibertsalak, etab.); den-dena ikaslearen liburuan proposatzen diren eta geroago fotokopiatu eta banatu beharko diren jarduera zehatzei lotuta. Gainera, sail berezia izango duzue honakoekin: bibliografia bat, bideoak, posta-helbideak, Interneteko helbideak eta herrialdearekin eta aztergaiekin harremana duten helbide elektroniko interesgarriak ere.

Ikasleentzako liburua lanerako fitxa eran egituratuta dago, eta proposatzen diren jarduera guztiak garatzeko beharrezko informazio guztia dago bertan. Lanerako fitxa bakoitzak informaziorako zati bat du, eta bertan zenbait jarduera jasotzen dira, norberak egitekoak batzuk eta taldean egitekoak beste batzuk.

Himalaiako herrialdeak

Aurkezpen orokorra

Himalaiako Herrialdeek izen hori hartzen dute herrialde horietan Himalaiako mendikateak lurraldearen zati handi bat hartzen duelako; hori gertatzen da, esaterako, Bhutanen, Nepalen eta Tibeten (azken hau Txinaren menpe dago gaur egun, baina historian herrialde askea izan da eta bertakoek berriz ere herrialde subiranoa izateko borondatea dute).

Indiak ere Himalaiaren zati handi bat hartzen du, lurraldearen ipar-ekialdeko estatuetan, hain zuzen. Estatu horietako batzuk beren autonomiaren alde borrokatzen dira eta Himalaiako Herrialde izateko hautagai lirateke. Guk India unitate bakartzat hartu dugu eta iparraldeko estatuak lurralde-unitate horretan sartu ditugu.

Beste herrialde batzuek, Txinak eta Pakistanek, hain zuzen, Himalaiako mendikatearen zati bat dute beren lurraldean, baina kasu batean zein bestean Indiarekin lehian dauden lurraldeak dira.

Liburuki honetan ikusiko dugunez, Nepalgo, Tibeteko eta Bhutango biztanleentzat, Himalaiako mendikatearen barruan egoteak, nolabait esateko, antzeko bizimodu bat izatea dakar (antz handia duena baldintza klimatikoetan, nekazaritzarako erabilgarriak diren lurretan, lurraldearen orografian, etab.), kasu askotan mito, ohitura eta tradizio berberak izatea, eta zenbaitetan, erlijio-sinesmen berberak izatea.

Himalaiako mendikatea

Himalaiakoa planetako mendikaterik modernoenetakoa da. Duela 50 milioi urte, Indiako plakak eta plaka Euroasiarrak talka egitean, batetik, Indiako plakaren zati bat plaka Euroasiarrak xurgatu zuen, eta bestetik, horrek oso mendi garaiak altxarazi zituen, hots, Himalaia.

Aktibitate geologikoa inguru horretan oraindik ez da eten. Himalaia etengabe mugitzen eta aldatzen ari da (milimetro batetik hamarrera bitartean lekualdatzen eta altxatzen da urtero). Horregatik izaten dira lurrikarak maiz, eta horien ondorioz, lur-mugimenduez gain, lur-desplazamenduak eta luiziak gertatzen dira, eta ingurumena suntsitzen duten giza jarduerak areagotu egiten dituzte. Horren adibide dira, esaterako, malda handiko inguruetan baso-mozketa neurrigabea edo gehiegizko meatze-erazketa. (gatzarena Tibetean, magnesioarena Nepalen).

Himalaia ospetsua da Lurreko tontor garaienetakoa batzuk dituelako, elur iraunkorreko gailur asko, glaziar-haranak, oso topografia irregularra eta oso egitura geologiko konplexua; hala eta guztiz ere, Himalaiaren zati handi bat elur iraunkorreko mailaren azpian dago, eta bertan oso argi ikusten da hura zeharkatzen duten 19 ibaiek eragindako higadura.

Himalaian montzoi-klima da nagusi (prezipitazio gehiago daude hegoaldean), eta dibertsitate klimatiko handia dago. Nepalen, 200 km-ko ibilbidean, Terai mendikateatik elur iraunkorreko gailurretara arte, klima subtropikal eta oso bero batetik klima artiko batera igaroko gara. Baldintza hauei esker askotariko ekosistemak daude, eta horiek beren fauna eta flora dituzte, inguru-nera moldatuta.

Mendikate honek Nepal, Tibet, Bhutan eta Indiaren iparraldeko lurrak hartzen ditu. Pakistanek eta Txinak ere, Indiarekin lehian, hartzen dute Himalaiaren zati bat.

Himalaian oso biztanle desberdinak daude

Himalaiak muga naturala egiten du mendikatearen iparraldean eta hegoaldean bizi diren herrialdeen artean.

Himalaiako gailurretako askok jainko eta jainkosen izeinak dituzte; bertako haitzen artean leku sakratu asko daude (erromesaldietakoak) Asiako kontinenteko hinduistentzat, budistentzat eta musulmantzat.

Ingurune geografiko berean, kasu honetan Himalaian, bizitzeak batasuna ematen du, baina hala ere, eta batez ere mendikateak ekartzen dituen bizi-baldintza gogorren ondorioz, Himalaiako Herrialdeetako biztanleen artean desberdintasun handiak daude, etniari, hizkuntzari eta kulturari dagokienez. Talde etniko bakoitzak hizkuntza autoktono bat edo batzuk ditu, janzteko era bat, tradizio bat, mito propio batzuk, erlijio bat, etab.; Nepalen bakarrik 12 talde etniko desberdin daude.

Himalaiako Herrialdeetako biztanleen erlijio nagusia budismoa da, nahiz eta Nepalen erlijio ofiziala hinduismoa izan. Budismoa Bhutango Estatuaren erlijioa da. Tibetean (Txinako gobernuak Xizang izena eman dio, Txinako errepublika Popularreko eskualde autonomoa), eta jazarpen handia jasan arren, batez ere Iraultza Kulturalaren garaian, budismoak indar handia du. Dalai-lama, budismo tibetarraren autoritate gorena,

erbestean den Tibeteko gobernuaren arduradun nagusia ere bada.

Eskualdeko beste erlijio batzuk dira hinduismoa, islama, kristautasuna eta beste hainbat praktika animista. Nepalen, Indiarekiko hurbiltasunagatik, budismoak eragin hinduista handia du, baita alderantziz ere.

Hainbat belaunalditan, Himalaiako biztanleak naturarekin harmonian bizi izan dira, izan ere, horri esker iraun dute bizirik. Lur horrek emandako baliabideak erabili dituzte, baina neurrian betiere, haren ahultasun geologikoa eta ekologikoa kontuan izanda. Himalaiaren kasuan, jendeak naturarekiko duen errespetuzko eta harmoniazko harremana, bertako herritar-taldeek eguneroko bizitzan budismoak eta hinduismoak duten eraginaren ondorio da.

Himalaiako Herrialdeetako biztanle gehienek, gutxi gorabehera biztanleria osoaren %80k, nekazaritza dute bizibide. Nekazaritzan gehien ekoizten eta kontsumitzen den produktueta bat, batez ere mendikatearen hego-muturrean, arroza da.

Eskualdearen orografia dela eta, nekazaritzarako erabilgarriak diren lurak urriak dira; horren ondorioz, erieteko moduko lurzoruaren gehiegizko esplotazioa dago, eta horrek arriskuan jartzen du lurzoru horren etorkizuneko produktibitatea. Mendiko baldintza klimatikoek ondorioz, jarduera hau urteko hilabete jakin batzuetan baino ezin daiteke egin, eta beraz, diru-sarrera txikiak ekartzen ditu. Mendialdeko biztanleek neguan lautadetara emigratzen dute lan bila, bai turismo-sektorean, eraikuntzan, nekazaritzan, industria txikian edo meatzeetan, etab.

Mende honen hasieratik, Himalaia mundu osoko alpinisten helmuga nagusietako bat da.

Himalaiako topografiak nekazaritza eta komunikazioak zailtzen ditu. Eskualdeko herrialdeek errepide gutxi dituzte. Salgaien garraioa, sorlekutik eskaria egindako lekura, nagusiki oinez egiten da, bideak ez direlako behar bezain handiak edo malda handiegia dutelako garraiorako animaliek tiratutako ibilgailuak erabiltzeko. Edozein modutan ere, zaldien, dzoen eta jaken alokairua garestiegia da, produktu hauen salmenta-prezioa eta biztanleriaren erosteko ahalmena kontuan hartzen badugu. Salgai gehienek garraiatzaileen lanari esker zeharkatzen dute herrialdea, batez ere Nepalen

kasuan. Mendiko gizon eta emakumeen artean hirutik batek bizitza gehiena ematen du lan hori egiten. Pertsona hauek batez beste 40 edo 60 kiloko zama eraman ohi dute bizkarrean, eta egunero 8 edo 10 orduz egiten dute, gutxi gorabehera 10 edo 15 eguneko ibilbideetan.

Beren ekonomia dibertsifikatzeko eta nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak lurzoruaren gain ezartzen duen presioa murrizteko, herrialde hauek guztiek beren ekoizpen eta lan eskaintza areagotu dute, nekazaritza eremuetako biztanleak hiriguneetara erakartzen dituzten jarduerekin, aldi baterako lanak baino ez badira ere. Horrela, azken 15 urteetan nekazaritza eremuetako exodoa handituz joan da. Hirietako bizitza ez da beti erraza izaten, batez ere diru-sarrera txikiak dituztenentzat eta lanerako prestakuntza espezifikorik ez dutenentzat. Bizitzaren kostua hirietan handiagoa da (alokairua ordaindu behar da etxebizitzarako, aparteko gastuak daude – garraioa, gasolina, etab.) eta jende guztiak ez du lana horren erraz lortzen.

Hirietan batzen dira, halaber, herrialde hauetako erdi-mailako eta goi-mailako klaseak: enpresariak, profesional liberalak, merkatariak, etab. Horiek guztiek diru-sarrera handiak dituzte, zerbitzu eta erosotasun ugari baliatzen dira, eta haien kontsumo-maila Europako eta Ipar Amerikako erdi- eta goi-mailako klaseek dutenaren parekoa da.

Herrialde hauetan jende profesionala dago hainbat arlotan. Himalaiatik hegan egiteko eta Katmanduko haranean lur hartzeko trebezia eta esperientzia handia behar da. Horretan aritzen den aire-konpainia nepalدارrak pilotu espezialistak ditu. Medikuntza eta arte tibetarrak prestigioa eta onarpena du nazioartean. Gure ikuspuntu eurozentristik, litekeena da harrituta geratzea Himalaiako Herrialdeetan erdi- eta goi-mailako klaseen artean ordenadoreen erabilerak duen hedapena ikusita.

Himalaia osatzen duten herrialdeetako klase intelektual konprometituak erronka nagusitzat du herri-jakin-duriari eustea eta hura bultzatzea, gizarte-koherentzia tradizionala, ingurumenarekiko errespetua eta, halaber, hezkuntza modernoa bultzatzea, funtsezkoa baita ideia eta teknika berriak sartu eta horrela aurrera egin ahal izateko.

Aldaketen ondorioz, arriskuan da eskualdearen iraupena

Azken hamarkadetan, Himalaiako herrialdeek hazkunde demografiko garrantzitsua izan dute, eta horren eragile izan dira, besteak beste, osasun-arloko hobekuntzak, haurren eta adinekoen hilkortasuna jaitea lortu dutenak, elikagaien eskuragarritasun handiagoa, lur eta aire bidezko komunikazioak hobetu direnetik, eta familia-errenta hobeak izatea (batez ere, kideetako batzuk lautadetan lanean dituzten familietan, horiengandik dirua jasotzen baitute).

Dena dela, hazkunde demografiko honek ondorio kaltegarriak izan ditzake Himalaiarako eta bertako biztanleentzako.

Alde batetik, biztanleriak gora egiten egur-kontsumoa hazten da (egurra erregai moduan baitarabilte nekazaritza guneetan eta hiriguneetan) eta, era berean, egur-eskaria hazi egiten da etxebizitza gehiago eraikitzeko; horren ondorioz, beharrezkoa da baso gehiago moztea, eta kudeaketa egokia egin ezean, horrek mendikatearen deforestazioa areagotzen du. Ingurumenaren suntsipenak mendiko biztanle-guneen bizi-kalitateari kalte egiten dio, izan ere, bertakoek bizirik irauteko ezinbesteko dituzten produktuak basoetatik lortzen dituzte (egurra, animalientzako belarra, ura, haziak, frutak, sendabelarrak, etab.). Beren ingurunea degradatzen

denean, emakumeek (emakumeak baitira familiaren mantenuan arduradun nagusiak) urrunago joan behar dute eta denbora gehiago behar dute familia osoak egunero kontsumituko duen egurra edo ura lortzeko. Horren ondorioz, luzatu egiten da aurrez jada gainezka datorren lan-jarduna.

Bestalde, biztanle-kopuruak gora egitean, gehienek nekazaritza eta abeltzaintza bizibide dituztenez, abelburu-kopuruak ere gora egin du, eta nekazaritza-lurzorurekiko gizakien eta animalien presioa areagotu egin da. Gizarte hauek modernizatzean, premia berriak ere sortu dira, esaterako, komunikazioarena. Errepideak egin dira eta horretarako baso-sail handiak soildu dituzte. Komunikazioak hobetzeaz batera pertsonen arteko eta biztanleria-gune desberdinen arteko kontaktua eta harremana estutu da, eta horren ondorioz, errazagoa da ideiak eta esperientziak trukatea. Agintariak garrantzi handia eman diote hezkuntzari, eta horren ondorioz, Himalaiako jendeak ardura hartzen du ezagutza eta ideia berriak jasotzeko. Gero eta jende gehiago dago hainbat gaitan trebatua eta prestatua, aspirazio pertsonal eta profesional gehiagorekin; pertsona horiek herrialdeko ekonomia eta politika liberalizatzearen aldekoak dira.

Sunderlal Bahuguna, *Save the Himalayas*
mugimenduko aktibistaren adierazpenak



NEPAL

Aurkezpena

Jarraian aurkezten dizuegun Nepalgo material didaktikoak helburutzat du herrialdearen aurkezpena egitea ibilbide txikia eginez bere historiari, bere geografiari eta herrialdearen eguneroko bizitzako zenbait alderditatik.

Nepalgo langai nagusiak hauek dira: turismoaren eragina ekonomian, ingurumenean, kulturean eta gizartean, eta haurren lana turismoaren industriari lotuta.

Lurralde horretan planetako gailurrik garaienetako batzuk daude eta herrialdean hainbat etnia, kultura, hizkuntza eta erlijio daude. Horregatik guztiagatik, Nepal helmuga turistiko jendetsuenetakoa da, batik bat mendi eta trekking¹ espedizioak egiten direnetik.

Hemen ezagutuko eta aztertuko ditugu herrialdean dauden turismo-motak, eta mota bakoitzak zer ondorio on eta txar dituen biztanleria-sektore desberdinetan eta ingurumenean.

Analisi honen helburua da ikasleengan ardura piztea mendian dituzten jarrerekiko, bisitatzen duten ingurune berri-erekiko (haien oporlekua, edo asteburua emango duten lekua, etab.) eta bertan bizi den jendearekiko.

Beste helburu bat da ikasleek hausnar dezaten lortzea, turismoak Nepalen eta gure ingurunean duen eragin kaltegarria murrizteko beharraz; egin daitezkeen ekimenetan pentsatzea, hemen eta han gai hori lantzen duten taldeak, etab.

Aztertu beharreko Nepalgo beste gaia hurrek herrialde horretan egiten duten lana da, eta batez ere, turismoaren industriari lotuta hurrek egiten duten lana (alfonbren eta tapizen fabrikazioa, gida turistikoak, etab.).

Ikasleentzako Nepalgo liburuak, neska-mutikoek jarduera guztiak lantzeko beharrezko informazioa aurki dezaten eta proposatzen dizkiegun helburuak ia modu autonomoan lor ditzaten pentsatuta dago.

Irakasleentzako Nepalgo liburuak informazio gehiago dakar Nepalgo langaiei buruz, bai eta irakasleek ikasleei zuzenean proposatzeko zenbait jarduera ere. Kasu honetan, bi rol-jolas eta mahai-jolas bat dira. Jarduera horiek programazio-orrian agertuko dira, horrela adierazita: P1, P2, etab.

¹ Trekking hitz ingelesean da eta zenbait egunetako iraupena duen mendi-ibilbidea izendatzeko erabiltzen da.

NEPALI BURUZKO PROGRAMAZIO-ORRIA						
Programazio - unitatea	Edukiak		Ikasteko jarduerak	Ebaluazio jarduerak	Behar den denbora	Adinen arabera orientatutakoa
	Gertaerak eta kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak, balioak eta arauak			
Nepal	Nepal: Historia Turismoa: Mota desberdinak Eragina Ondorio positiboak Ondorio negatiboak Turismoa ulertzeko moduak Emakumezko garraiatzailea Trekkinga Nepal Haurren lana turismoari lotuta: Haur langileen eta haien familien egoera ekonomikoa. Haurren lanerako baldintzak. Sexuagatik bazterketa lanean. Denbora libre. Haur langileen antolaketa. Salaketa agertzea, haurren lan-esplotazioa dela eta. Haurren lanerako baldintzak gure herrialdean duela 100 urte. Haurren lanaren egoera legala gure herrialdean.	Testu baten informazio garrantzitsuen eta bigarren-mailakoa interpretatzea. Estatistikak eta mapak irakurtzea eta interpretatzea. Portzentaiak iruditzea. Kalkulu errazak. Grafiko eta diagrama zirkularrak osatzea. Sintesiak egitea informazio-mota desberdinetatik abiatuta. Informazio espezifikoak ikertzea. Idatzizko dokumentuak interpretatzea. Elkarriketak sortzea eta interpretatzea. Idatzizko informazio-iturri bat sortzea. Testua sortzea informazio-mota desberdinetatik abiatuta. Proposamenak egitea. Binetak iruditzea. Lan indibidualak eta taldekoak aditzera ematea.	Kultura propioa estimatzea eta besteak errespetatzea eta balioak. Begirunezko jarrera ingurumenarekiko. Gure garaiko dilema moralak balioak. Jarrera kritikoa. Eskubideen eta askatasunen aldeko jarrera. GKE nepaldarren lanarekiko begirunea eta onarpena adieraztea. Ernatiak jarrera bizirik irauteko lan egiten duten haurrekiko.	1. Fitxa 1-5 (bikoteka) 6 (bakoitzak berea) 2. Fitxa 7-10 (bakoitzak berea) 11-12 (bikoteka) 3. Fitxa 13 (bakoitzak berea) 14 (bakoitzak berea) 15 (bikoteka) 16-19 (bakoitzak berea) 4. Fitxa 20 (bakoitzak berea) 21-25 (bikoteka) P2 (taldeka) P3 (taldeka) 5. Fitxa 26-27 (bikoteka) 28-29 (bakoitzak berea) 6. Fitxa 30-34 (bakoitzak berea) 35-44 (bikoteka) 7. Fitxa 45-47 (bakoitzak berea) 48 (bikoteka) 49 (bikoteka) 50 (bikoteka) 51 (bakoitzak berea) 52-53 (bakoitzak berea) 54 (bakoitzak berea) 55-58 (bikoteka)	30' 10' 30' 30'-60' 20' 15' 2' (exean) 20' 15' 10' 60' 1h-1.30h 10' 10' 30' 30' 10' 10' 5' 20' 15' exean 5' 15'	14-16 12-16 12-16 14-16 12-16 12-16 12-16

P jarduerak irakaslearen liburuan aurkituko dituzuen jarduerak dira.

Historia

(informazioa zabaltzeko)

Hainbat mendetan, Nepal Asiako budismoaren gunea izan zen. Gautama Buda bera Nepalera ino joan zen.

XIV. mendearen hasieran herrialdera heldu zen Rajputatarren dinastia. Une horretan herrialdeak hinduizazio indartsua izan zuen, eta gerora hori indartu egingo zen Indiatik hinduista gehiago heltzean, herrialde hartan Islamak izan zituen hedapen-aldietan.

Kontuak kontu, Nepal ez zen nazio bat izan XVIII. mendera arte; orduan, Gurkhako gobernadorea (Nepal mendebaldeko printzerri txiki bat zen Ghurka), Shah dinastiaren kidea bera, Katmanduko haraneko erresuma (Katmandu hiria, Patan eta Bhaktapur) bateratzen saiatu zen, nazio bakar bat sortzeko eta, modu horretara, jada Indian kokatuta eta Nepalera bidean zeuden Ekialdeko Indien Konpainiak eta haiek bultzatutako herrialdearen esplotazioa geldiarazteko.

Behin nazioa sortuta, agintariak herrialdeko lurak zabaltzen saiatu ziren, mugez haraindi, baina haien ahaleginak hutsean geratu ziren, arerioen indar militarrek menperatuta. Egoera honek zaildu egin zituen Nepal eta bere ondoko herrialdeen arteko harreman diplomatikoak, batez ere Tibeteko eta Txinako gobernuenak, eta Indiako britainiar gobernuarenak. 1814an gerra piztu zen, eta Nepalek, gerra galduta, Katmandu britainiar komisario bat onartu behar izan zuen.

Ezgonkortasun politikoa nagusi izan zen garai baten ondoren, 1846an Rana dinastiaren monarkia heredagarria ezarri zen, eta horiek izan ziren herrialdeko agintari ehun urtez baino gehiagoz. Boterea ziurtatzeko, Ranatarren belaunaldi desberdinak errege-familia nepaldarreko kideekin ezkondu ziren. Britainiarren aldeko diktadura zen.

Rana dinastiarentzat garrantzitsuagoa zen bere ondarea handitzea, biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzea baino.

Herrialdeko biztanle gehienek, nekazaritza bizibide zutenek, ez zuten aldaketa handirik sumatu, eta Erdi Aroan bezala bizitzen jarraitzen zuten. Oligarkiarekin zuten harreman bakarra lurren truke ordaindu beharreko zerga zorrotzak ziren. Horiek ordaintzeko adina ez zutenek, lurak gal zitzaizkien. Politika horren ondorioz, nekazariak ezin zuten dirurik inbertitu haien sailetako ekoizpena hobetzeko, eta lurrik gabeko nekazarien kopurua haziz joan zen.

Aldaketaren eragile nagusiak Indiaren independentzia-prozesuaren lekuko izan ziren erbesteratu nepaldarrak izan ziren. Kongresukide indiarren laguntzaz, Kongresuko Alderdi Nepaldarra sortu zuten, eta 1951an agintea hartu zuten. Rana dinastiari lekua kenduta, monarkia konstituzionala ezarri zuten, Tribhuvan erregea buru zela.

1955ean Tribhuvan hil zen eta bere seme Mahendrak ordeztu zuen. 1959an hauteskundeak deitu zituzten eta Kongresuko Alderdiak garaipen handia lortu zuen. Sartu nahi izan zituzten erreformak ez ziren herrialdeko klase pribilegiatuaren gustukoak izan, eta 1961ean Mahendra erregeak gobernu aldazti zuen, iskanbilei erantzuteko gaitasunik erakutsi ez zuelakoan. Mahendrak Konstituzioa berriro zuen, administrazioa liberalizatu zuen eta hasiera eman zion herrialdearen industrializazio-prozesu txiki bati, Indiaren kontrolpean betiere.

1972an Mahendra erregea hil zen eta bere seme Birendrak ordeztu zuen.

1989an emendakin bat sartu zen Nepalgo Konstituzioan, eta horri esker hurrengo urtean hauteskundeak egin ahal izan ziren.

1989an Nepalek armamentua erosi zion Txinari, eta Indiako gobernuak, gertaera hori mehatxutat hartuta, Nepalekiko mugak itxiarazi zituen. Horrek bertako ekonomia blokeoa eta erabateko kaosa ekarri zuen. Birendra erregeak, operazioaren arduradun nagusiak, bere hutsa onartu behar izan zuen eta sistema politiko berri bat abiarazi zuen: monarkia konstituzionala.

1991n berriz ere hauteskundeak deitu zituzten (aurreneko hauteskunde demokratikoak 1959az geroztik) eta gobernu berria, azkenik, Kongresuko Alderdiaren eta Alderdi Komunistaren arteko koalizio batek osatu zuen. Gobernu horretako lehen ministroak India bisitatu zuen eta, behin akordioa lortuta, blokeoari amaiera eman zitzaion eta berriz ere mugak ireki ziren.

90eko hamarkadan mobilizazio ugari izan ziren kaleetan, eta herritarren presioa jasan zuen Birendra erregearen politikak (zenbait unetan alderdi politikoetako batzuk debekatu zituen, alderdirik gabeko sistema demokratiko bat ezartzen saiatu zen, etab.); azkenean etsi ere egin zuen eta erreferenduma deitzera behartu zuten, herriaren iritzia berri jakiteko.

1996. urteko hasieran, beren buruak maoistatzat zituzten talde gerrillariak "feudalismoa desagerrarazteko"

ekintzak egiten hasi ziren. 1999ko urtarrilean, Birendra erregeak parlamentua desegin zuen eta hauteskunde berriak deitu zituen. 2001eko ekainean, Birendra erregea, Aishwarya erregina eta errege familiako beste kide batzuk hil egin zituzten, eta Gyanendra, hildako erregearen anaia, koroatu zuten errege.

Matxinatu maoisten eta segurtasun indarren arteko indarkeria haziz joan zen, harik eta 2001eko uztaillean su-etena iragarri zen arte; dena dela, ondoren izandako negoziazioek ez zuten aurrera egin eta liskarrak gogortu egin ziren, benetako "gera zibil" batera heldu arte. Ondorioz, hainbat heriotza izan da eta pertsona

asko eta asko inguruko estatuetan errefuxiatu behar izan dira. Ondoren su-etanak eta elkarriketak izan diren arren, gatazka konpondu gabe dago oraindik. Gobernuaren aurkako oposizioak uste du Gyanendra erregeak boterea utzi beharko lukeela, alderdi askoko gobernu sistema bat ezartzeko. 2004ko martxoan, Nepal Merkataritzaren Munduko Erakundearen kide egin zen.

Oharra: "Historia" ataleko datuetako batzuk *Guía del Mundo 2003-2004. El mundo visto desde el Sur* liburutik atera dira. Interneten kontsultatzeko: <http://www.guiadelmundo.org.uy>

Turismoa Nepalen

(informazioa zabaltzeko)

Turismoaren industria garrantzitsuenetakoa izan da azken 25 urteetan.

Garraibideen iraultzaren ondorioz, distantziak laburtu egin dira eta batetik bestera joateko beharrezko denbora murriztu da. Horri esker, batetik, jendea errazago mugitzen da, eta bestetik, erdi- eta goi-mailako klaseek, batez ere iparraldekoek, prezio merkeagoan bidaia dezakete. Gainera, klase horiek erosteko ahalmen handiagoa dute. Orain aukera dago egun batzuetan munduari bira emateko, eta kontinente batetik bestera joateko zenbait ordutan.

Zoriturrez, turismoa dagoen lekuan eraldaketa dago, eta askotan okerrerako, ingurune ekologiko, kultural eta sozialaren kasuan, eta hori ere gogoan izan beharreko arazoa da.

Turismoak eragindako kalteak, batez ere kulturaren gainerakoak, are nabarmenagoak dira herrialde txiroetan.

Nahiz eta herrialde horietako datu ofizialek turismoa beharrezkoa dela eta herri-ekonomiarako mesedegaria dela azpimarratzen duten, azkenean turismoak etekin ekonomiko handiagoak ekartzen dizkio turistak bidaltzen dituen herrialdeari, horiek hartzen dituenari baino. Turismoak sorrarazten duen diruaren %60 baino gehiago turisten jatorrizko herrialdean geratzen da.

Hegoaldeko herrialdeen azpiegitura turistikoa nagusiki kapital europarrekoa edo amerikarrekoa da, edo herri-oligarkiarena. Hotela, jatetxeak eta bestelako erakargune turistikoak eraikitzean lanpostuak sortzen dira, baina kasu gehienetan aldi baterako lana izaten da, diru-sari eskasekoa, eta gainera, lan-istripuen indizea oso altua izaten da. Agintari askok, turismoak

ematen duen dirutzak itsututa, beren herrialdearen garapen turistikoa bultzatzen dute, bertako biztanleei begiratu gabe. Gizarte-mailako proiektuetarako (eskoletan edo osasun-zentroen eraikuntza eta mantenimendua, etab.) fondoak helburu turistikoetarako erabiltzeak kalte egiten dio biztanleria autoktonoari.

Nepal turismoak Asian duen helmugarik gustukoena da. Horrela, turismoa herrialdeko diru-iturri nagusi bihurtu da. Aldiz, 1950ean, Nepalek turismoari ateak zabaltu zizkion urtean, herrialdeak 1.500 bisitari jaso zituen urte osoan; 1992-93an 300.000tik gora jaso zituen, eta 2001-2002an 500.000tik gora.

Urtero heltzen diren milaka turistentzat, Nepal paraje exotikoa da, XX. mendean bete-betean sartuta tradizioak duen indarra gordetzen duena; munduko txoko bat, oraindik ere paisaia autoktonoak, aldaketarik jasan ez dutenak, mendi eskurazeinak eta kultura liluragarriak eskaini ditzakeena. Hala eta guztiz ere, turisten atzean, beste errealitate bat dago. Zelai berdeez eta gailur elurtuez haraindi, jende gehienak arazoak ditu bizirik irauteko, eta 5 umetatik 1 hil egiten da 5 urte bete baino lehen.

Enpresa turistikoen datuen arabera, 200.000 lagun baino gehiago ari dira lanean Nepalgo sektore turistikoan, eta beste 500.000 bat lagunek zeharka turismoari loturiko jarduera desberdinetan egiten dute lan bat.

Nahiz eta turismoak herrialderako zenbait abantaila ekonomiko dituen, kontuan hartu behar da, halaber, horrek dakarren kaltea gizartean, kulturen eta ekologian. Egiaztatu beharko litzateke herrialdera sartzen den dirua biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzeko erabiltzen den ala ez.

Helburuak:

- Ikuspuntu ekonomiko, kultural eta sozialetik turismoak Nepalen dituen ondorio positiboak eta negatiboak identifikatzea.
- Informazioa bilatzea eta irakasleen irizpideen arabera sailkatzea.
- Turismoak eragindako kalteak murrizteko ezar daitezkeen jarduerari edo neurriei buruz hausnartzea.

Jardueraren deskribapena:

Jarduerari ekin aurretik jarraian azalduko ditugun turismoaren ondorioetako bakoitza fotokopiatu eta moztu behar duzue. Behin moztu ondoren, nahasi eta gelako hormetatik eskegi behar dira, edo gelako lurzorutik sakabanatu bestela. Kartoizko kutxak, zela edo itsasgarria eta errotuladore batzuk ere prestatu beharko dituzue, eta material guztia gelako bazter batean utziko duzue. Kutxak erabili nahi ez badituzue (edo ez badaude) jarduera egin daiteke sailkatutako ondorio positiboak eta negatiboak arbelean edo paper bilgarri batean lotuz, eta ondoren ideia-jasa modukoa egin, kontrako ondorioak murrizteko jarduera-proposamenak biltzeko.

Ondoren, ikasleak hiru taldetan banatuko dituzue. Taldeetako batek turismoaren ondorio ekonomikoekin loturiko paper guztiak bilatuko ditu; beste batek ondorio kulturalak eta sozialak bilduko ditu, eta azken taldeak ingurumenaren gainekoak.

Jarduerarako jarraibideak:

Talde bakoitzak identifikatu eta aukeratu egin beharko ditu gelako hormetatik edo lurzorutik aztertu beharreko Nepalgo turismoaren ondorio motari dagozkion paper guztiak. Behin talde bakoitzak bereak aukeratu eta jaso ondoren, ondorio positiboak eta negatiboak bereizi beharko dituzte. Taldean iritzi desberdinak baldin badaude, akordio batera heldu beharko dute.

Jarraian, talde bakoitzak ondorio positiboak eta negatiboak zenbatu beharko ditu, kontuan hartuta ondorio bakoitzak kutxako aurpegi batekin bat egin behar duela, ondorio positiboak eta negatiboak kutxa desberdinetan joan behar dutela, eta kutxa bakoitzak sei aurpegi dituela. Behin kalkulua eginda, beharrezko kutxa guztiak hartuko dituzte eta paperak lotzen hasiko dira. Kutxako aurpegi bakoitzak ondorioetako bat baino ez du izango. Behar beste kutxa erabiliko dira.

Azaldu ozenki jardueraren jarraibideak eta adierazi ikasleei non topatuko duten beharrezko materiala.

Jarduera honetan bi bilkura egingo dira. Taldeetako bakoitzak bi dorre osatuko ditu landutako Nepalgo turismoaren ondorioak jasotzen dituzten kutxekin, eta behin horiek eginda, lehen bilkura antolatuko da. Bilkura horretan turismoak dakartzan ondorio positiboak eta negatiboak zein diren zehaztuko da, eta Nepalgo gizartean zeinek duten eragin handiena ikusiko da. Beste bilkura jardueraren amaieran egingo da.

Jarduera burutzeko, mendiko turismoak Nepalen eta gure herrialdean dakartzan ondorio positiboak eta negatiboak alderatuko dira, dauden antzekotasunak eta desberdintasunak azpimarratuz. Arazoak antzekoak ala desberdinak diren aztertuko da, bai eta Nepalen kasuan arazo bakoitzerako talde desberdinek proposatutako konponbideek hemen duten bideragarritasuna ere.


Turismoaren gaineko ondorio negatiboak dauzkaten paper guztiak dagozkien kutxetan sartu ondoren, horiek elkartuz joango dira kutxekin dorre bertikalak eginez. Ingurumenaren gaineko ondorio negatiboak dauzkaten kutxa guztiek dorre bat osatuko dute, ondorio ekonomiko positiboak dauzkatenek beste bat osatuko dute, eta horrela kasu guztietan. Modu horretara, begiratu hutsarekin egiaztatuko dugu ingurumenari on egiten dioten ondorioek ondorio kaltegarriak gainditzen dituzten ala ez; kulturaren gaineko ondorio negatiboak ekonomiaren edo ingurumenaren gainekoak baino gehiago diren ala ez, etab.

Orduan irakasleak edo taldea dinamizatuko duen pertsonak ikasleei eskatuko die oharrak egin ditzaten jarduerari buruz, eta taldeak bilkura batean parte har dezaten animatuko ditu, oharrak eta azalpenak aditze-

ra emateko. Behin talde bakoitzak emandako azalpenak entzun ondoren, proposamena egin ahal zaie ondorio negatiboen (ingurumenaren gaineakoak, ekonomikoak eta soziokulturalak) dorre guztiak dorre bakarrean jartzeko, eta ondorio positiboenak beste batean, ondoren emaitzei begiratu eta horiei buruz eztabaidan aritzeko.

Azkenik, talde bakoitza bere lekura itzuliko da eta proposamen jakin batzuk egingo ditu turismoak eraginda-

ko kalteak ezabatzeko edo murrizteko (ingurumenaren gaineakoak, ekonomikoak edo soziokulturalak, lantzeko zer egokitu zaien), eta horiek dagokien ondorio negatiboaren ondoan jarriko dituzte, kolore desberdineko errotuladore batez. Ondorio negatiboak zuzentzeko proposamenak aurkitu eta kutxetako aurpegi guztiak bete ahala, ondorio negatiboen dorretik aterako ditugu. Onena ondorio negatiboak dauzkaten kutxak dituen dorrea ezabatzea litzateke, eta ondorio positiboena handiagoa izatea.



Beharrezko materiala:

- 10 bat kutxa, ahal bada karratuak eta handiak; bestela, zapata-kutxak. Kutxa guztiek forma eta neurri berbera izan behar dute.
- Glue-tecka edo zela paperak hormetan itsasteko; bestela, lurzorutik edo oso mahai handi baten gainetik sakabana daitezke.
- Errotuladore lodiak, 3 artazi eta itsasgarri-barra edo zelo-biribilki 1 edo 2 talde bakoitzarentzat.
- Orri zuriak.

Beharrezko denbora: 30 minutu eta ordubete bitartean, jarduera nola egiten den.

Nepalen turismoak dituen ondorio positiboak



Turismoak aldi baterako lanpostuak sortzen ditu hoteletan, artisautzan, jatetxeetan, etab., baina sektoreari zeharka loturiko lanpostuak ere sortzen ditu, esate baterako, turismoari lotutako hotelen, jatetxeen edo industrien eraikuntza. Nepalen sektore turistikoa 24.000 langile inguru daude lanaldi osoan eta 70.000 garraiatzaile autonomo.



Turismoaren hazkundeak eraikuntzarako atzerriko inbertsioa erakartzen du, bai eta nazioarteko laguntza ere (esaterako, Nepalgo gobernuak nazioarteko finantza-erakundeen maileguak jaso ditu, besteak beste, Munduko Bankuarena edo Nazioarteko Moneta Funtzaren, bost izarreko hotelak edo Tribhuvango nazioarteko aireportua eraikitzeko).



Beste sektore batzuetan lan-eskaintza areagotu egin da, turismoaren diruak sortzen duen efektu biderkatzaileagatik. Lan gehiago dagoenean diru-zirkulazioa eta inbertsiorako gaitasun handiagoa dago, eraikuntzaren eta zerbitzuen sektorea hazi egiten da eta kontsumoa areagotzen da.



Turismoaren eskutik turistentzat erakargarriak izan litezkeen eskualdeak garatzen dira (adibidez, Anapurna, Everest, etab.).



Turismoa diru-iturri garrantzitsua da hori hartzen duen herrialderako.



Turismoak ekonomia dibertsifikatzen du eta gobernuaren diru-sarrerak areagotzen ditu zerga bidez.

Nepalen turismoak dituen ondorio negatiboak



Sektore turistikoa lanpostu gehienak aldi baterako lanekoak izaten dira, maila eskasekoak, arriskutsuak eta diru-sarrera urrikoak.



Zenbait turistek merkatu beltzean atzerriko dirua aldatzen dute (legez kanpoko trukea), eta horrek droga-kontrabandoa, etab. ekartzen du.



Nepalen trekkingean ibiltzen diren pertsonen gastuaren zati txiki bat bakarrik (gutxi gorabehera %7a) geratzen da zeharkatzen dituzten herrietan. Turismoak sortzen dituen lantoki gehienak hirietan daude eta herrialdeko leku desberdinetako jendea erakartzen dute. Trekkingek sortzen duten diru gehiena turista atzeritarrek eskatutako produktuak erosteko erabiltzen da, bai Katmandun, bai eta batzuetan herrialdetik kanpo ere. Produktuok, besteak beste, elikagaiak, arropa, oinetakoak, mendirako materiala alokairuan, edariak, etab. izaten dira.



Sektore turistikoa ezegonkortasunaren ondorioz (modak aldatu egiten dira, eta helburu turistikoa ere bai), ezin daiteke urtero diru-sarrera jakin bat aurreikusi. Esate baterako: Golkoko gerrak, 1990-91an, ondorio kaltegarriak izan zituen Nepalgo sektore turistikoa, asko jaitsi baitzen herrialdeko bisitarien kopurua.



Txango antolatu gehienetako etekinak kanpoko operadore turistikoen zatiz izaten dira.



Turismoan eskaintzen diren janari eta zerbitzu gehienak inportaziozkoak dira (kafea, whiskya, autoak, taxiak, igogailuak, etab.).



Nepal bezalako herrialde txiro batean garapen turistikoak egon dadin, inbertsio eta gastu handia egin behar da azpiegiturretan, aireportuen eraikuntza eta mantenimenduan, hegazkinen erosketan, hoteletan, etab.; horren ondorioz, nahiz eta lanpostuak sortu, garapen turistikorako ordaindu beharreko prezioa garestiegia da.



Askotan ekoizpen-proiektuetarako sortutako dirufuntsak edo maileguak, batez ere nekazaritza-sektorean, interes turistikoko helburuetarako erabiltzen dira (bost izarreko hotel bat eraikitzeke, etab.).



Garapen turistikoak gune jakin batzuk hartzen ditu; horrek sortzen edo areagotzen ditu herrialdeko eskualde batzuen eta besteen arteko desberdintasun ekonomikoak.



Nekazaritza eremuetan bizi diren familietako askok beren lurrak galtzen dituzte eta herrialdeko beste leku batzuetara joan behar dute, bizi ziren lekua parke natural izendatu dutelako edo interesa duelako turismoaren ikuspegitik. Lekualdatutako jendeak bizitza berri bati ekin behar dio askotan aurkakoa den giro batean edo turismoaren menpe egon behar du bizirik iraun ahal izateko.



Turismoak inflazioa eragiten du kontsumorako edo zerbitzuetako produktuen prezioetan. Turistak edozer ordaintzeko prest daude kontsumitu nahi dituzten zerbitzuen edo produktuen truke. Prezioek gora egitean, baita produkturik premiazkoenetan ere, elikadura okerrak eragindako arazoak larriagotu egiten dira, batez ere herrialdeko familia behartsuenetan.



Trekkinga egiteko baimenak lortzeko ordaintzen den dirua gobernuak eskuratzen du eta diru hori ez da berriro erabiltzen mendizaleek zeharkatzen dituzten herrietako biztanleen zerbitzuak hobetzeko.

Nepalen turismoak ingurumenerako dituen ondorio positiboak



Turismoaren garapena lagungarria izan daiteke ingurumenaren babeserako, erakargune nagusia paisaiaren, naturaren edo inguruaren arlokoa den lekuetan.



Ingurumenaren administraziorako eta kontrolerako erakundeak sortzea (adibidez, Annapurna Conservation Area Project, etab.).



Faunaren eta floraren kontserbazioa parke naturaletan eta natura-erreserbetan (adibidez, tigreak, elurretako lehoinabarrak, etab.).



Eraikin zaharrak eraldatzea azpiegitura turistiko moduan erabiltzeko (hotel bihurtutako jauregiak, etab.).



Balio historikoa eta monumentala duten monumentuak eta eraikinak kontserbatzea eta zaharberritzea.

Nepalen turismoak ingurumenerako dituen ondorio negatiboak



Turistak guner berberetan kopuru handitan biltzen badira, paisaiaren egoera birjina edo basatia, turismoarako erakargarriena dena, suntsituta gera daiteke (adibidez, Everesteko eskualdeak 4.000 biztanle ditu, baina urtero 8.000 turista baino gehiago hartzen ditu, gehienak trekkingeko goi-denboraldian, hau da, urtero bi hilabetetan).



Animalia basatiak ehizatzen eta hiltzen dira, gero horien larrua saltzeko edo *souvenirrak* egiteko.



Flora alferrik galtzen da.



Urak gero eta kutsatuago daude, gero eta hondakin organiko gehiago heltzen direlako komunitatetik.



Zabor ez-biodegradagarria pilatzen da: pilak, plastikoa, latak, etab.



Naturak eskaintzen dituen baliabideak lortzeko bertako biztanleen eta bisitarien arteko lehiakortasuna areagotzen da (adibidez, trekkinga egiten duen turista batek, oro har, zuzenean edo zeharka, nepaldar batek egunero kontsumitzen duen zura halako bost kontsumitzen du, eta hamar aldiz gehiago ere kontsumi dezake; horren ondorioz, oinarritzko produktuen prezioak gora egiten du eta bertakoek zailtasunak dituzte bizirik irauteko beharrezko duten guztia erosteko).



Turismoak aldi baterako sortzen duen aberastasunarekin hotelak, jatetxeak eta ostatu txikiak eraikitzen dira, edota animalien taldeak handitu egiten dira, eta horren ondorioz, herrialdeko nekazaritza-lurzorua eta bazkalekuen gaineko presioa areagotu egiten da.

Nepalen turismoak gizarterako eta kulturarako dituen ondorio positiboak



Munduko herrialde desberdinetatik Nepalera bisitan joaten direnek ideia eta balio berriak erakusten dizkiete bertako biztanleei.



Turismoak aukera ematen die emakumeei diruz ordaindutako lan-merkatuan sartzeko (adibidez, artisautza).



Turismoari esker, herrialdeko biztanle-talde jakin batzuek beren gizarte-maila hobetzen dute.



Herrialdeko artisautza eta arte tradizionala bultzatzen du (adibidez, Thanka, erlijio-pintura budistak).

Nepalen turismoak gizarterako eta kulturarako dituen ondorio negatiboak



Turismoa bultzatzeko publizitateak batzuetan herrialdeko biztanleriari buruzko estereotipoak zabaltzen ditu.



Turistek erosten dituzten oroigarri eta *souvenir* asko oso gaizki ordaindutako eskulan bidez, nagusiki emakumeek eta umeez, eginda daude (adibidez, tapizak).



Arte tradizionalen aldaketak egiten dira merkatuaren eskarira moldatzeko (adibidez, Thanken edo tapiz tradizionalen ohiko diseinu eta koloreen ordez merkatuan erantzun hobea duten beste batzuk erabiltzen dira eta tapiz tibetarren diseinu tradizionalak galdu egiten dira).



Umeez eskolara joateari uzten diote *souvenirrak* egiteko edo saltzeko, edo gidari lana egiteko herrialdeko hiririk turistikoenetan.



Gazte jendeak turismoan ikusten dituen jarreretako batzuk imitatzen ditu, eta horrek norbanakoari kalte egiten dio; gainera, horren ondorioz, herrialdeko arazo sozialak areagotzen dira. Ondorio horietako bat da drogaren eta alkoholaren kontsumoa areagotzea edo Nepalen prostituzioa gero eta zabalduago egotea. Gazte horiek, turistengan ikusten dituzten jarre-
rak hartzean, beren kulturaren balioak gutxiesten dituzte.



Turismo sexualaren eta haurren prostituzioaren garapena.



Turisten artean talde itxiak osatzeko joera dago eta oso aukera gutxi daude bisitatzen duten herrialdeko jendearekin ideiak trukatzeko.



Bisitatzen duten herrialdearen ohiturekiko begirune gutxi agertzen duten turistek bertako biztanleak haserrarazten dituzte (praka motzak janzten badituzte, edo eskoteak, edo bikiniak, jendaurrean musuka edo laztanak ematen aritzen badira, etab.).



Bertako biztanleek oso diru gutxiren truke jarduten dute lanean turismo-sektorean, eta zerbitzu-lan hori hurbilago dago esklabotzatik, lan duin batetik baino.



Askotan turistek ez dute begirunerik agertzen bisitatzen dituzten lekuetako biztanleen bizitza pribatuarekiko (ez dute baimenik eskatzen argazkiak egiteko eta beren kamerarekin hartzen dituzten irudiak deserosoak, mingarriak edo iraingarriak izan daitezke bertako biztanleentzat).



Turistek askotan estereotipoz jositako irudia dute bisitatzen duten herrialdeaz, eta bertan daudela estereotipo horiek egiaztatu eta horren arabera jokatzeko dute.



Hainbeste turisten aurrean, mendiko biztanleen harrera ez da jada hain ona izaten, eta orain, batek baino gehiagok ahalik eta etekinik handiena lortu nahi du hortik. Egoera honetan, harreman artifiziala sortzen da turisten eta bertakoen artean. Turismoa hartzen duten herrialdeetako biztanleentzat, turistak dirua dira, beste ezer baino gehiago, batez ere hegoaldeko herrialdeetan, izan ere, turistek aldean dar-maten dirutza ez dute sekula izango bertako biztanle gehientsuenek, ezta bizitza osoa lanean emanda ere. Turisten begietan, bertako jendea bitxia da, paisaiaren objektu hutsa, edo traba bat bisitatzen duten herrialdeko lasaitasunaz gozatzeko.



Komunitate guztietan ez dira diru-sarrera berberak izaten, izan ere, herrialdeko leku batzuek turismoaren etekin handiagoa lortzen dute beste batzuek baino, eta horren ondorioz, tentsio sozialak sortzen dira komunitate batzuen eta besteen artean (adibidez, bentetako edo ostatuetako jabeak gehiago aberasten dira, komu-nitate bereko gainerako bizilagunen aldean).

Helburuak:

- Sakon aztertzea nola erabiltzen diren mendealdeko Europako kulturen beste kultura batzuetako informazioa eta irudiak, batez ere hegoaldeko herrialdeetakoak.
- Kontuan izatea askotan turistak, bisitariak, etab. garenean ahaztu egiten dugula bisitatzen dugun lekuko bizilagunak pertsonak direla, gu bezala, eta haien intimitatea eta duintasuna errespetatu behar direla.
- Ahalik eta errespeturik handiena izatea bisitatzen dugun lekuko jendearen jarduteko eta bizitzeko moduarekiko.
- Gurea ez bezalako leku bat bisitatu aurretik informazio egokia izatea leku horretako ohiturei buruz, horiek errespetatu ahal izateko eta bisitatuko dugun lekuko gizartearen eta kulturen ahalik eta eragin txikiena izateko.

Jolasaren deskribapena

Ikasleak 8 talde txikitan banatuko ditugu, banaketarako irizpide hauei jarraituz:

- 4 kazetari-talde. Horietako bakoitzak kazetari-talde baten lana egingo du. Bi laguneko taldeak izango dira.
- X herriko 4 biztanle-talde: bata bi lagunekoa (aitona bat eta amona bat), eta besteen kopurua aldatu egingo da, jolasean guztira zenbatek parte hartzen duten.

Jolasean talde bakoitzak bere papera bete beharko du, aurrerago azalduko zaizuen eran.

Jolasa egingo den herrian zurrumurru bat zabaldu da, eta horren arabera kazetari-talde bat etorriko da bertara herriari buruzko argazki-erreportaje bat egitera. Kazetariak errealitatean kazetaritza-eskola bateko ikasleak dira, eta X herriko biztanleen ingurumen- eta giza-degradazioari buruzko erreportaje-lehiaketa batean parte hartzen ari dira. Talde bakoitzean kideetako bat informazioa biltzeaz eta prentsarako artikulua bat prestatzeaz arduratuko da eta beste batek argazkiak egingo ditu edo bideoak irudiak jasoko ditu. Kazetaritza-ikasleek herriaren eta bertako jendearen argazkirik krudelenak lortzeko kontsigna jaso dute.

Herriko biztanle moduan parte hartuko duen ikasle bakoitzak zenbait argazki ekarri beharko ditu, familia-

renak, haurtzarokoak, eskolakoak, etab., eta balio sentimental berezia duten zenbait objektu (liburu jakin bat, lore lehor bat, zapata jakin batzuk, disko konpaktu bat, poster bat, ikasle horrentzat balio ekonomikoa baino gehiago balio sentimentala izango duen gauza bat, etab.) eta beste objektuen bat, oso pertsonala (hortz-eskuila, egunkari pertsonala, etab.).

Kazetariak, aldiz, bestelako kontsigna jaso dute, argazki-erakusketa osatzeko kulturako objektu pertsonalak eta esanguratsuak erosteko, hain zuzen. Horiek erosteko prezioekin tratua egin beharko dute. Halaber, herriko jendearen antzinako argazkiak lortu beharko dituzte.

Jolasaren amaieran talde bakoitzak bere erreportajea eskegiko du eta herri guztiak izango du ikusgai. Erakusketan ezusteko bat bat egongo da, bertaratuko direnak beren herria zein polita den eta bertako jendea zein atsegina eta alaia den ikusteko itzaropenez joango baitira, baina gero bestelako zerbait ikusiko dute; beren argazkiek guztiz asmatutako oina izango dute, eta irudiek herriaren irudi okerra jasoko dute.

Herrian biztanle-talde desberdinak egongo dira, bakoitza egoera jakin batean. Kazetari-talde bakoitzak paper berezia beteko du jolasean. Garrantzitsua da guztiek dagokien papera ahalik eta sinesgarrien egitea.

Jolasaren garapena

Jolasari ekin aurretik jarduera gidatuko duen eragileak edo irakasleak taldeetako rolak dituzten orriak fotokopiatu eta moztu beharko ditu.

Jolasa hastean rol-jolasa zertan den azalduko du, jarduera egiteko jarraibideak emango ditu eta talde bakoitzari dagokion rol-papera emango dio. Ondoren, talde bakoitzak 10 minutu izango ditu rol-papera irakurtzeko eta jolasean kokatzeko.

Honela hasiko da jolasa: ustekabeen, kazetari-taldeak herrira heldu eta jendea lanean buru-belarri topatzen

dute. Kazetari bakoitzak egokitu zaion biztanle-taldeari bisita egingo dio eta 10 minutuan erreportajea egiteko beharrezko duten material guztia bilduko dute. Ondoren, 10 minutu izango dituzte erakusketa antolatzeko. Behin erakusketa eginda, herritarrak hura ikustera joango dira eta haien komentarioak egin ahaliko dituzte. Jarduera amaitzeko bilkura bat antolatuko da, eta bertan guztiek beren papera alde batera utzi eta eztabaidan parte hartuko dute, jolasa amaitu ondoren.

Ondoren eztabaidatzeko gaiak

Eztabaidan sor daitezkeen gai batzuk aurkeztuko dizkizuegu jarraian:

- Erreportajearen helburuei buruz herritarrek ezertxo ere ez jakitea, behintzat hura egiten den unean.
- Atzerritarrak herriaren eguneroko bizitzan sartzea (kazetariak, kasu honetan). Kanpotik datoz, herria hankaz gora jartzen dute eta gauzak beraien erara antolatu nahi dituzte.
- Kanpotarrek gure gauzetatik balio sentimentala dutenak nahiago dituzte, balio ekonomikoa dutenak baino, edo guretzat pertsonalak eta besterekinak direnak.
- Kontestutik ateratako informazioa eta irudiak erabiltzea oso helburu espezifikoak lortzeko, nahiz eta irudiok errealitatea desitxuratzen duten, edo zati batean baino jasotzen ez duten.
- Informazioaren objektibotasuna edo subjektibotasuna, edo haren gainean idazten edo argazkiak egiten dituenarena.

- Jendearen esparru pribatuetan sartzea, bai espazio fisikoan bai irudiak bilatzean edo galdera konprometigarriak egitean, batez ere egoera zailetan.
- Jendearen informazioa eta argazkiak erabiltzea, inolako baimenik gabe.
- Kasurik gehienetan, argazkietan irteten direnak ez dute aukerarik irudiak ikusteko, eta ezin dute adierazi haien irudien erabileraz ados dauden ala ez.
- Eztabaidarako bidaia-aldizkarietako argazkiak erabil daitezke, gero ikasleak argazkietan agertzen direnen lekuan jar daitezten eta horien eguneroko bizitzan pentsa dezaten.
- Ondoren, jendearen argazkiekin (haien baimenik gabe ateratakoak) igortzen diren mezuez hasu-narketa egin dezaten proposatuko zaie, gehienetan argazkietan agertzen direnak horretaz ezertxo ere ez dakitela jakinda.

Beharrezko materiala:

- 4 polaroid-kamera edo 2 bideo-kamera, talde batetik bestera pasatzeko modukoak.
- Ikasleen familien argazkiak eta eguneroko bizitzako argazkiak.
- Ikasleen objektu pertsonalak.
- Paper bilgarria, artaziak, aldizkariak, zela eta degradazioa, zikinkeria edota nahaspila islatzen duten argazkiak...
- Degradazioa erakusten duten argazkiak. Erakusketa girotzeko jolasean agertutako argazkiak erabil daitezke, edo horien antzeko beste batzuk bilatu.

Beharrezko denbora:

 Jarduera ordu batean egin daiteke.

10 10 minutu jolasa azaltzeko eta paperak banatzeko • 15 minutu rol-paperak irakurtzeko eta jolasean kokatzeko • 10 minutu jolasaren lehen zatia egiteko • 10 minutu erakusketa prestatzeko • 5 minutu herriak erakusketa ikusteko • 10 minutu jolasa amaitu osteko eztabaidarako.



Degradazioa islatzen duten argazkiak, Nathalie Lebris-ek utzitakoak.

Taldeentzako rolak



A Taldea

Zuek herriko familia bat zarete eta gaur ospakizun-eguna duzue; zuen lehenengo iloba jaio da. Guztiok dotore jantzita zoazte gertaera hori ospatzeko.



B Taldea

Gaur jaieguna da eta herriko tenplura joan zarete. Tenpluaren barruan zaudete, isilik edo otoitzean.



C Taldea

Aurreko gauean jaia ospatu duzue zuen lagunuen etxean. Orain, eguerdiko ordu bata da eta taldeko zenbait lagun, oraindik erdi lo, jaia egin duzuen etxean geratu zarete hura garbitzeko. Etxe guztia hankaz gora dago, botilak eta latak daude bazter guztietan, aulkiak lurretik, kea, zigarroak, etab.



D Taldea

Telebista ikusten ari diren aitona-amonak zarete.



Kazetariak 1

Zuek A familiaren etxean sartuko zarete eta denak dotore jantzita topatuko dituzue, lehenengo iloba-ren jaiotza ospatzen ari dira eta. Familiarekin hizketan, konbentzitu egin behar dituzue egin ohi duten bezala jantzi, eguneroko arropa jarri, ilea apur bat nahasi eta jarrera negatiboak har ditzaten (tristura, gogorik eza, etab.).



Kazetariak 2

Zuek herriko tenpluan sartuko zarete; jendez beteta dago, gaur jaia dute eta. Zuentzat, kazetari eta atzeritar moduan, dena da interesgarria, baina zuen erreportajearen egunerokotasunak eta herriaren alde-rik ilunenek agertu behar dute, izan ere, hori da benetako albistea. Ahal duzuen guztia egin behar duzue eskatzen zaizkizuen irudiak lortzeko.



Kazetariak 3

Zuek herriko gazteetako baten etxean sartuko zarete, jaia egin berri dutenean. Etxeko mutila jaiki dadin lortu behar duzue, lo eginda eta ajetuta, elkarriketa bat egiteko. Lehiaketarako erreportajea egingo duzue, ikusi duzuenaz baliatuta.



Kazetariak 4

Zuek arratsaldea telebistari begira ematen duten aitona-amonen etxean sartuko zarete. Erreportajerako argazkietan aurpegia triste eta penatuta agertu behar dute. Hori dela eta, horrelako aurpegia jar dezaten konbentzitu behar dituzue.

Helburuak:

- Nepalen trekkinga zertan den ikastea, eguneroko jarduera den aldetik: nola prestatzen den trekking bat, trami-tatu beharreko baimenak, zer eraman behar den, trekkingean zehar ostatu hartzeko eta jateko aukerak, etab.
- Talde edo multzo osoak erabakiak azkar eta kontsentsuz hartzeko gaitasuna garatzea.
- Kasuan-kasuan jarduteko modurik onenaz hausnarketa egitea, gizakiok ahalik eta kalterik txikiena eragiteko mendiguneetan, bai Nepalen bai gure herrialdean.

Jardueraren deskribapena

Goazen trekkingean Nepaletik taldekako mahai-jolasean trekking edo mendi-ibilaldi moduko bat egingo dugu. Jolasak helburutzat du Everest mendiaren Nepalgo kanpamentu nagusira heltzea, eta aldi berean, mendizaleek ingurumenarekiko eta bertako jendearekiko azaltzen dituzten jarrerak aztertzea. Behin azterketa eginda, gaiari buruzko informazio-posterra prestatuko da, turistik hezteko eta turismoak Nepalen duen eragin negatiboa murrizteko.

Nepalera ibiltzeko eta munduko gailur ederrenetara eta garaienetara hurbiltzeko gogoz heltzen diren turisten-tzat, txangorik gogokoenak, Everesteko eta Annapur-nako kanpamentu nagusietaraino doazenak dira; horren ondorioz, turismoak gogor eragiten die alde horretako

ingurumenari eta biztanleei, eta zenbaitetan modu sun-tsigarrian.

Txangoetan parte hartzen dutenak mendizaleak izaten dira, naturaren zaleak, baina ez dira alpinistak. Askok bakarrik joaten dira trekkinga egitera. Baina talde handia denean, azpiegitura bat izaten du atzetik, jolasean ikusi-ko dugun moduan.

Jolasa trekking erreal baten simulakroa da, eta egoera jakin batzuetan ikasleek nola jokatu erabaki beharko dute, jendearekiko eta ingurumenarekiko ahalik eta errespetu handiena azaltzeko.

Jolasaren garapena

Goazen trekkingean Nepaletik taldekako jolasa da (banatu ikasleak kide-kopuru bereko 6 taldetan). Talde bakoitzean trekking-talde bat egongo da, betebeharrak jakin batzuk izango dituenak: **txangolariak** (1. taldea), **garraiatzaileak** (2. taldea), **sukaldariak** (3. taldea), **shepak edo gidariak** (4. taldea), **osasun-pertsonala** (5. taldea) eta **ikerkuntza-taldea** (6. taldea).

Jolasari ekin aurretik, taula egin beharko da, material honetako 28. orrialdeko jarraibideak betez. Kontuan izan behar da taula egiteko agian 15 edo 20 bat minu-tu beharko ditugula, eta beraz, komeniko litzateke jar-duerari ekin aurretik prest egotea. Jolaserako txartelak ere prestatuko dira, eta horiek jarraibideetan esaten den moduan moztu behar dira.

Jardueraren hasieran ikasleak sei taldetan banatuko dira, eta trekkingean zein betebeharrak eta ardura duten

azalduko zaie. Behin taldeak osatuta, kolorezko fitxa bat emango zaie (talde bakoitzak bere kolorea izango du) eta taula lurrean edo mahai handi baten gainean jarriko da, edo horman eskegiko da, jolastu bitartean denek ikusgai izan dezaten. Ondoren, txartelak behera adi kokatuko dira, multzo desberdinetan (batzuk galde-rak izango dira, beste batzuk sariak, beste batzuk zigo-rrak eta besteak gomendioak), mahai inguruan. Ondoren, jolasaren jarraibideak azalduko zaizkie eta jolasean hasiko dira.

Jolasa amaitzean, hau da, talde guztiak taularen azken kutxatilara heltzean, eztabaida egingo da, behin jolasa amaituta, eta berrikusi egingo da zer jarrera azaldu behar diren turismoa egitean, bisita-tzen dugun lekuko jendea eta ingurumenari zor zaien errespetua gordetzeko. Berrikusketa behar

bezala egiteko, jolasean zehar ikasitakoari erreparatu beharko zaio, bai eta hezkuntzarako posterrean ikerketa-taldeak jasotako eta azaldutako gomendioei ere; posterra egiteko 30. orrialdeko irudia erabil daiteke, eta gomendioak bertan itsatsi.

Azken eztabaida ez dugu zertan Nepalera mugatu, izan ere, jolasean egiten diren gomendioek jendeak

turismoa egitean azaltzen dituen jarrerari eragiten diete, lekua edozein dela ere.

Jolasaren edo ondorengo eztabaidaren lagungarri, Nepalgo trekkingari buruzko argazkiak edo diapositibak erabil daitezke.

Beharrezko materiala:

- Jolas-taula eta txartelak (galderei, zigorrei, sariei eta gomendioei buruzkoak). Oharra: taula egiteko jarraibideak eta materiala liburu honetako 26. eta 27. orrialdean aurkituko dituzue.
- Bizpahiru dado eta sei fitxa (kolore desberdinetakoak), talde bakoitzareko bat. Taula horman eskegitzen baduzue, Glue-teck apur bat jarri beharko diozue (itsasgarri mugigarria).
- Paper bilgarria edo txangolari eredugarriaren irudia, neurrira egina, poster neurrian jarria, jolasaren amaieran posterra egin ahal izateko.
- Nepalgo trekking baten diapositibak edo argazkiak (aukerakoa).

Oharra: Jolasteko taula egiteko jarraibideak eta materiala 28 eta 29. orrialdeetan aurkituko dituzue

Beharrezko denbora:

Jolasa ordubete egin daiteke, jolasaren osteko eztabaida barne. Jolas-taula egiten baduzue ikasleekin, beste ordu erdi beharko duzue.

Goazen trekkingean Nepaletik


Jolas-taula egiteko jarraibideak



Hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzue mahai-jolaseko taula eta txartel desberdinak egiteko jarraibideak eta beharrezko materiala.


Taula egiteko jarraibide hauetan zehazten diren pausuei jarraitu behar zaie:

- Paper bilgarri zuriko laukizuzen bat moztu, 1 x 1,5 m-koa, eta kiribil luze bat irudikatu (okako jolasaren modukoa), ondorengo irudian azaltzen dugunez.
- Jarraian, irudikatu kiribilaren gainean 38 kutxatila, gutxi gorabehera neurri berekoak. Lehenengo kutxatila irteerakoa izango da, eta bigarrena helmugakoa. Gainerako kutxatilek dagokien zenbakia izango dute. Jarri zenbakiak. Lau kutxatila mota daude: proba egitekoak, saria dakartenak, zigorra dakartenak eta argazkiak dituztenak.
- Ondoren, idatzi proba hitza kutxatila hauetan: 2, 5, 7, 12, 14, 16, 19, 22, 25, 28 eta 32. Idatzi saria hauetan: 3, 8, 13, 17, 26, 30 eta 35. Azkenik, idatzi zigorra kutxatila hauetan: 6, 11, 18, 20, 24, 29 eta 33.
- Gainerako kutxatiletan, 12 guztira, jarraibide hauetan aurkituko dituzuen argazkietako bat itsatsiko duzue. Argazkiak nahi duzuen ordenan jar ditzakezue taulan.
- Ondoren, fotokopiatu eta moztu jolasaren jarraibideen orrialdeak eta itsatsi taularen alde batean, jolastu bitartean jende guztiak horiek kontsultatzeko aukera izan dezan.
- Behin taula amaituta, prestatu jolaseko txartelak talde desberdinetan jartzeko, behera adi, taularen ondoan.





1. Trekkinga egiteko nepaldar agentzia bat kontratatu duzue, eta horrek, sariak lortzeko tramiteak betetzeaz gainera, trekking on batez goatzeko beharrezko diren zerbitzuak eskainiko dizkizue. Modu horretara, turisten edo txangolarien taldeaz gainera (1. taldea aurkeztu), trekkingeko partaide izango dira: **garraiatzaile-talde bat** (2. taldea), zuen bizkar-zorroak, elikagaiak eta kanpatzeko material guztia aldean eramango duena, Namche Bazar-eraino, bidean aurkituko duzuen hiri itxurako azken guneraino, **sukaldari-talde bat** (3. taldea), txangolan janaria prestatuko duena, **sherpa-talde bat** (4. taldea), garraiatzaileen lekua hartuko duena Namche Bazarren 3.500 metrotik gorako altuerara heltzean, eta bidelagun izango duzuen tontor garaienetaino heldu arte, gutxi gorabehera, 5.000 metroko altueraraino. Sherpa taldeak, gainera, gidari lanak egingo ditu. Halaber, **osasun-pertsonaleko talde txiki bat** izango duzue ondoan (5. taldea), laguntza emango dizuen trekkingean osasun arazoren bat baldin baduzue, eta **iker-kuntza-talde bat** (6. taldea).
2. Zuen trekking-taldean lagun-talde txiki bat dago, iker-kuntza-taldea (6. taldea), zuekin trekkinga egin bitartean informazioa jasoko duena turistek trekkingean azaltzen duten jarrerari buruz, Nepalen turismoak duen eragina ikertu eta ondorio negatiboak murrizten saiatzeko. Talde honek gaiari buruzko informazio-posterra egingo du, etorkizunean, Nepalera heltzen diren turisten artean banatzeko eta modu horretara turismoak herrialdean dituen ondorio negatiboak murrizteko. Ikerkuntza-taldea berarekin batera dagoen taldeak eta besteek trekkingean lortutako gomendio-fitxak batzeaz arduratuko da. Fitxa horiekin eta 30. orrialdeko irudiarekin, ikerkuntza-taldeak txangolari onaren posterra osatuko du, Nepalera heltzen diren eta etorkizunean trekkinga egin nahi duten turisten artean banatzeko.
3. Talde bakoitzak dado bat botako du, txanda heltzen zaionean, eta bere fitxa aurreratuko du taulan, dadoak adierazitako kutxatila-kopuruan.
4. Taula kutxatila eginda dago, eta bakoitzak zenbaki bat du. Proba-kutxatila, saria dakartenak eta zigorra dakartenak daude.
5. Jolasaren hasieran talde guztiek dadoak botako dituzte. Zenbakirik txikiena ateratzen duen taldeak jolasteari ekingo dio eta zenbaki handiena ateratzen duena izango da hasten azkena.
6. Jolasean zehar, talde bakoitzak aurrera egingo du, betiere dadoak adierazitako zenbakiaren arabera, eta baldin eta jolasaren probetako erantzun zuzena asmatzen badu.
7. Behin talde guztien jolas-ordena finkatuta, hasten den lehen taldeak berriz ere bere dadoa botako du eta bere fitxa aurreratuko du, dadoan ateratako zenbakiari jarraiki. Jolas-kutxatila erortzen bada, txandan aurretik duen taldeak (kasu honetan jolasten azkenak) galdera-sortatik lehen txartela hartuko du eta galdera eta balizko erantzunak ozen irakurriko ditu.
8. Galdera-txartel bakoitzak galdera bat eta balizko hiruzpalau erantzun ditu. Jolasten ari den taldeak erantzuna badaki, zuzenean erantzun ahal izango du. Erantzun zuzena ematen badu berriz ere dadoak bota ahal izango ditu eta jolasten jarraituko du.
9. Baldin eta taldeak erantzun zuzena zein den ez badaki, laguntza eska dezake. Galdera irakurri duen taldeak lagundu ahal izango die galdera-txartelean bertan azaltzen den laguntzarako moduari jarraiki. Laguntza mimitikaren bidez eman daiteke, letra-jolas batekin, irudi bidez, etab. Laguntzarekin erantzun zuzena asmatzen baldin badute, zeuden kutxatila gelditzeko eskubidea izango dute, eta berriz ere txandaren zain geratuko dira. Laguntzarekin ere erantzun zuzena ematen ez badute, berriz ere dadoak bota beharko dituzte, eta taulan atzera egin, dadoak adierazitako kutxatila-kopuruan. Orduan, zain geratuko dira, berriz botatzeko txanda heldu arte.
10. Taldea zigorra edo saria duen kutxatila batean erortzen denean, txandan atzetik duen taldeak saritzeko edo zigortzeko txartela hartuko du, kasu bakoitzean dago-kiona, eta ozen irakurriko dio. Jarraian, saria edo zigorra jasotako taldeak txartelak agindutakoa egin beharko du.
11. Talde bakoitzak bi gomendio-txartel jasoko ditu, bata 22 zenbakidun kutxatilatik igarotzean eta bestea helmugara heltzean.
12. Talde bat taulako azken kutxatilara heldutakoan, zain egon beharko du beste taldeak bertara heldu arte, eta bitartean beste taldeei probak gainditzeko lagunduko die. Mundu guztia azken kutxatilara heldutakoan, iker-kuntza-taldeak gomendio-txartelak bilduko ditu, eta jolasa amaitutzat joko da.
13. Jarraian, ikerkuntza-taldeak gomendioak paper bilgarri batean itsatsiko ditu (edo hurrengo orrialdean aurkituko duzuen txangolari onaren posterrean) eta poster hezigarri bat egingo du. Posterra gelan eskegiko da, ikasle guztiek ikusteko moduan, eta jolasaren ondorioak aditzera emateko balioko du. Bien bitartean, gainetako taldeek jolasean ikasitako gauzen eta harrigarrienak iruditu zaizkien gauzen zerrenda egingo dute, azken eztabaidan horiei buruz hitz egiteko, eta bilkuran haien ordezkari izango dena hautatuko dute.



Jolas-taularako argazkiak
Goazen trekkingean nepaletic





Jolas-txartelak:

Jolasean lau txartel-mota daude:

Proba- edo galdera-txartelak jolasten ari den taldea proba adierazten duen kutxatilan erortzean irakurriko dira. Material honetako 33-42 orrialdeetan aurkituko dituzue.

Saria dakarten txarteletan jarraibideak datoz, eta bertan azaltzen da zer egin behar den saria adierazten duen kutxatila batean eroriz gero. Material honetako 43-48 orrialdeetan aurkituko dituzue.

Zigorra dakarten txartelak zigor-kutxatila batean erortzean irakurriko dira. Material honetako 49-54 orrialdeetan aurkituko dituzue.

Gomendio-txartel guztiak multzo batean egongo dira eta talde bakoitzak bi jasoko ditu, bata 22 zenbakidun kutxatilatik igarotzean eta bestea helmugara heltzean. Talde guztiak jolasaren amaierara heldutakoan ikerkuntza-taldeari emango dizkiote beren gomendio-txartelak, informazio-posterra egin ahal izateko. Material honetako 55-56 orrialdeetan aurkituko dituzue.

1. Proba- edo galdera-txartelak

Jarraian jolasaren galderak aurkituko dituzue. Galdera bakoitzak balizko hiruzpalau erantzun izango ditu, soluzioa edo erantzun zuzena eta azalpen bat, erantzun behar duen taldeak eskatuz gero² nola lagun dakiokkeen jakiteko.

Moztu galderak lerro etenari jarraituz, ondo nahasi eta jarri multzo batean behera adi, jolas-taularen ondoan.

2. Saria dakarten txartelak

Mota honetako 20 txartel daude, eta guztira bi orri hartuko dituzte. Hauek ere moztu eta multzo batean behera adi jarri behar dira, taularen ondoan.

3. Zigorra dakarten txartelak

Mota honetako 20 txartel daude, eta guztira bi orri hartuko dituzte. Hauek ere moztu eta multzo batean behera adi jarri behar dira.

4. Gomendio-txartelak

Gomendio-txartelak ere moztu eta multzo batean behera adi jarri behar dira. 12 daude, hau da, talde bakoitzeko bi. Talde bakoitzak 22 zenbakidun kutxatilatik igarotzean hartuko du bata, eta jolasaren amaierara heltzean bestea. Ikerkuntza-taldeak denak batuko ditu amaieran eta txangolari –neska edo mutila- eredugarriaren posterra egingo du, jarduerari amaiera emateko.

² Galderetarako eta erantzunetarako informazioa KEEP nepaldar GKEaren argitalpenetatik atera da; turismoak bere herrialdean eragiten duen kalteagatik kezkatuta, erakunde horrek argitalpenok editatu ditu, eta Nepalera heltzen diren turistak hezteko erabiltzen ditu. Ikasleen materialean erakundeari buruzko informazio gehiago aurkituko duzue.



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



GALDERA: Everesteko kanpamentu nagusiraino egingo duzuen trekkinga prestatzen ari zarete eta erabaki duzue jada zer erregai erabiliko duzuen janaria prestatzeko; betiere ekologikoena erabiltzen saiatuko zarete.

- Gasogenoa, ingurumenari kalte gutxien egiten diona delako.
- Zura, oso erreuntza garbia delako.
- Gorozki lehorrak, Nepalgo erregairik ohikoena delako.

SOLUZIOA: Gasogenoa, ingurumenari kalte gutxien egiten diona delako.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Zergatik daude Nepalgo mendiguneetan zaborrak birziklatzeko arazoak?

- Ez daukate birziklatzeko fabrikarik.
- Zabor gehiegi dago.
- Hori onartzen ez dutenak daude, beren erlijioaren aurka doalakoan.

SOLUZIOA: Zabor gehiegi dago.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzena eskumatik ezkerre, esaldiaren azken hitzeko azken letratik hasita. Irakurri behin bakarrik.



GALDERA: Zergatik ez dute Nepalen WC papera erabiltzen?

- Urez garbitzen direlako.
- Garbitzeko belarrak erabiltzen dituztelako.
- Herrialdeak ez du papera ekoizten eta garestiegia da erosteko.

SOLUZIOA: Urez garbitzen direlako.

LAGUNTZA: Baliatu mimikaz besteei erantzun zuzena asmatzen laguntzeko.



GALDERA: Trekkingean edo mendi-txangoan arropa garbitu behar duzuenean, horrela egingo duzue:

- Arropa xaboiz garbituz eta zuzenean errekarra sartuz uretan xaboia kentzeko, gero ibaian behe-ra joan eta leku batean gelditu gera ez dadin.
- Xaboirik gabe garbituz.
- Errekatik ura hartuz pertz batekin arropa garbitzeko, eta ondoren errekatik urrun jautiz.

SOLUZIOA: Errekatik ura hartuz pertz batekin...

LAGUNTZA: Egin letra-jolas bat erantzun zuzenaren giltzarri-hitzetako batzuekin.



GALDERA: Bidean aurkituko dituzuen ostatuetako batzuetan "smokeless-chula" izenekoak egongo dira. Zer dira?

- Janaria arinago egiteko presio-eltze batzuk.
- Sukalde ekonomikoa, ke-irteera duena, etxe barruan kea pila ez dadin.
- Ehogailu txikiak, zerealak txikitzeko, esaterako, arroza, garia, artatxikia, etab.

SOLUZIOA: Sukalde ekonomikoa, ke-irteera duena.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Zuen ustez, zergatik da gomendagarria egurraren erabilera saihestea erregai moduan?

- Mendiguneetako baso-soilketa eragiten delako.
- Zura beharrezkoa delako etxeak eraikitzeko.
- Zura garestiegia delako.

SOLUZIOA: Mendiguneetako baso-soilketa eragiten delako.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzena atzekoz aurrera, esaldiaren azken hitzaren azken letratik hasita. Irakurri behin bakarrik.



GALDERA: Zer egin beharko da WC paperarekin, behin erabili eta gero?

- Harri baten azpian lurperatu.
- Sakelako pizgailu batekin erre.
- Lurrera bota, biodegradagarria delako eta ez delako ingurumenean kalterik eragiten.

SOLUZIOA: Sakelako pizgailu batekin erre.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Erregaia aurrezteko hobe da...

- Nepaldar menuak jatea, asko egin behar badira ere.
- Mendebaldeko janaria ugariagoa izatea eskatzea.
- Janaria pototan eramatea, berotu hutsarekin prest egoteko.

SOLUZIOA: Nepaldar menuak jatea, asko egin behar badira ere.

LAGUNTZA: Mimika.



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



GALDERA: Nepaetik trekkinga egin ahal izateko...

- Erregeari baimena eskatu behar zaio.
- Gobernuari baimena eskatu eta zerga bat ordaindu behar da.
- Trekking-agentzia baten zerbitzua kontratatu behar da.

SOLUZIOA: Gobernuari baimena eskatu eta zerga bat ordaindu behar da.

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Nepaetik trekkinga egitean arrisku handienetakoa...

- Izainak dira, batez ere euriteetan.
- Lubiziak eta elur-jauziak dira.
- Arinegi joatea da, eta gorputzari altuera aldaketetara ohitzeko denborarik ez ematea.

SOLUZIOA: Arinegi joatea da, eta gorputzari altuera aldaketetara ohitzeko denborarik ez ematea.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Zuen ustez, zergatik ez dira erabili behar gorozki lehorrak erregai moduan?

- Usain txarra dutelako.
- Alferrik galtzen direlako eta hobe delako soroetarako ongarri moduan erabiltzea.
- Behiak sakratuak direlako eta ezin direlako haien gorozkiak erre.

SOLUZIOA: Alferrik galtzen direlako eta hobe delako soroetarako ongarri moduan erabiltzea.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Zergatik da hain desatsegina WC papera ikus-tea leku guztietan?

- Herrialdean ez delako erabiltzen.
- Paisaia suntsitzen duelako, izan ere, bazter horietako haize indartsuarekin eta tenperatura baxuekin WC papera ez da erraz degradatzen eta leku guztietatik sakabanatzen da.
- Ematen duelako edozein leku erabil daitekeela komun moduan.

SOLUZIOA: Paisaia suntsitzen duelako, izan ere, bazter horietako haize indartsuarekin eta tenperatura baxuekin WC papera ez da erraz degradatzen eta leku guztietatik sakabanatzen da.

LAGUNTZA: Egin hizki-zopa erantzun zuzenaren giltzarri-hitzekin.



GALDERA: Erregai-kontsumoa murrizteko eta dieta osasuntsu eta egoki bat egiteko trekkingean zehar hobe da:

- Guztiek ordu berean jatea, janaria behin baino ez egiteko.
- Aurrez egindako janaria eramatea, berotu hutsarekin nahikoa izan dadin.
- Otartekoak eta plater hotzak jatea.

SOLUZIOA: Guztiek ordu berean jatea, janaria behin baino ez egiteko.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Dendak non kokatu erabakitzeke orduan honako hau aukeratuko dugu:

- Leku berri bat, kanpaketak eragindako kaltea murrizteko leku berera joz.
- Lurra prestatuko dugu, belarra moztuko dugu eta ubideak egingo ditugu euriteetako ura dendetan sar ez dadin.
- Aurrez beste talde batzuetako dendak egondako leku batean kanpatuko dugu, leku berri bat ez suntsitzeko.

SOLUZIOA: Aurrez beste talde batzuetako dendak egondako leku batean kanpatuko dugu, leku berri bat ez suntsitzeko.

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Bidezidor bat hartzeko aukera dugunean:

- Merezi du hartzea, bide laburragoa egiteko eta lehenago heltzeko.
- Betiko bidetik jarraitu behar dugu, bestela galdu egin gaitezke eta.
- Betiko bidetik jarraitu behar dugu, eta horrela bidezidorretako higadura areagotzea saihestuko dugu.

SOLUZIOA: Betiko bidetik jarraitu behar dugu, eta horrela bidezidorretako higadura areagotzea saihestuko dugu.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Menditik oinez zabilatzatela:

- Ez duzue argazkirik egingo, bertakoei ez baitzaie gustatzen haiei argazkiak egitea.
- Ez duzue hartuko ez landararik, ez lorerik, ez hazirik.
- Ez duzue pioletik eramango, lurzorua hondatzen baitute.

SOLUZIOA: Ez duzue hartuko ez landararik, ez lorerik, ez hazirik.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzena behin bakarrik esaldiko azken hitzaren azken letratik hasiz eta esaldiko lehen hitzaren lehen letran amaituz.



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



GALDERA: Nepalen, hobe da kanpatzea:

- Leku guztiz lau batean, ahal bada.
- Malda txikiko leku batean, euria egiten badu ura pila ez dadin dendaren ondoan.
- Zuhaitzen azpian. Itzal apur bat izateko.

SOLUZIOA: Leku guztiz lau batean, ahal bada.

LAGUNTZA: Egin hizki-zopa erantzun zuzenarekin.



GALDERA: Errekan bainatzeko:

- Ez diogu inori begirunerik zor eta biluzik edo bainujantziak bainatu ahal izango gara.
- Bertakoek nola egiten duten ikusi eta haien moduan egin behar dugu.
- Ez gara sekula kanpoan bainatuko.

SOLUZIOA: Bertakoek nola egiten duten ikusi eta haien moduan egin behar dugu.

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Nepalen jendea oso irekia da eta turismoa ohituta dago...

- Horregatik nahi dugun moduan jantzi gaitezke, baita short edota bainujantziekin ere, eguzkia aprobetxatzeko oinez gabiltzala.
- Askatasun osoz jardun dezakegu, eta ez da beharrezkoa bertakoen ohiturak eta balioak gogoan izatea, turista moduan gure jarrerak onartuak izango baitira.
- Bertakoen balioak eta ohiturak aurrez ezagutu behar ditugu, eta guztiz errespetatu.

SOLUZIOA: Bertakoen balioak eta ohiturak aurrez ezagutu behar ditugu, eta guztiz errespetatu.

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Opariak erosten ditugunean:

- Ez ditugu erosiko bidaian apur daitezkeen gauzak.
- Arreta jarriko dugu herrialdetik kanpo inportatutako produkturik ez erosteko.
- Ahal dela, ez dugu animalia basatien larruz egin-dako produkturik erosiko.

SOLUZIOA: Ahal dela, ez dugu animalia basatien larruz egindako produkturik erosiko.

LAGUNTZA: Egin erantzun zuzenaren irudi bat.



GALDERA: Zergatik ez dira loreak, haziak eta landareak hartu behar mendian oinez gabiltzala?

- Baten batek egiten badu, mundu guztiak egingo duelako.
- Ingurune naturalaren suntsiketa ekar dezake eta biodibertsitatearen zati bat gal daiteke.
- Herrietako jendeak landareak, haziak eta loreak hartu behar ditu, horiek saldu eta bizirik irauteko.

SOLUZIOA: Ingurune naturalaren suntsiketa ekar dezake eta biodibertsitatearen zati bat gal daiteke.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Jendaurrean musuka eta besarkadak ematen ibiltzea:

- Ondo ikusita dago, maitasuna adierazten baitu, eta beraz, bultzatu beharra dago.
- Baliteke bertakoak haserraraztea, haiek ez bailukete sekula egingo gune pribatuetatik kanpo.
- Ez du inolako garrantzirik. Inork ez dio horri erreparatzen, jada ohituta baitaude.

SOLUZIOA: Baliteke bertakoak haserraraztea...

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Trekking baterako jantzi behar dugunean:

- Berokiak-eta aukeratuko ditugu leku garaietarako eta arropa eroso leku beroetarako.
- Ez ditugu erabiliko eskoteak, praka laburrak, etab.
- Arropa eramango dugu euritik babesteko.

SOLUZIOA: Ez ditugu erabiliko eskoteak, praka laburrak, etab.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzenaren bokalak.



GALDERA: *Souvenirrak* erostean:

- Ondo ikusita dago objektu erlijiosoak edo antzinakoak erostea, izan ere, garesti samarrak dira eta horiek saltzen dituzten nepaldarrek etekin onak lor ditzakete.
- Objektu erlijiosoak eta antzinakoak erostea horien balioa areagotzen du, eta horrela, ez dira alferrik galtzen.
- Ez dira erosi behar benetako objektu erlijiosoak eta antzinako gauzak, horrek bertakoak historiarik gabe uztea baitakar.

SOLUZIOA: Ez dira erosi behar benetako objektu erlijiosoak eta antzinako gauzak...

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzenaren bokalak.



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



GALDERA: Legez kontrakoa da Nepaldik ateratzea:

- Ehun urtetik gorako antzintasuna duten objektuak.
- Objektu erlijiosoak.
- Legezko erabilerarako txanponak eta billeteak.

SOLUZIOA: Ehun urtetik gorako antzintasuna duten objektuak.

LAGUNTZA: Egin hizki-zopa erantzun zuzenarekin.



GALDERA: Baldin eta eskuan objektu edo irudi sakraturen bat badugu:

- Ez dugu sekula lurrean jarriko.
- Beti bi eskuakin helduko diogu.
- Beti gure burua baino goragoko altueran heldu behar diogu.

SOLUZIOA: Ez dugu sekula lurrean jarriko.

LAGUNTZA: Irakurri erantzuna alderantziz, eskumatik hasita eta paperaren ezkerrean eginez. Irakurri behin bakarrik.



GALDERA: Saihestu beharra dago, gizabide txarrekoa delako...

- Beste pertsona baten begietara zuzen begiratzea.
- Jendaurrean zintz egitea.
- Atzamarraz seinalatzea.

SOLUZIOA: Atzamarraz seinalatzea.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzenaren kontsonanteak.



GALDERA: Nepaldarren bati dirua eman nahi badiogu:

- Hobe da dirua kalean eskean dabilen jendeari ematea eta horrela ziur jakingo dugu dirua behartsuenek jasotzen dutena.
- Dirua kudeatu eta garapen-proiektuetarako erabil dezakeen GKE edo instituzio batengana jo behar dugu.
- Udalaren esku utziko dugu eta bertan arduratuko dira behartsuenen artean banatzeaz.

SOLUZIOA: Dirua kudeatu eta garapen-proiektuetarako erabil dezakeen GKE edo instituzio batengana jo behar dugu.

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Pertsona bat edo leku bat seinalatu behar izatekotan, beti egingo dugu:

- Eskuin eskuko atzamar txikiaz.
- Eskua ondo jasota eta ukabila itxita.
- Oin-puntaz.

SOLUZIOA: Eskua ondo jasota eta ukabila itxita.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Eskuz gauzaren bat eman edo jaso behar dugunean, beti egingo dugu:

- Ezker eskuaz.
- Eskua ondo jasota eta zabalik.
- Bi eskuak zabal-zabalik, begirunea agertzeko.

SOLUZIOA: Bi eskuak zabal-zabalik, begirunea agertzeko.

LAGUNTZA: Egin hizki-zopa erantzun zuzenarekin.



GALDERA: Pertsona baten argazkia egin aurretik:

- Baimena eskatu behar da. Etika gutxikoa da jendearen argazkiak egitea, aurrez esan gabe.
- Baimena eskatu behar da eta, argazkiak egitearen truke dirua eskatuz gero, ordaindu.
- Itxurak egin behar dira, argazkia egingo zaion pertsona ez beldurtzeko.

SOLUZIOA: Baimena eskatu behar da. Etika gutxikoa da jendearen argazkiak egitea, aurrez esan gabe.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Erromes batek edota elbarri batek limosna eskatuz gero:

- Ondo dago errupia batzuk edo jakiren bat ematea.
- Gonbidatu jatetxe txiki batean jatera, zorte ona ematen du eta.
- Ez egin kasurik eta begiratu beste alde batera.

SOLUZIOA: Ondo dago errupia batzuk edo jakiren bat ematea.

LAGUNTZA: Egin irudi bat erantzun zuzenarekin.



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



**PROBAK
EDO
GALDERAK**



GALDERA: Monasterio budista bat bisitatzen duzunean, ohiturak agintzen du:

- Fraideentzako arroza eramatea.
- Limosna bat uztea.
- Burua estaltzea.

SOLUZIOA: Limosna bat uztea.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzenaren bokalak.



GALDERA: Komeni da bertakoekin hitz egitea:

- Beti izaten dituztelako aholku onak zuri emateko.
- Zure herrialdeari buruzko gauzak eta bertan nola bizi zareten azaltzeko.
- Gauzak alda daitezen lagundu eta gure jarduteko modua ikas dezaten.

SOLUZIOA: Zure herrialdeari buruzko gauzak eta bertan nola bizi zareten azaltzeko.

LAGUNTZA: Mimika.



GALDERA: Askotan, gauzen prezioarekin tratua egin behar da, baina ez da zilegi tratua egitea:

- Hiriko garraioarekin.
- Elikagaiek merkatuan duten prezioarekin.
- Monasterio batera sartzeko, janarirako edo ostatu hartzeko prezioarekin.

SOLUZIOA: Monasterio batera sartzeko, janarirako edo ostatu hartzeko prezioarekin.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzena eskumatik ezkerreara behin bakarrik.



GALDERA: Trekkinga egiten dugunean:

- Komeni da ura botilatan eramatea, izan ere, askotan ez dakigu aurkituko dugun ura edateko ona izango den.
- Ez dugu ura botilatan eramango, izan ere, plastikoa ez da biodegradagarria eta horrela zaborra bazter guztietan pilatzea baino ez dugu lortzen.
- Ez dugu zertan kezkatu ura dela eta, leku guztietan baitago edateko ura.

SOLUZIOA: Ez dugu ura botilatan eramango...

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Monasterio budistetan:

- Ezin da argazkirik egin.
- Fraideei baimena eskatu behar zaie argazkiak egiteko, eta errupia batzuk ordaindu, halakorik eskatzen badute.
- Emakumeak ezin dira sartu.

SOLUZIOA: Fraideei baimena eskatu behar zaie argazkiak egiteko, eta errupia batzuk ordaindu, halakorik eskatzen badute.

LAGUNTZA: Marraztu erantzun zuzena.



GALDERA: Edateko ura behar dugunean:

- Ura irakiten eskatuko dugu.
- Kantinplora beteko dugu eta iodozko pilula batzuk sartuko ditugu hura garbitzeko.
- Ura botilatan erosiko dugu.

SOLUZIOA: Kantinplora beteko dugu eta iodozko pilula batzuk sartuko ditugu hura garbitzeko.

LAGUNTZA: Egin hizki-zopa erantzun zuzenarekin.



GALDERA: Mendian zabiltzanean, adeitasunez agurtu behar dituzu bidean aurkitzen dituzun herritarrak eta:

- Eskua eman eta *Salam Malecum* esan behar duzu.
- *Namasté* edo *Dashiedele* esan behar duzu.
- Begietara begiratu behar diezu eta buruaz agur egin, ezkerretik eskumara eta eskumatik ezkerre-
ra mugituz.

SOLUZIOA: Namasté edo Dashiedele esan behar duzu.

LAGUNTZA: Irakurri erantzun zuzenaren bokalak.



GALDERA: Mendian gabiltzanean garrantzitsua da...

- Erritmo bat jarri eta talde osoak jarrai diezaion lortzea.
- Atsedetik gabe ibiltzea erritmoa ez galtzeko.
- Oihurik ez egitea eta bidean aurkitzen dituguneko begirunea agertzea.

SOLUZIOA: Oihurik ez egitea eta bidean aurkitzen dituguneko begirunea agertzea.

LAGUNTZA: Mimika.

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**



AURRERATU 4 KUTXATILA.



AURRERATU KUTXATILA 1.



AURRERATU 2 KUTXATILA.



AURRERATU 3 KUTXATILA.



**KOKATU HURRENGO
SARI-KUTXATILAN, BAINA EZIN
DUZUE HARTU BESTE
SARI-TXARTELIK.**



**SALTO EGIN HURRENGO
PROBARA.**



**KOKATU HURRENGO
SARI-KUTXATILAN ETA HARTU
BESTE SARI-TXARTEL BAT.**



BOTA BERRIRO DADOAK.

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**

**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**



BOTA BERRIRO DADOAK.



**SARI HONEK AUKERA EMATEN
DIZUE BERRIZ ERE DADOAK
BOTATZEKO.**



**EGIN DADOETAN ATERATAKO
ZENBAKIA BIDER BI ETA
AURRERATU BIDERKETAREN
EMAITZAK ADIERAZI BESTE
KUTXATILA.**



**AURRERATU BERRIRO ZUEN
DADOAK ADIERAZITAKO
KUTXATILA KOPURUA.**



**TXARTEL HAU ANTIDOTO
MODUAN ERABILIKO DUGU
HURRENGO ZIGORRERAKO.**



**GORDE SARIA DAKARREN
TXARTELA ETA PROBA EGITEKO
KUTXATILA BATEAN ERORTZEN
ZARETENEAN, GALDERARIK
ERANTZUN GABE TXARTELA
EMAN ETA BERRIRO DADOA
BOTA ETA AURRERA EGIN AHAL
IZANGO DUZUE.**



AURRERATU 2 KUTXATILA.



**KOKATU HUTSIK DAGOEN
HURRENGO KUTXATILAN.**



**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**



**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**



**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**



**SARIA
DAKARTEN
TXARTELAK**



BOTA BERRIRO DADOAK.



AURRERATU BI KUTXATILA.



**SALTO EGIN HURRENGO
PROBARA.**



AURRERATU HIRU KUTXATILA.



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



**ATZERATU ARGAZKI BAT DAUKAN
HURBILENEKO KUTXATILARA.**



**SARI-KUTXATILA BATEAN
ERORTZEN ZARETEN HURRENGOAN
EZIN IZANGO DUZUE
SARI-TXARTELIK JASO.**



ATZERATU 3 KUTXATILA.



**ATZERATU AURREKO ZIGOR
KUTXATILARA.**



**ITZULI IRTEN ZARETEN
KUTXATILARA.**



**JOLASTEN JARRAITU AHAL IZATEKO,
PROBA KUTXATILA BAT GAINDITU
BEHAR DUZUE; EZ BADUZUE
GAINDITZEN, TXANDA 2 EGIN
BEHAR DITUZUE JOLASTU GABE.**



**EGIN ATZERA 2 KUTXATILA.
SARI-KUTXATILA BATEAN ERORTZEN
BAZARETE, EZIN IZANGO DUZUE
SARI-TXARTELIK JASO.**



**HIRU TXANDA DADOAK
JAURTI GABE.**



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



TXANDA BAT JOLASTU GABE.



TXANDA BAT JOLASTU GABE.



**JOLASTEN JARRAITU AHAL IZATEKO
PROBA-KUTXATILA BAT GAINDITU
BEHAR DUZUE, ETA GAINDITU
EZEAN, BI TXANDA EGIN BEHARKO
DITUZUE JOLASTU GABE.**



**ITZULI IRTEN ZARETEN
KUTXATILARA.**



**HURRENGO PROBA INOLAKO
LAGUNTZARIK GABE GAINDITUTA
ERE, BERRIRO ZUEN TXANDA NOIZ
HELDUKO ZAIN EGON BEHARKO
DUZUE BERRIRO DADOAK BOTA ETA
AURRERA EGITEKO.**



**BENETAN SENTITZEN DUGU,
BAINA BERRIZ ERE JOLASTEN HASI
BEHAR DUZUE.**



**SARI-KUTXATILA BATEAN
ERORTZEN ZARETEN HURRENGOAN
EZIN IZANGO DUZUE
SARI-TXARTELIK JASO.**



**EGIN ATZERA 2 KUTXATILA.
SARI-KUTXATILA BATEAN ERORTZEN
BAZARETE, EZIN IZANGO DUZUE
SARI-TXARTELIK JASO.**



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



Zigorra
dakarten
Txartelak



EGIN ATZERA 3 KUTXATILA.



**ITZULI IRTEN ZARETEN
KUTXATILARA.**



**EGIN ATZERA AURREKO
ZIGOR-KUTXATILARA ARTE.**



EGIN ATZERA 3 KUTXATILA.

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

**Gomendio-
Txartelak**

BURUA ERABILI. EZ ZAITEZ AZKARREGI IGO, GOGOAN IZAN MENDI-GAITZA. EZ EGIN TXANGOAK BAKARRIK ETA IZENA EMAN ZURE ENBAXADAN EDO KONTSULETXEAN EDO KEEP BULEGOAN IGOERARI EGIN AURRETIK.

EZ ZAITEZ BILUZTU KANPOAN BAINATZEKO. EMAKUMEEK GORPUTZA ESTALI BEHARKO LUKETE LOONGUI BATEKIN (ZAPI-MOTA OSO HANDI BAT). EZ ERABILI XABORIK (EZTA BIODEGRADAGARRIAK BADIRA ERE) ERREKASTOEN BARRUAN. ERABILI PERTZ BAT ETA BOTA URA ETA XABOIA IBILGUTIK URRUN.

EZ ZAITEZ BIDEETATIK IRTEN, ETA EZ HARTU BIDEZIDORRIK. HORRELA EZ DA HIGADURARIK GERTATZEN.

MESEDEZ, EZ EMAN SEKULA EZ DIRURIK, EZ BOLIGRAFORIK, EZ GOZOKIRIK UMEEI. ORDAINDU PREZIO ZUZENA JANARIAREN, OSTATUAREN ETA ZERBITZUEN TRUKE. BERTAKO PRODUKTUAK EROSTEAK ON EGITEN DIO MENDIKO EKONOMIARI, BAINA ANTZINAKO GAUZAK EROSIZ GERO NEPALI BERE KULTURAREN ZATI BAT KENTZEN DIOGU.

ERRESPETUA AGERTU JENDEARI ARGAZKIAK EGITERAKOAN. ESKATU BAIMENA BETI ETA HITZ EGIN BERAIEKIN APUR BATEAN ARGAZKI BAT EGIN AURRETIK. DIRUA ESKATUZ GERO EZ EGIN ARGAZKIRIK.

EZ PENTSA EGUNERO DUTXA BEROA HARTUKO DUZUNIK. EZ ERABILI EGURREZ BEROTUTAKO URIK.

JANZTEKO MODURIK ONENA ORKATILEN AZPITIK GONA BAT EDO PRAKA ZABALAK JARTZEA DA, EMAKUMEEN KASUAN, ETA PRAKA LUZEAK EDO ORKATILEN AZPIRAINOKOAK, GIZONEN KASUAN (PRAKA LUZEAK MONASTERIOETARA SARTZEKO). ARROPA-MOTA HORREKIN LEKUKO OHITURAK GORDETZEN DIRA.

ERAMAN BEROKI APROPOSAK, GERO EZ IZATEKO SUAREN HAINBESTEKO PREMIARIK BEROTZEKO. EGIAZTATU ESPEDIZIOKIDE GUZTIEK ETA GARRAIATZAILE-TALDEAK ARROPA NAHIKOA ETA APROPOSA DARAMATELA.

ERRE ERABILTZEN DUZUN KOMUNeko PAPER GUZTIA ETA EGIAZTATU EZ ZAUDELA LEKU SAKRATU BATEAN ZURE EGINKARIAK EGIN AURRETIK.

TXANGOAN EZ EROSI UR ONTZIRATUA, ETA EZ ERAMAN HORRELAKORIK. BOTILAK EZ DIRA BIODEGRADAGARRIAK ETA HORIEKIN MENDIAN ZABORRAK PILATZEA BAINO EZ DUGU LORTZEN. EZ PENTSA EDATEKO UR ONA EDO IRAKINDAKOA LEKU GUZTIAN AURKITUKO DUZUNIK. ERAMAN KANTINPLORA BAT ETA IODOZKO PILULAK URA GARBITZEKO.

ERAMAN PLASTIKOZKO EDO PAPEREZKO BOLTSA BAT BIODEGRADAGARRIA EZ DEN ZABOR GUZTIA SARTZEKO ETA ERRE PAPER GUZTIAK (AHAL DELA EZKUTUAN).

DAL BHAAT DELAKOA EGINEZ GERO (NEPALGO DIETA TIPIKOA, ARROZEZ ETA DILISTEZ OSATUA) EGUR GUTXIAGO KONTSUMITZEN DA. OHITU ZAITEZ GAINERAKO ESPEDIZIOKIDEEN PLATER BERBERAK ESKATZEN, ETA BERAIEKIN ORDU BERBERETAN.

Haurren lana Nepalen

(informazioa zabaltzeko)

1. Dokumentua:

Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsala

Nazio Batuen Batzar Orokorrak erabakitakoa,
1959ko azaroaren 20an.

1. Printzipioa

Haurrak Deklarazio honetan aipatutako eskubide guztiak izan behar ditu. Eskubide hauek haur guztiei aitortu behar zaizkie, inolako salbuespenik gabe edo diskriminaziorik gabe, arrazaga, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, jatorria, herrialdekoa zein gizartekoa, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza tartean dela ere, berdin umearena berarena zein bere familiarena.

2. Printzipioa

Umeak babes berezi bat izan behar du eta legeak ezarritako aukerak eta zerbitzuak izango ditu eskura, adimenez, buruz, espirituz eta gizarte-mailan modu osasuntsuan eta behar den bezala gara dadin, askatasun eta duintasun osoz. Helburu hori duten legeak bultzatzean, beste edozein gauzaren gainetik haurraren goi-interesa hartu beharko da aintzat.

3. Printzipioa

Haurrak eskubidea du, jaiotzen denetik, izen bat eta herritartasun bat izateko.

4. Printzipioa

Haurrak gizarte-segurantzak eskaintzen dituen onurez baliatu behar du. Osasunez hazteko eta garatzeko eskubidea izan behar du, eta helburu horrekin, bai haurrari berari bai bere amari, sendaketa eta babes bereziak eman beharko zaizkie, jaio aurretiko eta jaio osteko arreta berezia barne. Haurrak eskubidea du behar bezalako elikadura, etxebizitza, aisialdi eta zerbitzu medikoak izateko.

5. Printzipioa

Haurrak traba fisikoak, adimen-mailakoak edo gizarte-mailakoak baditu, bere egoera berezian beharrez-

koak diren tratamendua, heziketa eta arretak jaso behar ditu.

6. Printzipioa

Haurra maitatu eta ulertu behar dugu, bere nortasuna guztiz gara dezan. Ahal den neurrian, bere gurasoen ardurapean haziko da, eta edozein kasutan ere, maitasunezko eta ziurtasun moral eta materialeko giro batean; oso kasu berezietan izan ezik, urte gutxiako haurra eta ama ez ditugu bananduko. Gizarteak eta herri-agintariek arreta berezia eskaini behar diete familiarik gabeko haurrei edo bizirik irauteko baliabiderik ez dutenei. Familia ugarietako seme-alaben mantenuko komeni da estatu-mailako laguntzak edo bestelakoak ematea.

7. Printzipioa

Haurrak eskubidea du heziketa jasotzeko, eta heziketa doakoa eta derrigor egin beharrekoa izango da, behintzat oinarrizko aldian. Heziketa berezia jasoko du, eta horri esker, kultura orokorraren jabe izango da, eta bestean aukera berberekin, bere gaitasunak eta irizpideak garatuko ditu, bai eta bere erantzukizun moral eta soziala ere, eta horrela, gizarteko baliozko kide bilakatuko da.

Haurraren interes nagusia izango da haren heziketaren eta orientabidearen gaineko ardura dutenak gidatuko dituen printzipioa; ardura hori lehenik eta behin gurasoek dute.

Haurrak era guztietako jolasak egingo ditu, eta guztiak heziketaren helburu nagusia lortzera bideratuta egongo dira; gizarteak eta herri-agintariek egiaztatu egin behar dute eskubide hori behar bezala betetzen dela.

8. Printzipioa

Haurrak lehenengoetakoa izan behar du, egoera guztietan, babesa eta sorospena jasotzen.

9. Printzipioa

Haurrak babesa behar du zabarkeria-, ankerkeria- eta esplotazio-mota guztiei aurre egiteko.

Ez da tratuak egiteko edo antzekoetarako erabiliko.

Ez da onartuko haurra gutxieneko adin egoki bat bete aurretik lanean hastea; ez du egingo bere osasunerako kaltegarria izan litekeen edo bere garapen fisiko, mental edo moralari eragin liezaiokeen lanik, eta ez du inongo kasutan ere horrelakorik egiteko baimenik izango.

10. Printzipioa

Haurrak babesa behar du gizarte-mailako, erlijio-mailako edo beste edozein motatako bazterkeria bultza lezaketen jardueren aurrean. Bere heziketan ulermena, tolerantzia, herrien arteko adiskidantza, bakea eta anaiarte unibertsala bultzatu behar dira, eta haurrak argi izan behar du bere indar guztiak bere kideen zerbitzura moldatu behar dituela.

Iturria: *Hablemos de Derechos Humanos*, María Soler, Herrien Eskubideen Liga, 1996.

Haurren lan-esplotaziorik Ez

Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, mundu osoan 5 eta 14 urte bitarteko 250 milioi hurrek baino gehiagok lan egiten dute, eta horietatik 120 milioik lanaldi osoz egiten dute lan, esplotazio-egoera garbian.

Haurren lan-esplotazioa munduan maila kezkagarrietara heltzen ari dela ikusita, eta horregatik kezkatuta, munduko 91 herrialdetako 450 herri-erakundek baino gehiagok bat egin zuten, 1998an, haurren lan-esplotazioaren aurkako munduko martxa antolatzeko, **GLOBALMARCH** izenekoa. Katalunian, Intermonek kordinatu zuen martxa eta gobernuz kanpoko erakunde askok (GKE) bertan parte hartu zuten eta martxarekin bat egin zuten.

Martxaren helburu nagusia gaia iritzi publikoari helaraztea zen, eta munduko gobernuak eta bozketak politikoei eskatzea, batetik, gai horrekiko zuten ardura hartzeko, eta bestetik, nazioarteko arau berri bat sortu, egiaztatu eta betetzeko, haurrak lan egitera behartzen dituzten modu onartezinak debekatzeko; horren bidez, haur langileen birgaitze eta gizarteratze egokia bermatuko litzateke.

GLOBALMARCH-en aldarrikapen nagusiak hauek izan ziren:

- **Hezkuntza**; haurren lan-esplotazioa galarazteko baliabide nagusietako bat da, eta lehentasun osoa izan behar du. Haurrak hezkuntzaren mundura sar daitezela ziurtatzeko, finantza-mailako laguntza are-

agotzea eskatzen da, herrialde bakoitzaren errealitate sozialaren arabera, hezkuntza-programa egokiak garatzeko, betiere indar berezia eginda haur guztien alfabetatzean.

- **Pobreziaren aurkako borroka**; funtsezkotzat jotzen da haurren lan-esplotazioa desagerrarazteko. Pobrezia da haurrak lan esplotatzailea egitera bultzatzen dituen arrazoi nagusia. Ibilaldiaren bidez eskatzen da oinarritzko gizarte-sektoreen (osasuna, hezkuntza, ura eta kredituak behartsuenei) garapenerako laguntza ofizialaren %20 horretara bideratzea, eta modu horretara, Nazio Batuek hartutako konpromisoa betetzea, eta Estatuak bultzatzea beraien BPGren %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialerako gorde dezaten.
- **Familien lan-baldintzak eta baldintza ekonomikoak hobetzea**, haurren laguntza ekonomikoa beharrezkoa izan ez dadin. Laguntza eskatzen da langileentzako soldata duinak ezartzeko borrokatzen diren ekimenetarako, bai eta enpresarien artean eta kontsumitzaileen artean hartu-eman positiboak sustatzen dizuztenetarako ere, esaterako, Bidezko Merkataritza, jarrera-kodeak, gizarte-garantiako etiketa...
- **Nazioarteko araudiak egiaztatzea eta betetzea**, gure gobernuak eta agintariek babesten duten haurren lan-esplotazioaren aurka.

³ Dokumentu hau GLOBALMARChen alde Katalunian jasotako sinadura-orriaren erreproduzio bat da, 1998koa.

Bibliografia

Agarwal, B.: *A field of One's Own: Gender and Land Rights in South Asia*, Ingalaterra, Cambridge University Press, 1995.

Brewer Lama, Wendy: *Trekking gently in the Himalaya*, Sagarmatha Pollution Control Project, Kathmandu, Nepal, 1992. Gomendio-gida bat da, Nepalen trekkinga egin nahi duten turistentzat.

Deep, Dhurba K.: *Selected Folk Tales of Nepal*, Ekta Books Distributors Ltd. Kathmandu, 1993.

Delgado, Josep Francesc: *Si pugues al Sagarmatha*, Bartzelona, Columna ediciones, Columna Jove 10. zenbakia. Jarduerak Columna Jove-n, irakurketa-gida, 9-21. orrialdeak.

Delgado, Josep Francesc: *Nina el sherpa de Namche*, Bartzelona, Ediciones del Bronce, 2001.

Helmore, Kristin: *"El desarrollo adopta un curso descendente en Nepal"*, Opciones, 4. zenbakia, New York, abendua, PNUD, 1994.

Instituto del Tercer Mundo: *Guía del Mundo 2003-2004. El mundo visto desde el Sur*. Instituto del Tercer Mundo / Iepala / Fundación Santa María, 2003.

Lausset, Rosemarie: *Dall' Himalaya alle pianure del Gange*, Lugano, Collana di dossier pedagogici, Serie Asia, Orizzonti Nord Sud, 1993.

Lea, John: *Tourism and Development in the Third World*, Routledge, 1998.

Mason, Peter: *Tourism: Environment and Development Perspectives*, WWF, 1990.

Meachil, Sally: Richards, Dave and Williams, Kemi: *Focus for change*, Ingalaterra, RISC, 1992.

Sattaur, Omar: *Child Labour in Nepal* Anti-Slavery International, 1993.

Sattaur, Omar: *Nepal, New horizons?*, An Oxfam Country Profile, Oxford, Ingalaterra, Oxfam Publications, 1996.

Aldizkariak

HIMAL – South Asia. Hileroko Aldizkaria da, Nepalen argitaratua, Hego-Asiari eragiten dioten gai sozial, ekonomiko eta politikoei buruz. Aldizkaria 1987an argitaratu zen lehenengoz, eta informazio orokorra dakar Himalaiako eskualdeari buruz, baina 1996tik Hego-Asia osoa hartzen du. Aldizkaria Internet bidez ere eskura daiteke:

<http://www.south-asia.com/himal>.

Bideoak

Hidden Places. Tourist and Nepal RED Productions, 1991. Ingelesez. Erreportaje ona da turismoak Nepalen duen eraginari buruz. Bertako jendearen eta turisten testigantzak jasotzen ditu. Analisia egiten du komunikabideek eta turismoaren industriak Nepalez emandako estereotipoz jositako irudiei buruz, eta herrialdeko biztanleen eguneroko bizitzaren errealitatetik hurbilago dagoen ikuspegi orokatuagoa ematen saiatzen da.

Los Sherpa, Pueblos de la Tierra, Miguel de la Cuadra Salcedo, Granada Televisión Internacional, LTD-ren produkzioa. Comercial Salvat Editores, S.A. (Gutxi gorabeherako iraupena: 60 minutu).

Expedición Himalaya – Eco. Gas Natural-en babesarekin Everestera egindako espedizio ekologikoaren erreportajea da. Concertación/S-n aurkituko duze, mailegu eran, edo Kataluniako Mountain Wilderness-en.

Nepal/Tibet la montaña sagrada, Enreg. Vídeo S.A.V., 1997.

Nepal Water Project. Academic Media Production Services, 2002. Iraupen laburreko bideo honetan egitasmoa azaltzen da. Internet bidez eskura daiteke:

<http://web.mit.edu/amps/portfolio/video/nepal.html#> Informazio gehiagorako:

<http://ceeserver3.mit.edu/~Nepal/index.html>

Pueblos de la tierra: los Sherpa, Nepal, Salvat, 1992.

Retorno al Everest, National Geographic, 1993.

**Posta-helbide eta helbide elektroniko
interesgarriak**

Amigos de la Vicki Sherpa. Via Laietana, 54, 1º, 08003
Bartzelona. Telefonoa. 93 268 22 22

Asociación de Amigos de Nepal. Gran Vía, 682 atikoa-
ren gainean, 08080 Bartzelona. Posta-kutxaren
zenbakia, 5490. Telefonoa. 93 412 28 03.
E-mail: amicsnepal@sct.ictnet.es

Equation - Equitable Tourism Options. 168, 8th Main,
near Indiragar Club. Bangalore 560008. India.

HIMAL - South Asia. PO Box 7251, Kathmandu, Nepal.
E-mail: himal@himpc.mos.com.np

KEEP. P.O. Box 9178, Tridevi Marg, Thamel, Kathmandu,
Nepal.

Mountain Wilderness de Catalunya. Rambla, 41, 08002
Bartzelona. Informazio-bideoak dituzte Nepalgo
egungo egoerari buruz.

National Geographic. Beraien web orrialdean aurki
dezake Nepalari buruzko lotura interesgarria:
<http://www.nationalgeographic.com/features/01/nomad/nepal/intro.html>

South Asia. Informazio ataria.
<http://www.south-asia.com/>

Tourism Concern. Patricia Barnett (koordinatzailea),
Southlands Collage. Wimbledon Parkside. London
SW19 5NN. Ingalaterra. Zenbait bideo dituzte gaia-
ri buruz.



TIBET



Aurkezpena

Tibeti buruzko materialaren helburua da herrialde hartako historiaren, geografiaren eta kulturaren alderdirik bereizgarrienak ezagutaraztea. 1950etik Txinaren menpe dago eta borrokan dihardu nazioartean herrialde gisa duen subiranotasuna aitortu diezaioten.

Tibeti buruzko atalean, bi gai nagusi landuko dira: Txinatarren okupazioa eta Tibeteko errefuxiatuek beren herrialdetik kanpo daramaten bizimodua. Gai bakoitzak jarduera nagusi bat izango du, irakasleentzako liburu honetan aurkituko duzuen; horrez gain, ikasleek beste jarduera gehigarri batzuk izango dituzte beren liburuetan.

Tibeti buruzko irakasleen liburuaren xedea da informazio gehiago ematea, ikasleek Tibeten historiari eta egungo egoerari buruz dutena osatzeko. Gainera, material osagarri gehiago ere eskaintzen du eta ikasleen liburuan lantzen diren gaiei loturiko jarduera zehatzak egiteko proposamenak ere jasotzen ditu.

Liburu honen bukaeran, Tibetekin zerikusia duten erakundeen posta-helbideen eta helbide elektronikoen zerrenda daukazue eta gaiari buruzko bibliografia ere.

Historia eta egungo egoera

(informazioa zabaltzeko)

Tibeten jatorria

Idatzizko tradizioaren arabera, Tibeteko lautadan gure aroa hasi aurreko I. mendean dagoeneko leinu nomadak bizi ziren, baina 600 urte igaro ziren Songtsen Gampo erregeak herrialdea batzeko lehenengo saioa egin zuen arte.

Kondairak dio Songtsen bi emakumerekin ezkondu zela, bata txinatarra eta bestea nepaldarra (bazituen haiez gain hiru emazte tibetar ere). Bi emakumeek temati ekin zioten Songtsen erregeak ohiko txamanismoaren barnean budismoa onartu zuen arte. Garai haietan, txamanismoa zen nagusi Tibetean, eta Bon izenez ezagutzen zuten. Songtsen erregea budismoaren zale porrokatua bilakatu zen eta erlijio hori praktikatzeko bi tenplu eraiki zitatzela agindu zuen: bata txinatar emaztearen omenez; eta bestea, Nepaleko bikotearen ohoretan. Tenplu haietako bat Jokhang da (Lhasa erdialdean dago; hiri hori da, hain zuzen ere, txinatarren okupazioaren aurkako salaketa ekimen eta ekitaldi gehienak gertatzen diren lekua).

VII. eta VIII. mendeetan, tibetar inperioa Kaxmir aldera hedatu zen (egun Indian dago lurralde hori), eta Txina, Bhutan, Nepal eta Myanmar (lehenengo Birmania) iparraldera ere heldu zen. Hala, bada, Asia osoan botererik gehien zuen herrialdeetako bat bilakatu zen. Txinak, ordea, berehala erantzun zion hazkunde hari, batez ere Tibetek Zetaren Bidearen zati bat mendean hartua zuelako, nahiz eta bide osoa oraindik Txinaren esku egon. Txinak erasoaldi ikusgarria eman zien tibetarrei, baina Tibetek eutsi egin zion eta garaile atera zen.

VIII. mendean, Padmasambhva indiar jakintsu handia gonbidatu zuten Tibetera, lehenengo unibertsitate budista eratu zezan Samye monasterioan. Garai hartan, indiar testu budista gehienak itzuli zituzten sanskritotik tibeterara, eta Indiako budismoa txinatarrena baino indartsuago bilakatu zen Tibetean.

IX. mendean, herrialdeak krisialdi politiko eta erlijioso nabarmena pairatu zuen. Budismoa herrialdeko leku txikietan zokoratua izan zen, eta ez zuen indarrik berriro berreskuratu, India aldetik beste budista jakintsu bat etorri zen arte, XI. mendean. Mende horretan budismo eskola berriak agertu ziren, oro har, budismoak Indian zuen bilakaerari hertsiki loturik zeudenak. Musulmanek India indarrez hartzean, ordea, Tibet bere iturri espiritualetik bakartuta geratu zen eta budismo tibetarrak bilakabide bereizia izan zuen. Beraz, XII. menderako hiru eskola budista zeuden Tibetean, nahiz eta Sakyapa izenekoak zuen nolabaiteko eragina herrialde osoan.

Budismoa Tibetean

XIV. mendean, Sakyapa budismoak gainbehera egin zuen eta Gelukpa budismoak hartu zuen haren lekua (adar horri txano horien eskola esaten diote, hala bereizten baitira eskola horretako kide direnak, horien artean egungo Dalai-lama).

Izan ere, XIV. mendean mongoliarren enperadorea budista bilakatu zen eta Sonam Gyatso, Gelukpa sektako hirugarren Lama Handia, karisma berezikoa zela onartu zuen. Horren ondorioz, Dalai-lama deitu zion (Dalai=ozeanoa, Lama=jakituria; haren jakituria ozeanoaren handitasuna bestekoa da). Ordutik hona, Tibeteko budismoaren eta gobernuaren buruzagi guztiek izen hori jaso dute: Dalai-lama.

Tibet mendean hartzeko borroka

Bosgarren Dalai-lamak berriro batu zuen Tibet botere politikoa eta erlijiosoa uztartzen zituen sistema baten mende (teokrazia). Txina bisitatu eta Indiarekiko merkataritza harremana abiarazi zuen berriz. Hura hil ondoren, mongoliarrek berriro eskuratu zuten boterea Tibetean eta XVIII. mendean herrialdeko hiriburua hartu zuten, Lhasa. Bestetik, Mantxuriako Quing dinastiak ere nahi zuen Tibet mendean hartu, mongoliarren indarra beren esku izateko.

XVIII. eta XIX. mendeetan, Tibetek laguntza eskatu zion Txinari Nepaleko armadaren (Gurkha) erasoaldiei aurre egin ahal izateko, eta enperadore txinatarrek egoera hori baliatu zuten Tibet mendean hartu eta gainontzeko herrialdeetatik bakartzeko.

1902an, Errusiak eta Txinak Tibeti buruzko hitzarmen bat sinatu zutelako zurrumurrua zabaldu zen, eta britainiarrek Indian zuten gobernu kolonialak mehatxu itxura hartu zion, ustea zuelako Errusiak errazago izango zuela Tibetean barrena Indian sartzeko bidea. 1904an, britainiar armada Tibetean sartu eta Lhasara heldu zen. Tibeteko soldaduek ezin izan zuten arma sofistikatuak zeuzkan gudaroste hura gainditu. Britainiarrak ez ziren Tibetetik atera tibetarrek hitzarmen bat sinatu zuten arte: haren arabera, merkataritzarako abantailak eta tibetar mugen gaineko agintea aitortu zizkioten Indian egoitza zuen britainiar aginte kolonialari. Hitzarmen horren ondoren, Britainia Handiak ofizialki onartu zuen Tibet txinatarren eraginpean zegoela, Txinari Tibetean gaineko eskubideak bereganatuak zituela onartuz.

Hamahirugarren Dalai-lamak Mongoliara erbesteratu behar izan zuen, eta han gorde zen 1909 arte. Tibetera itzultzean, Txinak hartu zuen Kham eskualdearen zati bat eta Dalai-lamak laguntza eskatu behar izan zion Britainia Handiari.

¹ Budismoaren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu Bhutaneko materialean.

Txinaren okupazioa Tibeten

1910ean, Txinak indarrez hartu zuen Lhasa. Hurrengo urtean, Manchu Qing dinastia boteretik erorarazi zuten Pekinen eta Yuan Shi-Kaik Txinako Errepublika aldarrikatu zuen. 1912an, txinatarrek Tibet inbaditzearen aurkako protesta-manifestazioak hasi ziren eta armada txinatarrek armak eman eta Txinara bueltatu behar izan zuen. 1913an, Dalai-lama, aldi baterako Indian errefuxiatua zena, Lhasara itzuli zen eta Tibeten independentzia aldarrikatu zuen.

Hurrengo urtean, Txinako gobernuak, Tibetekoa eta Britainia Handikoa elkarrekin bildu ziren, lehenengo bi herrialdeen arteko mugaren gatazkan akordioa lortzeko asmoz.

1920an, Britainia Handiko gobernuak Sir Charles Bell bidali zuen Tibetera tibetarrenganako laguntasuna sendotzeko eta herri hark bere lege eta defentsa arloan zuen burujabetza onartzeko.

1720tik Txinako gobernuak Tibet beren lurren zati zela aldarrikatzen zuen, baina urte guzti horietan boterean izan ziren agintariek ez zuten sekula nahikoa indarrik izan beren gogoan inposatzeko. Gainera, britainiarrak Tibet sartu eta hitzarmena sinatu ondoren (akordio hark ondo zehaztu zuen Tibet eta Indiaren arteko muga, ez ordea Tibet eta Txina banatzen zituena), Tibetek Britainia Handiaren babesaren sentitu zuen eta ez zuen herri-subiranotasuna ofizialki aitortu izateko premiarik izan.

Bake garaia Tibet

Hurrengo 20 urteak bake garaia izan ziren Tibet, munduko gerra bietan neutral iraun zuen eta. Urte horietan, hamahirugarren Dalai-lamak (Thupten Gyatsok) aro modernora gidatu zuen bere herria. Lehenengo automobilak agertu ziren, Tibeteko zenbait ikasle Britainia Handira bidali zituzten, lehenengo zentral hidroelektrikoa eraiki zuten eta abar. Hala ere, "aurrerapen" horiek guxtiengo bati baino ez zizkion onurak ekarri, herrialdeko biztanle gehienak nekazariak, nomadak eta txiroak baitziren.

1933an, hamahirugarren Dalai-lama zendu zen eta 1940ra arte ez zuten Tensin Gyatso hamalagarren Dalai-lama izendatu (bera da egungo Dalai-lama). Izendatu arteko urte horietan, erregeorde bat izan zen herrialdean buru. Haren gobernuak ustelkeriagatik salatuta zuten eta gerrate zibil txiki bat izan zuten herrialdean.

Txinak Tibet indarrez hartu

1947an, India independente egitean, Britainia Handia Asiako alde hartatik desagertu zen eta Tibetek ez zuen inoren babesik izan Txinak hegoaldera egin zuen aurrerabidea gelditzeko. Txinako Alderdi Komunistak 1949an eskuratu zuen boterea, eta ez zuen denborarik galdu: Tibet indarrez hartzeko agindua eman zuen, Txinako probintzia zela aldarrikatuta. Hamalagarren Dalai-lamak (15 urte zuen orduan) armada tibetarreko 12.000 soldadu mobilizatu zituen, baina Txinak arma astunak zeuzkan. Dalai-lamak hiru aukera zuen: Txinako gobernuarekin negoziatzea, aurre egitea edo erbestera ihesean joatea. Negoziatzea aukeratu zuen eta 1951. urtean tibetarrak 17 ataleko hitzarmen bat sinatzera behartu zituzten indarke-riaz: **Tibetek bere burua gobernatu ahalko zuen eta Dalai-lama estatuburu zela aitortuko zuten, baina Txinak nazioarteko politikaren eta armadaren ardura izango zuen. Erligio askatasuna izango zuten eta tibetera erabiltzea bultzatuko zuten, baina independentzia eskaera oro zapaldua izango zen; hau da, kultur eta politika burujabetza agintzen zieten baina uko egin beharko zioten burujabetzari.**

Hamalagarren Dalai-lamak berak onartzen du egun, Tibeteko gizarte tradizionala ez zela perfektua; gizarte gehienek bezala aldaketak behar zituen eta Dalai-lama bera hasia zen aldaketok ezartzen Tibeteko gobernuaren buruzagitza bere gain hartu zuenean. Baina tibetarrak ezin ziren Txinako gobernuak sinestarazi nahi zuen bezain gaizki bizi, horretan oinarritu baitzuen Tibet indarrez hartzea.

"An International Commission of Jurists" izeneko legelarien nazioarteko batzorde batek bisitaldia egin zuen Tibetera 1960an, Txinak herrialde hura indarrez hartu eta 11 urtera, eta honako hau adierazi zuen: **"Txinak Tibet indarrez hartu aurretik herrialde hartan Giza Eskubideak urratzen zirela argudiatzen dute txinatarrek, baina baieztapen horiek errealitateaz bestekoak eta neurritz kanpokoak dira".**

Nazioarteko Zuzenbideak ez du txinatarren argudioa onartzen, alegia, **"tibetarrak sistema feudaltik askatzeko"** gauzatu zutela okupazioa, hau da, herri batek beste indarrez hartzea. Zuzenbide horrek honako hau dio: **"...ezin onartu daiteke herrialde batek beste bat indarrez hartu, okupatu, bereganatu edo kolonizatzea, haren gizarte egitura atsegin ez duelako".**

Tibeten askapena aldarrikatuz, Txinako gobernuak beldurra, oinazea eta txirotasuna sustatu zituen. Txinako ejerzittoa sartu zenean, Tibet hasia zen jada erreforma prozesu bat garatzen eta tibetarrek nahikoa gaitasun zuten hori aurrera eramateko txinatarrek esku hartu gabe.

Tibetarren ilusioaren azkena

Txinak eskolak, ospitaleak eta bideak egiteko proposamena egin zuen eta Dalai-lamak onartu egin zuen. Herria modernizatzea ontzat jo zuten herritar gehienek, baina amets hark ez zuen luze iraun. Bien bitartean, Txina Tibeteko lurak bereganatzen joan zen eta hurbilen zeuden Txinako probintziei erantsi zizkien: Amdo eskualdea, Tibeten iparraldean dagoena, Qinghai probintziari atxiki zioten eta txinatar lurralde gisa tratatu zuten; Kham eskualdea, ekialdean dagoena, banatu eta Sichuan, Gansu eta Yunnan probintziei gehitu zieten. Monasterioetako lurak konfiskatu egin zituzten eta leinuen lurak kolektibizatu. Tibetarrek ez zuten gogoko Txinak proposatzen zien eskolaratze eredia. Eraikitako bideek joan-etorri bakar bati laguntzen zioten, Txinako armadak Tibet osoan zehar egiten zuenari, alegia.

Herritar guztiak hasierako lilura galduta, 1954tik aurrera, Tibeteko hainbat lekutan arma bidezko erresistentziari ekin zioten. Matxinadarik handiena Kham eskualdean gertatu zen; gune hartan leinu nomadak bizi ziren, beren gorpuzkera handiagatik, adoreagatik eta borrokarako zuten gaitasunagatik gailentzen zirenak. Txinatarrek aietatik egin zituzten erasoek monasterioak txikitu eta monjeak zein herritarrek hil zituzten; baina haren ordainetan, Kham mugimenduak gora egin zuen, eta Tibet osoko biztanleen laguntza jasotzen hasi zen. Hegoaldean erresistentzia mugimendu bat sortu zuten: "lau ibaiak eta sei bularkak".

Gainontzeko lurraldeetan ere erresistentzia hazi egin zen, batez ere 1957tik aurrera, urte hartan Txinako gobernuak monasterioak txikitzeke agindua eman eta lurren eta jabeen kolektibizazioa ezarri zuelako. Une horretan sortu zen Nazio Defentsarako boluntarioen armada, eta Txina Tibeteko hegoaldeetik bidaltzea lortu zuten.

Tibetarren oposizioak indarra hartu

1959an, milaka tibetar atera ziren Lhasako kaleetara okupazioaren aurkako manifestazioetan, baina txinatar armadak tiroz hartu zituen eta egoera mendean hartzea lortu zuen. Hainbat tibetar hil ziren. Dalai-lama eta 100.000 tibetar Indiara joan ziren ihesi eta Tibeteko erbesteko gobernuak sortu zuten. Panchen Lamak (herrialdeko bigarren agintariak) ez zuen ihes egiterik izan eta Txinako gobernuak buruzagi hartaz baliatu zen herritarrek mendean izateko. Kartzelan sartu zuten beren erara doktrinatzeko asmoz. Geroago, Pekinera eraman zuten eta Txinako agintariek arauak eta dekretuak eman zituzten haren izenean.

Tibet txinatarren lurralde militar bilakatu zen; milaka tibetar hil zituzten inolako epaiketarik gabe, beste asko kartzeletan hil ziren edo kontzentrazio esparruetara eraman zituzten gatibu lanak egitera; tribu nomadei animaliak kendu zizkieten eta komuna sedentarioetan lan egitera behartu zituzten. Herrialde hartan zeuden monasterio gehienak deuseztatu zituzten: %98 desagertu egin ziren.

1965etik 1976ra Iraultza Kulturalak tibetar kulturaren azken apurrak deuseztatu zituen. Mao agintaria hil ondoren, 1976an, Txinako gobernu berriak gaizki eginak onartu zituen: Iraultza Kulturalak bultzatuta Tibeteko kultura eta tradizioa kudeatu eta deuseztatzea akatsa izan zela, alegia.

1979an, Txinako krisialdi ekonomiko garrantzitsua pairatu zuen eta munduko gainontzeko herrialdetara zabaltzea erabaki zuen. Txinako gobernuak proposamena egin zuen erbestean zen hamalagarren Dalai-lama herrira itzul zedin (baina Pekinen kokatzea zen baldintza), eta ordezkari talde bat Tibetera joan eta hango egoera aztertzea ere onartu zuen. Hona hemen ordezkari taldea hark zer aurkitu zuen: Lhasan eta Tibeteko beste hiri batzuetan, milaka lagun atera ziren kalera, Tibeteko independentzia aldarrikatu eta Dalai-lama Lhasara itzuli zedila eskatzeko. Manifestaldietan izan zirenetako asko kartzelaratuta egin zituzten.

1980an, Txinako Alderdi Komunistako idazkari Hu Yaobank Tibeteko izan zen bisitan. Egoera haren larritasunaz jabetuta, merkataritza pribatua lehengoratzeko, jendakurako erlijio jarduerak normalizatzea eta milaka "txinatar kargu" beren lanpostuetatik kentzea eskatu zuen. 1983an, Tibeteko ateak ireki zizkion turismoari, eta bere ekonomia (txinatarren esplotazioaren ondorioz txirotua zena) turismo horren mende jarri zen ia-ia osorik. Era berean, Pekin Tibeteko erdialdea birpopulatzen saiatu zen, txinatarrek han bizitzera eramanez.

Txinatarren errepresioak gora

1987ko irailean, Dalai-lamak Estatu Batuetako Kongresuan hitz egin zuen, Tibeterako Bake Egitasmoa aurkezteko. Urte bereko urrian, Lhasa erdigunean independentziaren aldeko manifestazio batean Txinako poliziak tiroz hartu zituen tibetar manifestari armagabeak. Manifestazioak izan ziren 10 hilabetetan zehar, eta Txinako poliziaren errepresioak ere bere horretan jarraitu zuen. Tibeteko ehunka manifestari hil zituen armadak eta beste asko kartzelaratu egin zituzten.

1988an, Dalai-lamak proposamena egin zion Txinako gobernuari: Tibetean kanpo-politikaren ardura emango zien, barne autonomia oso baten truke. Txina negoziatzeko prest omen zegoen. 1989ko martxoan, Txinako poliziak tibetar manifestari batzuk hil zituen Lhasan. Manifestazio gehiago izan ziren eta urte bereko martxoaren 7an, Txinako gobernuak gerra-legea ezarri zuen Tibeteko lurraldean. Turistak, diplomatikoak, kazetariak eta atzerriko egoiliarak herrialdetik kanpora bidali zituzten. Tibet berriro geratu zen mundutik bakartuta. Errepresio handiko urteak izan ziren: milaka tibetar atxilotu zituzten, epaiketarik gabe kartzelaratu, torturatu eta hil egin zituzten kartzelan zeudela ere, eta epaiketarik gabeko exekuzioak ere izan ziren.

Erbusterako bidea

Txinatarren mende Tibetean bizi zuten egoerak eta askatasunik ezak, milaka tibetar bultzatu ditu deserria auke-ratzera. Bide horretan, gainera, beren bizia eta senideena jarri zuten arriskuan.

1990ean, hamalagarren Dalai-lamak Bakearen Nobel Saria jaso zuen eta nazioartean aitortu egin zioten, Tibetera bakea eraman nahian, Txinarekin negoziatzeko izan duen gogoa.

1992an berriro hasi ziren baimenak ematen atzerritarrek Tibetera sartu ahal izateko, baina txinatar agintarien kontrolpean, betiere.

Amnesty International erakundeak, 1996ko maiatzean, Txinako agintariek Tibetean monje budisten aurka eragindako errepresioa gaitzetsi zuen. Giza eskubideen babesarako erakunde horren arabera, monjeetarik 80 zauritu egin zituzten Dalai-lamaren argazkiak jendaurrean erakusteko debekua ez errespetatzearren.

Geroago, 2003ko martxoan, sekretuan lortutako akordio batean, Txinako agintari berriek eta Indiako agintariek, ekainerako estatus berri bat erabaki zuten Tibeterako. Herrialde bakoitzeko prentsak "garaipen" gisa aurkeztu zuen akordio hori, baina, egia esan, era guztietako akordioak egiteko topaketa bat izan zen, esate baterako, merkataritza harremanak sendotzeko eta bi herrialde horien artean garraio bide bat eraikitzeko.

Oharra: "Erbusterako bidea" atal honetan adierazitako datu batzuk Guía del Mundo 2003-2004. *El mundo visto desde el Sur* argitalpenetik atera dira. Begiratu interneten: <http://www.guiadelmundo.org.uy>

Helburuak:

- Herrien Auzitegi Iraunkorra zer den bizitzea, eta haren helburuak eta jarduteko modua zein diren ezagutzea.
- Tibeten eta Txinaren arteko gatazkan esku hartzen duten alderdiak zein diren identifikatzea, eta bakoitzak duen zereginaz jabetzea.
- Auzitegi batek jarduteko duen moduarekin trebatzea.
- Bete behar duzun zereginen kokatzen eta hura defendatzen ikastea.
- Eztabaidaren gaiari buruzko gogoeta egitea.

Aurkezpena:

1992ko azaroaren 16tik 20ra, Estrasburgon bildu zen **Herrien Auzitegi Iraunkorra** (governuz kanpoko erakundea, herri eta gobernuen arteko auzietan epaia ematea duena helburu), Tibeteko egoeraz eztabaidatzeko.

Testigantza ugari izan ziren, eta horietatik eratorritako agiriak zehatz aztertu zituzten; horrez gain, Tibetek nazio edo estatutzat jotzeko beharrezko diren baldintzak betetzen zituela egiaztatu zuten (lurraldea eta bertako biztanleak izatea, moneta eta hizkuntza berezi-

tuak izatea, administrazio egitura eta komunikazio sistema antolatua izatea). Beraz, horren ondorioz, Herrien Auzitegi Iraunkorrek honako epai hau eman zuen: tibetarrak autodeterminazio eskubidea ukatu zaie, 1950ean txinatarrek herrialde hura indarrez hartu zutenetik.

Herrien Auzitegi Iraunkorraren epaia ez da loteslea lege esparruan, baina gomendio gisa balio izaten du gatazka jakin batean nazioarteko laguntza lortzeko. Horregatik da garrantzitsua auzitegi hori biltzea eta bere ondorioak ematea.

Jardueraren deskribapena:

Jarduera horretan Herrien Auzitegi Iraunkorraren bilkura baten itxura egingo dute ikasleek, tibetarren eta Txinako gobernuaren arteko arazoa eztabaidatzeko.

Jardueraren hasieran ikasleak sei taldetan banatuko dira. Lehenengo lau taldeek gatazkan esku hartzen duten alderdi bakoitza ordezkatzeko dute (erbestean dagoen Tibeteko gobernuak, Giza Eskubideen Nazioarteko Elkarteak, Herrien Auzitegi Iraunkorrari laguntzeko Euskal taldea eta Txinako gobernuaren ordezkariak); gainontzeko biak Herrien Auzitegi Iraunkorra eta gertakarien berri emateko ardura izango duten komunikabideak izango dira. Gura izanez gero, bi talde gehiago ere egin daitezke: presio talde bat eta ikuskatzaileen taldea. Presio taldeak (adibidez: elkartasunaren aldeko plataforma bat) auzitegitik kanpo jaso beharko du gertakarien berri, kaleetan manifestazioak egin, adierazpenak irakurriko ditu eta komunikabideen arreta bereganatzen saiatuko da. Begirale taldeak ez du zuzenean esku hartuko jardueran, eta oharrak hartuko ditu jardueran zehar esaten direnen, gatazkan eta egoeren gainean. Ondoren, jokoa amaitu osteko eztabaidan adieraziko du zer jaso

duen. Jardueraren ardura izango duen irakasleak ere zeregin hori izan dezake.

Talde bakoitzak berari dagokion auziari buruzko informazioa jasoko du, auzian duen rolaren arabera. 20 minutu izango ditu talde bakoitzak Auzitegiaren aurreko defentsa prestatzeko. Bien bitartean, Herrien Auzitegi Iraunkorrek eskura duen informazioa irakurriko du eta jakinarazpenen ardura duen taldea auzi horretako alderdiekin batzartuko da.

Prestaketa tarte hori igaro ondoren, Herrien Auzitegi Iraunkorrek alderdi guztiei egingo die dei, horiek esateko dutena entzuteko. Auzitegiak emango du beti hitza. Taldeek ez dute elkarren artean eztabaidatuko.

Azkenean, batzuen eta besteen argudioak entzun ondoren, Auzitegia bakarrean bilduko da erabaki bat hartzeko; horren ostean, aretora itzuliko da epaiaren berri emateko.

Auzitegiaren prozesua amaitu ondoren, jarduera hori bukatutzat joko da eta azken eztabaidari ekingo diote ikasleek.

Beharrezko materiala:

- Gela handi bat, eta mugitzeko moduko aulkiak.
- Oholtza bat edo leku garaia goa Auzitegiarentzat (ahal bada).
- Aulki bat bakoitzarentzat, mahai handiago bat Auzitegiako kideentzat eta mahai txiki bana taldeentzat. Mahai gainean taldea identifikatzeko txartela jarriko dute.
- Arbelak eta klarionak.
- Talde bakoitzaren rolari buruzko orrien fotokopiak.
- **Herrien Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren** fotokopia bat, liburu honetako 76. eta 77. orrialdeetan aurkituko duzuen, eta taldeak bere mahaiaren aurrean jarriko duena, Auzitegia erabakia hartzeko biltzen den bitartean.

Denbora:

Jarduera horren iraupena aldakorra izan daiteke, jokoan aritzeko daukagun denboraren eta ikasleak jokoaren dinamikan sartzeko duen joeraren arabera izango da. Edonola ere, gutxienez 30 minutu iraungo duela aurreikusi behar dugu, eta ordu bete izatea ere gomendagarria da.

Honela banatuko dugu denbora:

- 5 minutu: aurkezpena, taldeak banatu eta bakoitzari bere rola emateko.
- 20 minutu: taldeko lana, Auzitegiaren aurreko defentsa prestatzeko.
- 15 minutu: talde bakoitzak bere defentsa aurkezteko.
- 5 minutu: Auzitegiak epaia erabakitzeko denbora (ateak itxita).
- 5 minutu: Auzitegiak bere epaiaren berri emateko.
- 10 minutu: azken eztabaida egiteko.



Herrien Auzitegi Iraunkorrari laguntzeko Euskal Taldea.

Zuen taldeak izango du tibetar herriaren auzia Herrien Auzitegi Iraunkorraren aurrean aurkezteko aurdura. Auzia hasi ondoren, argudioak emango dituen lehenengo taldea izango zarete. Txinako gobernuaren aurka-ko salatzaileak izango zarete.

Prestatu zuen aurkezpena eta azalpena orri honetan duzuen informazioa eta ikasleen liburuarekin lan eginez ikasi duzuen oinarri hartuta.

1949an, txinatar armadak Tibet indarrez hartu zuenean, 6 milioi biztanle ziren eta herrialde horrek baldintza guztiak betetzen zituen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera estatu independente eta subiranotzat jo zezaten (lurralde zehatza zuen, lurraldean bertan bizi ziren biztanleak eta nazioartean esku hartzeko gaitasuna zuen gobernu bat ere bai). Une hartan, Tibetek harreman diplomatikoak zituen Nepal, Bhutan, Britainia Handia eta Indiarekin.

Hona hemen nazioartean jardun zela eta Tibetek kanpo politika gaietan bere burua definitzeko gaitasuna zuela

frogatzekoa: bi mundu gudetan neutral irauteko erabakia hartu zuen, nahiz eta Britainia Handiaren, AEBen eta Txinaren presioa jasan zuten; izan ere, estatu horiek beren armak igaro nahi zituzten tibetarren lurretatik, Japoniak Myanmarreko (lehenengo Birmania) igarobidea blokeatu zuenean.

Tibetarrek ez dute sekula beren burua txinatartzat jo, eta txinatarrek ez dituzte inoiz Txinako herritartzat hartu. Beti izan dute nazio desberdinak direlako sentimendua.



Txinako gobernuaren ordezkariak

Zuen taldeak Txinako gobernuaren ordezkariak du auzi honetan. Izan ere, Herrien Auzitegi Iraunkorra biltzen denean, salaketa jaso duena ez da sekula auzitegiaren aurrean agertzen, besteak beste, lehenago aipatu dugun legez, Auzitegi horrek ez duelako aginterik inongo gobernu bere aurrean agertu eta defenda dadila behartzeko. Baina honako hau simulazio bat da eta zuen defentsa beharrezkoa da.

Ondoren, Auzitegiaren aurrean egingo duzuen defentsa prestatzen lagunduko dizuen informazioa aurkituko duzue. Lanean zabiltzatela, ikasleen liburuan aurkitu dituzuen beste argudio batzuk ere gehitu ditzakezue. Zuen ardura da, Txinak 1950etik hona Tibet eskuratu izana justifikatzea.

Historikoki, ordura arte Txinako lurralde autonomo bat izana zen beti Tibet. Tibeteko gobernu autonomoaren eta Txinako gobernuaren arteko harremanak onak izan dira eta oraindik ere hala dira. Historian izan diren Dalai-lamak Pekinen izan dira bisitan, Txinako gobernu zentralarekin batzartzeko.

Tibetek ez du inoiz ongi antolatutako armadarik izan. Prestakuntza eta arma ezak kanpotiko inbasioei aurre egiteko gaitasuna oztokatzen zuten. Hala ere, Txinako armadaren laguntzari esker, Tibeteko eskualdeak alboko herrialdeen erasoetatik defendatzeko eta lurralde autonomo gisa irauteko aukera izan zuen.

Bestalde, milaka urtean zehar, Tibeteko biztanleek txirotasun larria pairatu badute ere, nobleak eta eliz erakundeak bapo bizi izan dira. Monasterioetako abadeak eta nobleak eskualdeko lur guztien jabe ziren. Dalai-lamak latifundista nagusiak ziren eta fedearen botereaz baliatzen ziren herria esplotatu eta mendean izateko.

Monasterioetan, itxuraz, herriaren zerbitzurako mojak eta monjeak bizi ziren, baina horien benetako zeregina

tradizioa iraunarazi eta herritarrak mendean izatea zen. Lur azpitik mineralak ateratzea eragotzi zuten, ustiatze horien kontrolik eta meategietako jarduerak ekar lezakeen etekinik ez galtzeko. Budista ez zen eskolaren bat irekitzen zutenean, ahal zuten guztia egiten zuten itxiarazteko, mendebaldeko balioei eta aurrerapenari leihoak zabaltzea ekar lezakeelako.

Monasterioetako hezkuntza erlijiosoa zen eskaintzen zuten hezkuntza bakarra. Umeek idazki budistak buruz ikasten ematen zituzten urteak, besterik ez zuten egiten.

Eskualde hura bakartuta zegoen, munduko gainontzeko herrialdeetatik bereizita, bere jendearen ezjakintasuna eta primitibismoa ezkutatu nahian bezala. 1950ean, Erdi Aroan legez bizi ziren oraindik.

Gure gobernuak, ordea, Pekinekoak, eskolak, ospitaleak eta fabrikak zabaltu zituen; errepideak eta zubiak eraiki zituen; nekazaritza eta meatzaritza antolatu zituen, eta laguntza eman zien tibetarrei bizi zuten txirotasun egoera larritik irteteko.



Erbesteko tibetar gobernuia

Zuen taldeak Dharamsalan (Indian) den tibetar gobernuia ordezkatzuko du. Zuen gobernuiko lehendakari, eta buruzagi espiritualak ere, Dalai-lama da.

Prestatu Herrien Auzitegi Iraunkorraren aurrean tibetarren alde egingo duzuen aurkezpena, ondoren jasoko duzuen informazioaz eta ikasleen liburuarekin aritu zaretenean ikasi duzuenaz baliatuz.

1950ean Txinak indarrez hartu aurretik, Tibetek autonomia politikoa eta ekonomikoa zuen. Herrialdean lan jarduera nagusiak nekazaritza, abeltzaintza eta produktuen merkataritza ziren; inguruko herrialdeekin nekazaritza eta abeltzaintza produktuak salerosten aritzen ziren batez ere. Horiez gain, Tibetek mineral erreserba oparoak zituen (urra, kobrea, zilarra, harri bitxiak), eta arretaz ustiatzen zituen baliabide horiek.

Monasterioak eta gotorlekuak herrialde osoan zehar zeuden, eta erlijio zeregina betetzeaz gain, etsaiek eraso egiten zutenean, herritarrek babesteko ere balio zuten (bizilekuak monasterioen inguruan kokatzen baitzituzten).

Herritarrik gehienak nekazariak ziren. Herrialdean hainbat produktu ekoizten zen: laboreak, lekak, barazkiak, frutak eta arroza. Lurraldean ekoizten zutena nahikoa zen biztanle guztiei jaten emateko, eta Tibetek laboreak esportatzen zituen Txinara zein inguruko beste herrialde batzuetara. Tibetek ez dira sekula goseak egon.

Beste biztanle batzuek abereen transhumantzia zuten bizimodu, batez ere ahuntz eta jakena. Tribu talde nomadak ziren, Tibeteko goi ordokietan diren bizi-baldintza gogorretan irauteko ezin hobeto egokitutakoak. Talde horietako gizon-emakumeak zaldizko trebeak ziren benetan. Udaberrian, abere-aziendekin abiatzen ziren larre berrien bila, eta jarduera horrez baliatuta elikaduran hain

garrantzitsu diren produktuak merkaturatzen zituzten: gantza, haragia, esnea, gantza eta gazta. Ahuntzen ilea eta jaken buztanetakoa ere saltzen zuten. Produktu horien truke berek ekoizti ezin zituzten ondasunak lortzen zituzten eta, ondoren, herrialdeko beste leku batzuetan saltzen zituzten. Negua helduek, monasterioen edo herrixken inguruan biltzen ziren berriz. Talde nomada haiek Tibetek elkarrengandik urrun zeuden biztanle edo eskualdeen arteko komunikazio bitartekariak ziren. Herrialdearen ekonomian zeregin garrantzitsua zuten.

Bestetik, herrialdean bazen noblezia, herritarrei babesa emateko antolatuta eta prestatuta.

Tibet herrialde erlijiozalea da. Budismoa izan da mende askotan zehar herrialdeko eta bertako biztanleen erlijioa. Monasterioak Tibet osoan zeuden sakabanatuta, eta horien zeregina zen budismoa iraunaraztea eta tibetarren espiritualtasuna gordetzea. Monasterioetan gordetzen zituzten erlijio liburuak eta herrialdeko erlijio artelan eta literaturazkoak. Gizon eta emakume askok aukeratzen zuten monasterioan bizitzea.

Tibeteko gobernuaren egoitza Lhasan zegoen (hura zen herrialdeko hiriburua), eta honako hauek osatzen zuten: estatuburua (Dalai-lama), ministroen kontseilua, Nazio Biltzarra eta administrazio egitura zabala, tibetar lurralde osoa kudeatzeko nahikoa zena.



Komunikabideak

Zuen taldeak komunikazio agentzia bat ordezkatzuko du, eta zuen zeregina izango da tibetarren auziaren gainean Herrien Auzitegi Iraunkorrak egingo duen bilkuraren berri ematea. Informazioa jaso eta ahalik eta argien eta laburren ikus-entzule guztiei helaraztea da zuen ardura. Hori egin ahal izateko, Auzitegiaren ordezkariak dauzkaten talde guztiak elkarriketatu behar dituzue, bakoitzaren jarrera eta argudioen laburpena egin ahal izateko.

Auzitegia bakarka bilduta dagoen bitartean, auziaren laburpena egingo duzue eta Auzitegiak hartu duen erabakia adierazten duenean, epaia jakinaraziko diozue jendeari. Azkenean, talde bakoitzak Auzitegiaren epaiaz duen iritzia jaso ahalko duzue eta publikoari jakinarazi.



Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Erakundea

Zuen taldean Giza Eskubideak defendatzeko eta errespetatzeko lan egiten duen nazioarteko elkarte bateko kideak zaudete; eskubide horiek urratzen dituzten gobernu, talde eta gizabanakoak salatzea da zuen zeregina. Gaurkoan duzuen zeregina, beraz, salaketa egitea da: Txinako gobernuaren kontra arituko zarete, Tibeten giza eskubideak urratu dituelako behin eta berriz.

Herrien Auzitegi Iraunkorraren aurrean azaldu beharrekoak prestatzeko, bildu ondoren duzuen informazioa eta ikasleen liburuarekin lanean aritu zaretenean jaso duzuen.

Herrien Auzitegi Iraunkorraren aurrean azaldu beharrekoak prestatzeko, bildu ondoren duzuen informazioa eta ikasleen liburuarekin lanean aritu zaretenean jaso duzuen.

Txinak Tibet indarrez hartu zuenetik, milioi eta erdi lagun hil dira gutxi gorabehera herrialde hartan (biztanleen seiren bat). Hamarretik bat kartzelaratu egin dute. Amdo eskualdea da munduan kilometro koadroko preso gehien duena: 10 milioi preso, hain zuzen ere. Kartzeletan eta gatibu lanetarako esparruetan, ohikoa da presoak torturatzea.

1991n, txinatar kolonoak (7 milioi eta erdi gutxi gorabehera) bertako tibetarrak baino gehiago ziren (6 bat milioi lagun); egun, Txinatik etorritako jendeaz birpopulatzen jarraitzen dute Tibet.

Jaiotza kopurua kontrolatzeko politika (seme-alaba bakarra izateko aukera) zorrotz ezartzen dute Tibet. Kontrol horren ardura duten osasun arloko langileak txinatar izaten dira soilik, eta Estatuak dirusariak ematen dizkie antzuarazten dituzten tibetar emakumeen araberak. Ohikoak dira umea behartuta galaraztea, tibetar emakumeak antzuaraztea eta tibetarren umeak hiltzea.

Bi seme-alaba baino gehiago dituztenei ezartzen zaizkien zigorrak oso gogorrak dira. Bai aita bai ama isun bat ordaindu behar dute, publikoki makurrarazten dituzte eta zigor ekonomikoak ezartzen dizkiete. Hirugarren seme-alabak ez du eskubide legalik (ez dute eskolan ez lanean onartzen, ezin du bidaiarik egin, ez du razionamendu txartelik eta ez dute hiritar gisa onartzen).

Tibeten ez dago mugimendu askatasunik, ez adierazpen ez kultu askatasunik. Irakaskuntza txinera hutsean egiten dute. Ezin da inongo erlijio ekintza publikorik egin.

Txinak Tibet budismoa irakastea eta ikastea debekatu du. Monasterio, tenplu eta monumentu gehienak suntsitu edo arpilatu zituzten eta erlijio eta literatur artelanak okupatzaileek suntsitu edo saldu zituzten. Duela zenbait urtetik monasterio eta tenplu batzuk zaharberritzen ari dira, eta horrek erlijio askatasuna berreskuratu dutela pentsarazi ahal digun arren, ez da egia. Zaharberritzea turismoa erakartzeko eta Txinak nazioartean duen irudia hobetzeko egiten ari dira.

Tibeteko populazioak sarrera mugatua du eskoletan, unibertsitate zentroetan, enpresa txikietan, etab. Langabezia orokorra, gosetea, pobrezia eta marjinazioa larriagotzen ari dira. Txinatar biztanleek, diru-sari baten trukean Txinatik Tibetera etorritakoek, hezkuntza zentroetako lanposturik onenak bereganatzen dituzte, eta berdin gertatzen da enpresa eta ospitaleetan.

Tibet base militar handia bilakatu da; 300.000 soldadu txinatar baino gehiago dago eta Txinak dituen arma nuklear guztien %25 bertan daude.



Herrien Auzitegi Iraunkorra

Zuen taldeak Herrien Auzitegi Iraunkorra ordezkatzeko du; gobernu kanpoko erakundea da eta haren helburua herrien eta gobernuen arteko gatazketan epaia ematea. Egunotan, Vitoria-Gasteiz hirian bildu zarete tibetarren egoeraz eztabaidatzeko.

Beste taldeak beren salaketa edo defentsa prestatzen ari diren bitartean, zuek auzia egiteko antolatuko zarete.

Auzia izango den lekuan oholza edo leku garaien bat baldin badago, haren gainean jarriko dituzue zuen mahai eta aulkiak; horrela, besteengandik bereiziko zarete eta tarte eza izango duzue. Prestatu itzazue areto-ko gainontzekoak ere: talde bakoitzari leku bat eman eta saiatu talde guztiak zuengandik distantzia berera egon daitezen eta ongi ikus zaitzaten.

Talde guztiak prest daudenean, aurkezpena eta ongietorria egin, eta auzian jarduteko arauak gogorazi batzaren bildutako guztiei (orriaren bukaeran daukazue); ondoren, hitza emango diozue Herrien Auzitegi Iraunkorrari laguntzen dion Euskadiko taldeari, bere salaketa aurkez dezan. Horren ostean, hitza emango die-

zue gainontzeko taldeei (egoki deritzozuen hurrenkeran), eta eskatuko diezue beren burua aurkeztu dezatela lehenik eta behin, eta saia daitezela argi eta labur hitz egiten.

Talde guztiei entzun ondoren, edo talde bakoitza bere azalpena ematen ari den bitartean, edozer gai argitzeko eskatu ahal diozue; hala ere, taldeek ezingo dute elkarrekin hitzik egin.

Azalpenak amaituta, bakarka batzartuko zarete (gela itxi batean), epaia erabakitzeko. Erabaki hori zenbait gomen-diok osatuko dute. Erabakia hartu ostean, gelara itzuli eta epaia irakurriko duzue. Zuen ardura izango da, aurrekoek gain, biltzarra amaitutzat jotzea eta agur esatea.



HERRIEN AUZITEGI IRAUNKORREAN JARDUTEKO ARAUAK

- Herrien Auzitegi Iraunkorrak du aginte gorena eta errespetatua izan behar du.
- Auzitegiak emango ditu hitz egiteko txandak. Auzian dauden alderdiek ez dute inola ere hitza hartuko Auzitegiak baimenik eman ez badie.
- Auzitegia arduratuko da talde bakoitzak bere argudioak azaltzeko denbora tarte berdina izateaz.
- Taldeek ez dute elkarren artean eztabaidatuko. Edozeren berri emateko Auzitegiari jakinaraziko zaio, eta sekula ez talderen bati edo talde guztiei.
- Ezin da indarkeria fisikorik edo ahozko indarkeriarik izan, auzia gauzatzen ari den bitartean.
- Auzitegiak eskubidea izango du taldeei hitza ukatzeko, arauak urratzen badituzte, luzaroan hitz egiten badute edo egoera horretan egoki ez diren hitzak esan edo keinuak egiten badituzte.
- Egoki irizten badu, Auzitegiak aretotik bota ditzake arauak urratzen dituzten gizabanakoak edo taldeak.

**I. ATALA:
IZATEKO ESKUBIDEA**

1. artikulua

Herri orok du izateko eskubidea.

2. artikulua

Herri orok du bere nazio eta kultur nortasuna errespetatua izateko eskubidea.

3. artikulua

Herri orok du bakez bere lurraldearen jabe izateko eta kanporatu izanez gero, bertara itzultzeko eskubidea.

4. artikulua

Inor ezin liteke, bere nazio edo kultur nortasuna dela kausa, eraila, torturatua, jazarria, deportatua edo herritik kanporatua izan. Horrezaz gain, ezin daiteke norbera kide den herriaren nortasuna edo osotasuna arriskuan jarriko duten bizi-baldintzen menpean ego-tera behartu.

**II. ATALA:
AUTODETERMINAZIO POLITIKOA
IZATEKO ESKUBIDEA**

5. artikulua

Herri orok du autodeterminazioa izateko eskubide ezinbestekoa. Herriak zehaztu behar du bere estatus politikoa, askatasunez eta besteren esku hartzerik gabe.

6. artikulua

Herri orok du eskubidea zuzenean edo zeharka men-dean duen aginte kolonial edo atzerriko ororengandik askatzeko, eta erregimen arrazista guztietatik libratzeko.

7. artikulua

Herri orok du eskubidea erregimen demokratiko bat izateko; etnia, sexu, sinismen edo azaleko kolorerik bereizi gabe herritar guztien ordezkari izango dena, eta guztion giza eskubideak eta oinarritzko askatasuna benetan errespetatuak izango direla bermatzeko gai izango dena.

**III. ATALA:
HERRIEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK**

8. artikulua

Herri oro da bere aberastasun eta naturako baliabi-deen jabe bakarra. Eskubidea du, indarrez ebatsi badizkiote, haiek berreskuratzeko; eta, horrez gain, eskubidea du bidegabeki ordaindu zaizkion kalte-ordainak osorik jasotzeko.

9. artikulua

Zientzia eta teknika arloko aurrerapenak gizadiaren ondare komuna dira; beraz, herri orok du horiez gozatzeko eskubidea.

10. artikulua

Herri orok du bere lanaren ordain zuzena jasotzeko eskubidea, eta nazioarteko trukeak berdintasunaren eta zuzentasunaren arabera egitekoa.

11. artikulua

Herri orok du eskubidea berak aukeratzen duen gizarte eta ekonomia sistema izateko, eta garapen ekonomikorako norbere bidea jarraitzeko, askatasun osoz eta besteren esku sartzerik gabe.

12. artikulua

Lehenago aipatutako eskubide ekonomikoak elkarta-sun gogoz ezarri behar dituzte munduko herriek, bakoitzaren interesak kontuan izanik.

**IV ATALA:
KULTURA IZATEKO ESKUBIDEA**

13. artikulua

Herri orok du eskubidea bere hizkuntzan hitz egiteko, bere kultura garatu eta zaintzeko eta, horrela, giza-diaren kultura aberasten laguntzeko.

14. artikulua

Herri orok du eskubidea bere ondasun artistikoak, historikoak eta kulturazkoak izateko.

15. artikulua

Herri orok du eskubidea inork atzerriko kulturarik inposatu ez diezaion.

V. ATALA:
INGURUMENAZ ETA BALIABIDE KOMUNEZ
GOZATZEKO ESKUBIDEA

16. artikulua

Herri orok du eskubidea bere ingurumena gorde, zaindu eta hobetzeko.

17. artikulua

Herri orok du eskubidea gizadiaren ondare komuna erabiltzeko: itsaso zabala, itsasoaren hondoa eta atmosferaz haraindiko espazioa, esaterako.

18. artikulua

Aipatutako eskubideak erabiltzean, herri orok izan behar du kontuan beharrezkoa dela bere garapen ekonomikoa eta munduko herrien arteko elkartasuna koordinatuak izatea.

VI. ATALA:
GUTXIENGOEN ESKUBIDEAK

19. artikulua

Herri bat minoritarioa baldin bada estatu baten barnean, eskubidea du besteek bere nortasuna, ohiturak, hizkuntza eta ondare kulturala errespetatu dezaten.

20. artikulua

Gutxiengoaren kide diren pertsonen estatuko gai-nontzeko herritarrek dituzten eskubide berak izan behar dituzte, inolako bereizkeriarik gabe, eta horien moduan hartu behar dute esku bizitza publikoan.

21. artikulua

Eskubide horiek komunitate osoaren bidezko interesak errespetatuz erabili behar dira, eta ez da baime-nik emango estatuaren lurralde osotasunaren eta batasun politikoaren aurkako erasorik egiteko, estatuak adierazpen honetan jasotako printzipioen ar-bera jokatzeko baldin badu.

VII. ATALA:
BERMEAK ETA ZIGORRAK

22. artikulua

Adierazpen honetan jasotako xedapenak ez betetze-ak, nazioarteko erkidego osoarekiko betebeharrak urratzea dakar.

23. artikulua

Adierazpen hau urratzeagatik eragindako kalte oro, osorik ordaindu beharko du arau hausleak.

24. artikulua

Herri baten kalterako aberaste orok, adierazpen honetan jasotako xedapenak urratzetik etorritz gero, lortutako etekinak itzultzeraz behartuko du arau haus-lea. Zigor berdina ezarriko zaie, atzerriko inbertsioen ondorioz jasotako etekin gehiegizkoei.

25. artikulua

Herrien oinarritzko eskubideak gutxietsiz sinatutako hitzarmen, akordio edo kontratu oro, baliogabea izango da.

26. artikulua

Ezingo da eskatu herrientzako gehiegizko edo jasane-zin bilakatu den kanpoko finantza zamarik ordaintzea.

27. artikulua

Herrien funtsezko eskubideen aurkako eraso larrie-nak, batez ere izateko eskubideari egiten zaizkionak, nazioarteko krimen izango dira, eta horien eragileak zigor erantzukizuna izango dute.

28. artikulua

Beren eskubideak larriki gutxietsiak dituzten herriek eskubidea dute politika edo sindikatuen borrokaren bidez eskubide horiek baliarazteko; eta, azken neurri gisa, indarraz baliatzeko eskubidea ere izango dute.

29. artikulua

Herriak askatzeko mugimenduek nazioarteko era-kundeetarako sarbidea izan behar dute, eta borrokan dihardutenek eskubidea dute gudaren eskubide humanitarioaz babestuen izateko.

30. artikulua

Herri baten funtsezko eskubideak larriki gaitzesten direnean, nazioarteko erkidegoak horiek berrezar-tzeko eginbeharra dauka.

Jokoaren helburuak:

- Norberak bizitza zer sentitzen den leku berri batera heltzean, hau da, norberarena ez den kode batez jarduten duen leku batera ailegatzean.
- Norberak izatea talde batean sartu nahi eta baztertua izatearen bizipena; inolako azalpenik gabe eta zergatik ez zaituzten onartzen jakin gabe bizitza.

Jardueraren deskribapena

Lau edo bost ikasleri eskatuko zaie gelatik ateratzeko. Gainontzeko ikasleek sei edo zazpi talde osatuko dituzte. Talde bereko kideek ezaugarri komun bat izan behar dute, begi-bistakoa izango ez dena. Adibidez: galtzerdien kolorea, adina edo urtebetetzea ospatzen duten hilabetea, ilearen kolorea edo luzera, begien kolorea, nahi edo gogo bertsukoak izatea eta abar. Talde bakoitzak irizpide edo ezaugarri bat izango du lotura.

Taldeak osatu ondoren, kanpoan daudenak gelara sartu eta taldeetako baten kide egin behar dira. Hori egiteko, ikasle bakoitzak talde batera hurbildu eta bertako kide izateko baimena eskatu behar du. Talde horrek onartu edo arbuiatu egingo du: baimena eska-

tzen duen lagunak taldeko gainontzeko kideen ezau-garria duen ala ez izango da irizpidea. Taldeak bai ala ez erantzungo dio, eta ez dio bestelako azalpenik emango.

Taldeak ezezkoa ematen badio, atzerritarrek beste talderen baten saiatu beharko du; hala jokatu du, talderen batek onartu arte edo zergatik ez duten onartzen asmatzen duen arte. Jokoa noiz amaituko den: atzerriko guztiek talderen batean sartzea edo onartuak ez izateko arrazoia asmatzen dutenean.

Egoki iritziz gero, berriz joka daiteke. Ondoren, eztabaida egingo dute ikasle guztiek jokoari buruz.

Denbora:

- 15 minutu jokoa egiteko eta beste 15 minutu eztabaidatzeko.

Materiala:

- Leku zabal bat, talde bakoitza kokatu ahal izateko.

Ondoren, eztabaidarako zenbait gai proposatuko dizkizuegu. Aukera daukazue horiek fotokopiatu, moztu eta elkarrekin eztabaidan hasi aurretik banatzeko:

**Atzerritarrena egin dutenentzat:**

- Zer sentitu duzue taldeak azalpenik eman gabe arbuiatu zaituztenean?
- Zaila izan al da zergatik nahi ez zintuzten asmatzea?
- Zein jarrera izan du arbuiatu zaituzten taldeak: pozik izan dira, gaitzetsi egin zaituzte, atseka-betuta ala axolagabe geratu dira...?

**Taldeentzako galderak:**

- Zer sentitu duzue, zuetako bakoitzak eta taldeak osoan, atzerritar bat inolako azalpenik gabe arbuiatu ondoren?
- Zein jarrera hartu du baztertu duzuen pertsonak: axolagabe jokatu du, ez du ulertu, frustrazioa sentitu du...?

**Ikasgelako guztientzako galderak:**

- Gai al zarete errealitatean jokoan gertatu direnen antzeko egoerak identifikatzeko? Zein dira?
- Lagundu al dizue zuen buruak atzerritar eta baztertu ikusteak errefuxiatuek sentitzen dutena ulertzeko?, hau da, beste lekutakoak izanik, herria atzean utzi eta gizarte desberdin batean integratu behar dutenek sentitzen dutena ulertzeko?

Helburuak:

- Ikasleei errefuxiatuen egoeraz kontzientzia harraraztea: guztia atzean utzi (aldi baterako bada ere) eta herrialdeko edo atzerriko beste lekuren baten babesela bilatu beharra.
- Errefuxiatuen artean ahulen diren kolektiboak identifikatu eta errefuxiatu bilakatzean zein zailtasun bizi duten konturatzeko.
- Taldean eztabaidatzen eta erabakiak elkarrekin hartzen ikastea.
- Batzar baten esku hartzen jakitea.

Jardueraren deskribapena

Hona hemen **Errefuxiatuen** rol jokoaren helburua: egun, munduan milioika lagunek bizi duten egoera agerian jartzea. Errefuxiatuek nahitaez utzi behar izaten dute daukaten guztia, gehienbat gatazka politikoak direla medio, eta beren ohiko inguruetik kanpo bilatu behar izaten dute babesela, beren herrialdean zein atzerrian. Sarri, ihesaldiak izaten dira, zer eraman erabakitzeko astirik gabe, nora joan ere jakiten ez dutela...

Jokoa antolatzeko ikasleak bost taldetan banatuko ditugu. Talde horietako bakoitzak errefuxiatuen sektore bat ordezkatzeko du. Talde bat adinekoek osatuko dute (hirugarren adinekoak), bestea nerabeek, beste bat elbarritasunen bat dutenak, beste bat umeek eta azken gurasoen taldea izango da.

Talde bakoitzak hiru orri jasoko ditu: rol-orri bat nor ordezkatzeko duten azaltzeko, beste bat jarduera hasteko zein egoera bizi duten azaltzeko eta, azkenik, galdera orri bat, bizi behar duten egoeraz eta ordezkatzeko duten gizarte sektoreaz jabetu ostean erantzun dute. Oso garrantzitsua da talde bakoitzak bere rola hartzea eta horrekin ahalik eta gehien bat egitea.

Taldeko kideak egin dizkieten galderari zer erantzun adostu ondoren, taldeko kide bat aukeratzeko dute azken batzarrean ordezkari izateko; horrez gain, zerrendako azken galderaren erantzuna gauzak batzeko paper batean idatzi (letra handiz) eta horman zintzilikatzeko dute.

Azkenik, talde guztiak batu eta batzarra egingo dute: talde bakoitzak bere egoera emango du aditzera eta galderari eman dizkieten erantzunak azalduko ditu. Bukatzeko, irakasleak edo jokoen dinamizatzaileak honako hau zehazten lagunduko die hurrei: errefuxiatu bilakatzen direnek zein zailtasun gehiago izaten duten; hau da, jokoa egin diren taldeek ordezkatzeko duten benetako jendeak zer zailtasun duen zehaztea.

Ikasleen inguruan bizi den errefuxiatu bati galdegin dakioko jokoa lagun izan nahi duen, eta bere bizipena azal dezan. Bestela, gaiari buruzko bideoren bat ere erabili dezakezue.

Denbora:

- Jokoak 45 minutu eta ordubete bitarte iraungo du.

Materiala:

- Hasierako egoeraren eta talde bakoitzak erantzun behar duen galderetako baten fotokopia.
- Rol jokoaren fotokopia bat talde bakoitzarentzat.
- Idazteko papera.
- Talde bakoitzarentzako boligrafoak edo arkatzak.
- Batzeko papera.

² Service Civil International-eko Crossing Bordes. International refugee campaign materialetik itzuli eta egokitutako jolasa. Ikus bibliografia.



Jokoaren hasierako egoera

(Egoera berbera talde guztientzat)

(Taldekide batek ozen irakurriko die testua taldekide guztiek)

Mundu guztiak izan du noizbait errefuxiatuen berri: entzun egin dute, irudiak ikusi dituzte telebistan, egunkarietan edo historia liburuetan irakurri dute. Edonola ere, errefuxiatuen arazoa urrun geratzen zaigu, antza. Eman dezagun, goizetik gauera, zuok bilakatzen zaretela errefuxiatu.

Igandea da gaur. Afaldu duzue eta telebista ikusten ari zarete guraso eta anai-arrebekin. Nahiko film ona ari dira ematen. Gau hotza da, eta pizturik daukazue etxeko argia.

Bat-batean, telebista saioa eten eta emakume bat ateratzen da honako hau jakinarazteko:

“Estatu kolpea izan da eta beste gobernu batek hartu du herrialdearen buruzagitzat. Segurtasun neurriak direla eta, hiriko auzo jakin batzuetan bizi den jendeak hiriko beste leku batzuetara edo beste etxe batzuetara joan behar du babes bila. Auzo horietan bizi diren guztiek alde egin behar dute eta horretarako bi orduko epea dute. Bi ordu horiek igarota, auzotik alde egin ez dutenen kontra tiro egiteko agindua emango dute agintariek. Garraio publikoa zein pribatua galarazi dute. Auzoetatik eta guneeetatik irteteko bide bakarra oinez joatea da...”

Telebistan behin eta berriz ematen dute mezu hori.

Zuen taldea aginduan aipatutako auzoetako batean bizi da. Zuen auzokoetako bat galdezka etorri zaizue, ea zuen etxean ere telebista esandakoa entzun duzuen. Oso urduri daude denak. Hiriaren gainetik hegaz ari diren helikopteroak entzuten hasi zarete.



Taldeentzako galderak

(Galdera berberak talde guztientzat)

1. Zer hartuko zenukete etxetik joan behar eta bi orduko epea besterik ez bazenute izango?
2. Nora joango zinatekete? Zeinek hartuko luke zuen ardura?
3. Zer gauza uztea emango lizuke min gehien?
4. Zuen ustez, zer gertatuko litzateke zuen etxeekin?
5. Ihesean joateko prestatzen ari zaretela, egin gogoeta zuen etorkizunaz. Jaso une horretan daukazuen bi kezka eta bi gurari edo itxaropen.

Taldeentzako rola

(Moztu paper hauek eta talde bakoitzari bana eman).



- Saiatu imajinatzen adinekoak zaretela (hirugarren adinekoak). Jokoaren hasierako egoera irakurri eta galderari erantzuteko, zuen egoeran dauden adinekoak zaretela pentsatu.



- Saiatu imajinatzen nerabeak zaretela. Jokoaren hasierako egoera irakurri eta galderari erantzuteko, zuen egoeran dauden nerabeak zaretela pentsatu.



- Saiatu imajinatzen elbarritasunen bat duzuela. Jokoaren hasierako egoera irakurri eta galderari erantzuteko, zuen egoeran dauden elbarriak zaretela pentsatu.



- Saiatu imajinatzen umeak zaretela. Jokoaren hasierako egoera irakurri eta galderari erantzuteko, zuen egoeran dauden umeak zaretela pentsatu.



- Saiatu imajinatzen senitartekoak zaituen beharra duten gurasoak zaretela. Jokoaren hasierako egoera irakurri eta galderari erantzuteko, zuen egoeran dauden gurasoak zaretela pentsatu eta seme-alabak daukazuela.

Bibliografia

Liburuak

Alexandra David-Néel: *Viaje a Lhasa*, Bartzelona: Indigo, 1989.

Allione, Tsultrim: *Mujeres de sabiduría*, Bartzelona: Los libros de la liebre de marzo, 1990.

Avedon, John F.: *In exile from the Land of Snows*, Londres: Wisdom Publications, 1985.

Bishop, Isabella: *Viaje al pequeño Tíbet*, Bartzelona: Laertes, 1991.

Bokar, Rimpoche: *La Iluminación del budismo: toda la tragedia del Tíbet*, Bartzelona: Noguer, 1990.

Dalai-Lama: *Libertad en el exilio*, Autobiografía.

Fibra, M. Luisa: Bafa Bafa in *Técnicas de grupo para la cooperación*, Bartzelona: CEAC, 1994.

Gyatso, Tenzin (XIV. Dalai-lama): *Mi vida y mi pueblo*, Bartzelona: Noguer i Caralt, 1990.

Gyatso, Palden (Monje tibetarra): *Fuego bajo la nieve*. Madril, Suma de Letras, 2002.

Harrer, Heinrich: *Siete años en el Tíbet*, Bartzelona: Juventud, 1983.

Heinz, E.R. Martin: *El arte tibetano*, Bartzelona: Alarcón, 1996.

Heinz, E.R. Martin: Himalaya, "Cielo en la tierra", *Altair* 2, 1991ko udazkena, Bartzelona: OASIS, 1991.

Instituto del Tercer Mundo: *Guía del Mundo 2003-2004. El mundo visto desde el Sur*. Instituto del Tercer Mundo / Iepala / Fundación Santa María, 2003.

Juan Pedro: *Tíbet, Revuelta, Revuelta*, Bartzelona: Alarcón, 1996.

Juan Pedro: *L'art sagrat del Tibet: sabuesa i compassió*, Bartzelona: Fundació "La Caixa", 1996.

Mackenzie, Vicki: *Reencarnación: el caso del niño lama*, Madril: El País Aguilar, 1989.

Muntaner, Anna: *A l'ombra del Xomolungma* 110, Bartzelona: Columna Edicions, Columna Jove, 1997. Elaberria lantzeko jarduerak in Columna Jove Guía de lectura. Gelan egiteko jarduera proposamenak edota ebaluazioa, 185-198 orr.

O'Connor, W.F.: *Folk Tales of Tibet*. New Delhi, India: Sterling Publishers, 1983.

Prats, Ramon N.: *Espai i symbol en l'art oriental*, Bartzelona: Onda, 1986.

Ricart i de Mesones, Antoni: *Qomolangma assalt a l'Everest*, Bartzelona: Onda, 1986.

Taring, Rinchen Dolma: *Hija del Tíbet*, Bartzelona: Mondadori, 1992.

Aldizkariak eta bestelako dokumentuak

Prats d'Alós-Moner Ramón: *Aproximació al Tibet*: Pompeu Fabra Unibertsitatean emaniko mintegia, 1994.

Goldstein M. i Beall C.: "The remote world of Tibet's Nomads", *National Geographic*, 1989ko ekaina, 175 liburukia, 6. alea, 752-281 orr., Washington (AEB), 1989.

Saéz Lasheras, Armando: "Tíbet, historia de una invasión", *Tiempo de paz* 34-35, Tardor, Madril: TP, 1994.

Bautista-Cerro Ruiz, María José: "Tíbet, el conflicto ignorado", *Papeles* 61, Madril, Centro de Investigación para la Paz, 1997.

Crossing Borders. International refugee campaign. A solidarity and public awareness raising campaign by Service Civil International. Resource Pack, Anberes, Belgika, SCI-SEED, 1997.

"La población refugiada del Món", Credit Variable, *Quadern i guia*, BCN, Intermón eta Octaedro, 1994.

Los refugiados en España, Madril: INSERSO/IEPALA, 1994.

Levenson, Claude B.: "Popoli e minoranze asiatici", *Orizzonti nord sud*, Lugano, Collana di dossier pedagogici, Serie Asia, 1993.

Rodríguez, Marisol: "Tíbet. Una ocupación consentida por la economía de mercado", documentu elektronikoa, 2003ko urria: http://www.ieceah.org/espanol/globaliza/conflicto/art_Tibet.htm

Tibet News, The Newsletter of the Tibet Information Office for Australia, New Zealand and South East Asia. Australiako Tibeti buruzko informazio bulegoaren informazio orri bat da.

Tibetan Bulletin, The official journal of the tibetan Administration. Erbestean den Tibeteko administrazioaren egunkaria, Dharamsala, India.

Bideoak eta erakusketak

Refugiats, coneixeu-los herriz herriko erakusketa. SCI Catalunya nazioarteko zerbitzu zibilaren materiala da, Crossing Borders 1997, Nazioarteko Zerbitzu Zibilaren nazioarteko kanpainaren esparruan eginikoa. Jokoa den erakusketa bat da errefuxiatuek bizi duten egoera ezagutarazteko helburua duena. Erakusketa horrek 12 edo 13 taula dauzka eta mailuegun uzteko eskatu ahal zaio SCI erakundeari.

Nepal/Tíbet la montaña sagrada, ENREG.VÍDEO S.A.V., 1997.

Un llarg camí (gutxi gorabehera 17 minutu irauten du), Bartzelona: Intermon, 1994.

Petit Buda, Bernardo Bertolucci (gutxi gorabehera 142 minutu irauten du), Lauren Films, etxerako bideoa, 1993.

Posta-helbide eta helbide-elektroniko interesgarriak

Errefuxiatuen aldeko Elkartasun eta Laguntzarako Kataluniako Elkartea (ACSAR).

Paral•lel etorbidea, 202, 08015 Bartzelona.
Telefonoa: 93 423 78 28 / 93 423 98 25

Tibeten Etxea

Sant Joan pasealekua, 104, 2n 2., 08037 Bartzelona.
Telefonoa: 93 207 59 66. Laster, helbide honetara joango dira: Rosselló kalea, 181 08036-Bartzelona (Muntaner eta Aribauern artean). web orria: <http://www.casadeltibetbcn.org/principal.html#>

Canada Tibet Committee

Bulego Nazionala.
E-mail: cantibet@tibet.ca

Comité de apoyo al Tibet

Costa Rica kalea, 11 (1. solairua, A-25), Madril.
Telefonoa: 91 350 24 14.
E-mail: tibetcat@teleline.es
web orria: <http://welcome.to/tibetspain>

Cuervo Blanco

Gaika antolatutako web orrien aurkibidea da.
web orria: <http://www.cuervoblanco.com/>
Hain zuzen ere, helbide honetan aurki ditzakezu Tibeti buruzko lotura interesgarriak:
<http://www.cuervoblanco.com/Tibet.html>

Free Tibet

E-mail: Tibet@ManyMedia.com

Herrien Eskubideen Aldeko Liga

Ca l'Estruch. San Isidro kalea, zg, 08200 Sabadell.
Telefono eta fax zenbakia: 93 723 71 02
E-mail: lliga@pangea.org

Sant Francesc Kultur Etxea. Espi i Grau kalea 1, 08400 Granollers.

Kataluniako Nazioarteko Zerbitzu Zibila

Carme kalea 95, etxabea, 2. solairua, 08001 Bartzelona. Telefonoa: 93 441 70 79, faxa: 93 441 70 18

Tibet Information Network (T.I.N.)

7, Bank Road. Londres, E8 4RE. Ingalaterra.
E-mail: tin@gn.apc.org

Tibet Information Office

ACFOA House, 14 Napier Close, Deakin, ACT 2600, Australia. Editor de Tibet News.

Tibet On Line

Tibet On Line: Tibet Support Group taldearen web orria; hainbat informazio, artikulua, baliabide eta lotura interesgarri eskaintzen ditu.
<http://tibet.org/Resources/TSG/Groups/>



BHUTAN

Aurkezpena

Bhutani buruzko materialaren helburua da ikasleei ezagutaraztea Asian den herrialderik txiki eta ezezagunenetako bat, baina aldi berean interesgarria dena oso. Bhutan Himalaia aldeko herrialdeetako bat da, eta alboan duen Nepalekin konparatuta, ingurumena gehiago errespetatzen duen turismo garapenerako eredua aukeratu du. Hala ere, beherago ikusiko dugun legez, herrialde horren turismo eskaintza erabat elitista da. Bhutani buruzko materialan gai horri buruzko aipamenak jaso ditugu, baina lanerako gai nagusiak dira budismoa, monasterio budistetako bizimodua eta budismoa estatu erlijio gisa.

Irakasleentzako liburuan Bhutanen historiari eta egungo gizarte eta politika egoerari buruzko informazioa dakar.

Bestetik, ikasleentzako liburuan proposatzen diren jarduerak gauzatzeko beharrezko informazioa dago, ikasleek zailtasunik gabe bete ditzaten jartzen zaizkien helburuak.

BHUTANI BURUZKO PROGRAMAZIO-ORRIA						
Programazio unitatea	Edukiak		Ikasteko jarduerak	Ebaluazio jarduerak	Behar den denbora	Adinen araberako orientabidea
	Gertaerak eta kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak, balioak eta arauak			
Bhutan	Geografia (hiru eskualde) Historia Ekonomia Turismoa Budismoa: ezaugarri nagusiak, Bhutaneko estatu erlijioa. Ume monje baten bizimodua.	Kronologia egitea. Idatzizko dokumentuak interpretatzea. Sintesiak egitea. Mapen iruzkina egitea. Lan monografikoak. Mozorro bat egitea.	Etorkinekiko elkartasun jarrera. Jarrera kritikoa. Bizikidetzat ontzat jotzea. Bhutaneko turismo ereduaren balorazio kritikoa egitea.	1. fitxa 1 (banaka) 2 (banaka) 3 (banaka) 4 (banaka) 2. fitxa 5-6 (taldeka) 7 (taldeka) 3. fitxa 8-11 (banaka) 12-13 (banaka) 14-16 (banaka) 17-23 (banaka) 24 (taldeka)	5' 10' 10' 5' 10' 5' 20' 15' 20' 30' 15-30'	12-14 14-16 12-16

* Budismoari buruzko lanaren osagarri, eta monasterio budistetan bizi diren umeen bizimoduaz jabetzeko, Buda Txikia izeneko bideo-flima ikustea gomendatzen dizuegu. Filmaren egilea Bernardo Bertolucci da, eta bibliografian daukazue haren berri.

Historia

(informazioa zabaltzeko)

1. Dokumentua:

Jatorrietatik gaur egunera arte

Bhutanen jatorri historikoa lausoa da. Egun Bhutan ize-
nez ezagutzen dugun herrialdeari buruzko lehenengo
idatzizko aipamenak, VII. mendeko tibetar idazkietan
aurkitu daitezke. Testu haiek **Hegoaldeko Haranak**
aipatzen zituzten (horixe da egun Bhutan izenez eza-
gutzen duguna).

Geroago, VIII. mende inguruan, Tibeteko Pad-
masambhava santua, Guru Rimpoche (maisua benetan
agurgarria) izena ere jaso zuena eta Nyingmapa budis-
mo eskolaren sortzaile zena, Bhutanen izan zen bisi-
taldia egiten eta erlijio hura hedatu zuen.

IX. eta X. mendeetan Tibeteko errege Langdarma
budisten aurkako zela salatu eta hil egin zuten. Hura
hiltzean, Tibeteko monarkia jausi eta herrialdea egon-
kortasunik gabeko aldi batean sartu zen. Egoera har-
tan, herritar asko Hegoaldeko Haranetara (Bhutanera)
abiatu zen babes bila, eta han praktika erlijioso budis-
tei ekin zieten berriz. XI. mendean, Tibetetik abiatuta
budismo eskola desberdinetako predikariak heldu
ziren. Horietako asko Bhutaneko emakumeekin ezkon-
du ziren edo eskualdeetako agintariekin itunak egin
zituzten. Horren ondorioz sortu zen egun Bhutan ize-
naz ezagutzen duguna. Gizon haiek kargu onak lortu
zituzten erlijio eta politika esparruan, batez ere herrial-
dearen mendebaldean. Erdialdean eta ekialdean,
ordea, Tibeteko maisuek tokiko aristokratekin parteka-
tu behar izan zuten boterea.

XIII. mendetik XVI.era bitartean, herrialde hartan jar-
duera erlijioso bizia izan zen. Bhutanen zeuden
Budismo eskolak elkarrekin aritzen ziren lehian herrial-
dean errotu ahal izateko; hala ere, *drukpa* eskola
(txano gorriko monjeak) gailendu zitzairen besteei, bai
ikuspegi espiritualari bai politikoari dagokionez.

XV. mendean, Shabdrung Ngawang Namgyel Tibeteko
buruzagi santuak, *drukpa* eskola budistaren sortzaile-
ak, Bhutanen hartu zuen babes eta ordura arte
Hegoaldeko Haranak zeritzona herrialde bakarra bihur-
tu zuen. Shabdrungek hiru erakunde sortu zituen: admi-
nistrazio zentrala, eskualdeetako administrazioa
(eskualde bakoitzean lurralde gobernadorea zegoen,
penlop izenekoa) eta sistema judiziala (ordu arte exis-
titzen ez zena). *Drukpa*, bere eskola budista, ofizial
bilakatzeko gobernu zibil eta erlijiosoak osatutako sis-
tema ezarri zuen, bere *dzong* eta guzti (gotorlekuak

ziren). Buruzagi horren agintepean zegoela jaso zuen
herriak *Drugyul* izena (Zeruko Herensugearen Lurra).
Garai hartan eraiki zituzten egun herrialdean existitzen
diren *dzong* edo gotorlekuak. Antolaketa modu horrek
XX. mendearen hasiera arte iraun zuen.

XVIII. mendean, India britainiarrek kolonizatuta zeuka-
tela, Bhutan eta Britainia Handia elkarren aurka borro-
katzen ziren Duars-en hegoaldea mendean hartzeko
(gaur egun, eskualde hori Indiako Assam estatua da).
Bhutango armadak eskualde hartako te sailak deusez-
tatzen zituen, beren ustez Bhutanen zati zen lurralde
baten gaineko eskubidea aldarrikatzeko. Gatazka hark
guda ekarri zuen ondorio, eta alderdi biek sinatu behar
izan zuten bake hitzarmen bat. Akordio haren arabera,
Bhutanek Duars eskualdeko zati bat emango zien bri-
tainiarrei, ordainsari ekonomiko baten trukean.
Hitzarmen haren ondoren, Britainia Handiak eta
Bhutanek harreman ona izan zuten. 1865etik 1949ra,
Bhutanek gobernu britainiarraren babesa eta eragina
jaso zituen, batez ere, kanpo politikako gaietan.
Gainera, urte haietan, Bhutanek Britainia Handiaren
laguntza ekonomikoa ere jaso zuen.

XIX. mendean, herrialdeak zenbait penlopen arteko
istilu armatuak jasan behar izan zituen. Talde horiek
boterea eta eragina bereganatzeko eta beren lurralde-
ak hedatzeko borrokatzen zuten. 1907an, Tongsako
penlopa, Ugyen Wangchuk, herrialdeko errege ko-
roatu zuten. Wangchucktarren dinastiarekin Bhuta-
nek XX. menderako saltoa egin zuen, baina bere
burujabetasunari uko egin gabe, noski. Lehen errege
haren ondorengoak izan dira herrialdean buru gaur
egun arte.

1949an, jada India herrialde independentea zela eta
Britainia Handiak Asian zuen boterea motelduta, Indiak
hartu zuen Europako herrialdearen lekua eta Bhutanen
babesle bilakatu zen. Bhutan 1979. urtea arte mundu-
ko gainontzeko herrialdeetatik bakartuta bizi izan zen.

Jigne Dorje Wanchuck lehenengo erregearen bilobak
monarkia konstituzionala ezarri zuen herrialdean eta
ekonomia, politika eta gizarte garapena bultzatu zuen.
Hori dela eta, Bhutan modernoaren aita dela esaten
dute. Haren erregealdian eta Indiaren laguntzaz balia-
tuta, 1971n Bhutan Nazio Batuen Erakundeko kide
bilakatu zen.

Jigne Singhye Wangchuck egungo erregeak bere aitak jorratutako ildoari eutsi eta gogo bereziz heldu dio ingurumena eta herrialdeko kultur tradizioa bere horretan gordetzeari.

Historian zehar, Bhutanek zenbait immigrazio uholde jaso ditu Tibetetik zein Nepaetik. Lehengoak VII. mendean izan ziren: garai hartan, zenbait budismo eskolatako predikariak Tibetetik abiatu eta Hegoaldeko Haranetara heldu ziren. Bailara haiek lurralde feudal txikiak ziren, eta predikarien helburua zen bertako biztanleak budismora bihurtzea. Prozesu horrek XVI. mendera arte iraun zuen gutxi gorabehera. XIX. mendean, Nepaetik etorritako jende asko bildu zen Bhutanera babes bila, garai hartan egoera politikoa oso ezegonkorra zelako Nepalen. Immigrazio uholdeetan azkena, 50-60 hamarraldietan izan zen, Txinak Tibet anexionatu zuenean. Tibetetik ihes egin behar izan zutenetatik askok Bhutanen hartu zuten babesa.

Herrialde bakarra, herri bakarra lemapean, egungo erregeak eta haren gobernuak etorkinei Bhutango herritartasuna eman nahi zieten. Teorikoki, Bhutanera 1858 baino lehen heldu ziren etorkin guztiek dute (tibetar zein nepaldar) bhumandar herritartasuna. Errealitatean, etorkinetako asko, herrialdean zenbait belaunaldi daramatenak eta bertan jaioetakoak, lege kanpoko egoeran daude oraindik ere. Egoera horrek gatazkak sortzen ditu behin eta berriz: Bhutanen dauden nepaldar etorkinek beren herritartasuna gorde nahi dute, eta haien gogo da gutxienez bi herritartasun izatea. Tibetetik etorritako immigranteekin ere arazoak izan dira, batez ere, berrogeita hamargarreko hamarkadan txinatarren zapalkuntzatik ihesi Bhutanen babestu zirenekin. Tibetar horien arteko gehienak Bhutaneko herritar dira jadanik, baina talde batzuek beren jatorrizko herritartasuna gorde nahi dute, horien asmoa delako Tibetera itzultzea herrialde askea bilakatzen denean.

1974an erregea hiltzeko konplot batez ohartu ziren eta haren errua Tibeteko etorkinei egotzi zieten. Ordutik hona, gobernuak Bhutanen dauden tibetarren gaineko kontrola areagotu egin du. Gobernua eta monarkia ezegonkortzeko nahia leporatu diete, hau da, Tibetean izan nahiko luketen moduko herrialdea gura dutela, beren jatorrizko herrialdean ezin duten bitartean: Dalai-

lama buru izatea, alegia. Gobernuak mehatxu egin du herrialdetik botako dituela (eta Txinara bidali) Bhutango herritartasuna hartu nahi ez duten 3.000 tibetarrak.

Gehienbat iparraldean eta erdialdean bizi diren bhumandarrek, drukpa izenekoek, monarkia eta haren jokaera bultzatzen dute; haien ustez, jarrera hori beharrezkoa da herrialdearen interesak defendatu eta herrialdeak irautea lortzeko. 1985eko Herritartasun Dekretua aldarrikatu zenetik, hegoaldeko herritar asko lege kanpoko immigrantetzat jo zituzten. 1988ko erroldaren ondoren, erregeak, leku publikoetan, jantzi nazionala eta dzonga hizkuntza erabiltzeko derrigortasuna ezarri zuen. Nepalaren irakaskuntza debekatu zen, turistei leku sakratuetara sartzeko debekua ezarri zieten eta, era berean, debekatu egin ziren Indiako telebista transmisioak. Halaber, atzerriarrentzako lan bisak ere lege kanpokotzat jo zituzten. Neurri horien ondoriozko krisi politikoaren eraginez, 100 mila nepaldarrek Nepalera jo zuten, eta han errefuxiatuentzako eremuetan bizi dira. 1990etik aurrera, Bhutanentzat erruxiatuek ("hotsampas" deitzen diete) ez dute nazio-tasunik.

1998an, erregeak lehen ministro bat eta kabinete bat izendatu zituen, eta, aldi berean, Aholku Biltzarrari ekimena hartzeko eta erregearen erabakiei betoa jartzeko eskubidea eman zion, bai eta erregearen abdikazioa eskatzeko eskubidea ere. Oposizioak salatutakoaren arabera, erregeak proposamen hori Biltzarreko postuetan bere jarraitzaileak ipini ondoren egin zuen.

2002ko abenduan, gobernuak iragarri zuenez, Konstituzio proiektuaren idazketa bukatuta zegoen, eta herrialdeko eragileekin kontsultak hasiko zituzten, Bhutan monarkia parlamentarioko sistema baterantz bideratzeko. Partidu askotako sistema hartuko ote den da eztabaidaren gakoa.

Nazioarteko presioak eraginda, 2003ko urrian, Bhutanek eta Nepalek formula bat adostu zuten jatorri bhumandarreko errefuxiatuak aberriatzeko eta gainontzekoei Nepaleko herritartasuna emateko. Sei GKEz osatutako koalizio batek prozesu horren begirale gisa jardun zuen eta baztertu egin zuen formula hori.

Ekonomia

(informazioa zabaltzeko)

2. Dokumentua:

Ekonomiari buruzko zenbait datu

Thimbu hiriburua kenduta, Bhutango gainontzeko hiriak herrigune txikiak dira, dzong edota tenplu baten inguruan kokatzen direnak. Gainontzekoan, bhutandarrek landa guneeetan bizi dira.

Herritarren %90 nekazariak dira: basoak landu eta abere-aziendak haztetik bizi dira. Bhutandarren %95 lurren jabe dira, batez ere 1965ean egin zen nekazaritza arloko erreformatik. Urte hartan, nekazaritza ustiategi handiak herritarrei banatu zizkieten, eta familia bakoitzak zuen garrantziaren arabera, hektarea kopuru bat eman zieten. Larre-lurrak komunalak dira oraindik ere.

Gehien hazi diren ekonomia sektoreak honako hauek dira: industria txikia, merkataritza, meatzaritza (ez da ezaguna haren ahalmena) eta energia elektrikoaren ekoizpena.

Une honetan, Bhutanek egurra, mineralak, porlana, nekazaritzako produktuak, fruta eta mermelada kontserbak, alkoholdu edariak eta elektrizitatea esportatzen ditu. Inportatu ere egiten du, batez ere Indiatik: elikagaiak, makinak eta petroliotik eratorritako produktuak.

Orain dela gutxi arte, India zen Bhutanekin merkataritza harremanak zeuzkan herrialde bakarra. Azken urte-

otan, eta Indiako gobernuaren onespena jaso ondoren, Bhutan beste herrialde batzuekin hasi da merkataritza: Nepalekin eta Bangladeshekin.

1974an hasi zen turismoa (Bhutango gobernuak 3.000 eta 4.000 bisitari bitarte hartzen ditu urtean), *Druk Air* aireko konpainia nazionala eta zigiluak dira herrialdeak dauzkan diru sarrera nagusiak. Hala ere, Nazio Produktu Gordinaren zati txiki-txikia dira. Hango klimaren ondorioz, turismo denboraldia oso laburra izaten da (udaberria edo udazkena).

1980 eta 1990 bitartean, herrialdeko BPG %7,5 hazi zen batez beste urtero. Bestetik, 1992tik aurrera ezartzen ari den planak honako helburuak ditu: esportazioen gorakada, ingurumena gordetzea, erregioen oreka eta emakumearen sustapen instituzionala. Horretarako, gobernuak atzerriko inbertsioak bultzatu zituen Indiaren laguntza teknikoarekin. Apurka-apurka pribatizazioen politika bati ekin zitzaion. 1994-1995eko aurrekontuak erakusten duenez, nazioarteko laguntza ekonomikoak gora egin du eta, besteak beste, Nazio Batuek, zenbait agentziak eta Indaiako gobernuak berak diru ekarpenak egiten dituzte.

Oharra: "Jatorrietatik gaur egunera arte" eta "Ekonomia" ataletan aurkeztutako datu batzuk hemendik atera dira: Guía del Mundo 2001-2002. El mundo visto desde el Sur. Instituto del Tercer Mundo, Iepala. Begiratu interneten: <http://www.guiadelmundo.org.uy>

Bibliografia

Liburuak eta bideoak

Humphreys, Christmas: *Buddhism, and introduction and guide*, Middlesex, Inlaterra, Penguin books, 1985.

Instituto del Tercer Mundo: *Guía del Mundo 2003-2004. El mundo visto desde el Sur*. Instituto del Tercer Mundo / Iepala / Fundación Santa María, 2003.

Praneuf, Michel: *Bhoutan, el dragon sur el Toit*, Collection Vivre là-bas, París, L'Harmattan, 1991.

Pommaret, Françoise: *Bhutan*, Insight pocket guides, Inlaterra, EPA Publications, 1993.

Peissel, Michel: *Bhutan Secreto*, Barcelona, Juventud, 1983.

Pollard, Michael: *Éste es mi mundo*, Barcelona, Parramon, 1979.

Bernardo Bertolucci: *Pequeño Buda* (gutxi gorabehera 142 minutu irauten du), 1993.

Helbide elektroniko interesgarriak

Casa Asia. Asia eta Pazifikoko kulturekin lotutako gaiei buruzko informazio ataria. Web orria: <http://www.casaasia.es>

Escuela de Bambú. Casa Asiako kultur arteko heziketa proiektua da. Honen bidez, ikasleei Asiako kontinentearen eta Ozeano Pazifikoko herrialdeen berri eman nahi zaie. Casa Asiaren web orritik sartzen da bertan.

Amnesty International elkartearen agiri eta txostenak: <http://www.amnestyusa.org/spanish/countries/bhutan/index.do>

Control ciudadano, pobreziaaren kontrako borrokari eta genero berdintasunari buruzko informazioa eskaintzen duen herritar erakundearen nazioarteko sarea da. **Control Ciudadano** sarearen idazkari nagusia Montevideon (Uruguay) dago eta egoitza **Hirugarren Munduaren Institutuan (IteM)** dauka. Herrialde bakoitzari buruzko datu eguneratuak eskaintzen ditu. Hona hemen Bhutani buruzko informazioa: <http://www.socwatch.org.uy/es/fichasPais/113.html>

Irakasle, ikasle, gazte edo gainontzeko-
ok, zuon prestakuntza jardueretan **Asia, askotariko kontinentea. Himalaiako herrialdeak** liburuan aurkitu dituzuen proposamenak erabili badituzue, bidali zuen ohar, iradokizun eta proposamenak, horrela material horien edukiak eta itxura hobetzen lagunduko diguzue eta.

Zuen oharrak Imma Llorti bidali ahal dizkiozue: immallort@inchcolm.org

